- Elkarriketa erdi-egituratu sakonak.

## 2.5. IKERKETAREN DIMENTSIO ETIKOA

Proiektuaren fase guztietan, ikerketa-proiektuak lehentasuna eman dio desgaitasuna duten pertsonen ongizateari. Ikerketa hau gizakien ongizatearen eta/edo osasunaren mesedetan gizarte-, politika-, ekonomia- edo ingurumen-kondizioak babesteari edo hobeteari aplikatutakoa da.

Egungo araudia betez, Ebazpena, 2008ko otsailaren 28koa, *Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerketako errektoreordearena*. Honen bidez agindua ematen dugu *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko UPV/EHUko ikerketa- eta irakaskuntza-jarduerara jakin batzuen inplikazio metodologiko, etiko eta juridikoak ebaluatu eta horien jarraipena egiteari buruzko Arautegia, eta Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearena (IIEB), proiektuaren memoria bat aurkeztu zitzaion Gizakiekin lotutako Ikerketarako Etika Batzordeari (GIEB). Memoriak (IIEB erref. zk.: M10/2021/170) ikerketaren balio soziala eta justifikazioa, ikertzaile-taldearen kualifikazioa, baliozkotasun zientifikoa eta metodologikoa eta alderdi etiko espezifikoak jasotzen ditu.*

2021eko maiatzaren 20an, aurkeztutako proiektua ikerketa-taldeak eskatutako baldintzetan egitearen aldeko txostena eman zuen Batzorde horrek, honako hau iritzita:

*«Ikerketa justifikatuta dago haren helburuek ezagutza areagotzea eta gizartearentzat onura bat sortzea ahalbidetuko dutelako, aurreikus daitezkeen eragozpenak eta arriskuak onartzeko moduan. Ikertzaile-taldearen gaitasuna eta eskura dituen baliabideak egokiak dira hori egiteko. Proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren baldintza metodologiko eta etikoen arabera planteatu da, ikerketa zientifikoaren jardunbide egokiaren irizpideen arabera. Indarrean dagoen araudia betetzen da, hura gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak, akordioak edo hitzarmenak barne».*

## 2.6. IKERKETAREN FASEAK

Ebaluazio-ikerketaren prozesuak hiru urteko epea behar izan du, ikerketa diseinatu eta IIEBi (Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordea) aurkeztutako memoria egin zenetik, balorazioa egin zezan. Ebaluazio-ikerketaren prozesua hainbat fasetan egin da, eta, aldi berean, ikerketa-taldea koordinatzeko hainbat ekintza eta hainbat bilera egin dira:

### 1. fasea Ikerketa-proiektua diseinatzea

1. ekintza: Ikerketaren diseinua, kontzeptu- eta arau-esparrua, helburuak, aztertu beharreko eremuak eta ebaluazioaren metodologia orokorra.
2. ekintza: Arlo orokorrari, sozialari, psikologikoari eta ekonomikoari buruzko online galdetegiak diseinatzea. «Gizarte-bazterketa baloratzeko tresna tekniko komuna» berrikustea eta desgaitasun-egoerekin osatzea.
3. ekintza: IIEBi memoria aurkeztea. Erakundeen arteko akordioa formalizatzea.

### 2. fasea Informazio kuantitatiboa biltzea: galdetegiak eta tratamendu estatistikoa

4. ekintza: Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonak biltzea eta parte hartzeko konpromisoa formalizatzea, baimen informatuaren bidez.
5. ekintza: Galdetegiak (orokorra, psikologia, soziala eta ekonomia) telematikoki edo aurrez aurre bidaltzea eta jasotzea, pertsona bakoitzaren erabakiaren arabera. Laguntza pertsonala behar den kasuetan, galdetegiak betetzeko laguntza ematea.
6. ekintza: Galdetegien bidez emandako informazioa biltzea, iraultzea, araztea eta estatistikoki tratatzea.

### 3. fasea Informazio kualitatiboa biltzea: banakako elkarrizketak eta sistematizazioa

7. ekintza: Banakako elkarrizketak egitea parte-hartzaileekin, galdetegien bidez lortutako informazioa osatzeko, eta Bizitza Independenteterako Programari buruzko haien balorazioak eta hobekuntza-proposamenak jasotzea.
8. ekintza: Banakako elkarrizketetan emandako informazioa aztertzea eta sistematizatzea.

### 4. fasea Emaizten txostena garatzea

9. ekintza: Hasierako txostena egitea, aztergai den eremu bakoitzetik (orokorra, soziala, psikologia eta ekonomia) eratorritako informazioarekin eta datuekin.
10. ekintza: Azken txostena, ondorioak eta proposamenak garatzea.

## 2.7. METODOLOGIA

Ikerketaren ikuspegia metodologia mistoa da, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartzen baititu. Informazioaren teknikak eta tratamendu estatistikoak rol nagusia izan badute ere, ezinbestekoa izan da elkarriketak egitea, bai emandako datuak argitzeko eta osatzeko, bai kideek programaren balorazioa ezagutzeko.

Ikerketa hasi zenean, 27 pertsona ari ziren parte hartzen Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturako Bizitza Independenteterako Programan, aurreko urte batzuetan baino gutxiago, heriotzagatiko bajen ondorioz. Hain populazio txikiarekin probabilitate-lagin bat erabiltzea ezinezkoa denez (kalkulatuz gero, 25 subjekturen parte-hartzea beharko zatekeen), probabilitaterik gabeko lagin bat hartu da. Ikerketan sartzeko irizpidea gaur egun Bizitza Independenteterako Programako parte-hartzailea izatea izan da. Parte-hartzea borondatezkoa izan da: 18 pertsonak bete dituzte ikerketaren galdetegiak, eta 16k parte hartu dute elkarriketan.

Hainbat tresna kuantitatibo erabiltzen dira Programa osatzen duten pertsonen ongizate psikosoziala eta horren eragin ekonomikoa neurtzeko. Horietako bakoitza sakon azaltzen da txosten honen II. zatian (3. kapitulutik 6.era). Lehenik eta behin, Programan parte hartzen duten pertsonen profila ezagutzeko, galdetegi orokor bat pasatu zaie (I. eranskina).

Bigarrenik, parte-hartzaileen gizarteratzearen gaineko eragina neurtzeko, Eusko Jaurlaritzaren «Gizarte-bazterketa baloratzeko tresna tekniko komuna» (2012) erabili da. Tresnari hainbat item gehitu zaizkio, Bizitza Independentearen Foroak (2008) proposaturako adierazleetan oinarrituta, bai eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko ikertzaileek eta elkartuko langileek elkarrekin egindako esperientziaren eta hausnarketaren ondoriozko beste batzuk ere (II. eranskina).

Hirugarrenik, Bizitza Independenteterako Programak ongizate psikologikoan nola eragiten duen neurtzeko, psikopatologia eta osasun positiboa neurtzen dituzten hainbat tresna erabili dira (III. eranskinetik VII. eranskinera). Hauek dira psikopatologia neurtzeko tresnak: BDI-II Beck Depression Inventory-Second Edition (Beck et al., 1996) eta General Health Questionnaire (GHQ-12) (Goldberg eta Williams, 1988); eta osasun mental positiboa neurtzeko tresnak: Satisfaction With Life Scale / Bizitzarekiko Gogobetetze-eskala (SWLS) (Diener et al., 1985), Mental Health Continuum Short Form (MHC-SF) (Keyes, 2005) eta Ryff-en ongizate psikologiko eskalen ingurunea menderatzea (Ryff, 1989).

Laugarrenik, Programaren eragin ekonomikoa neurtzeko, metodologia Social Return On: Investment (SROI) delakoan oinarritzen da. Narrillos-en arabera (2010), erakunde batek sortutako gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-balioak ulertzeko, neurtzeko eta komunikatzeko prozesua da. Hau da, enpresa edo jarduera batek sortutako inpaktu soziala neurtzeko balio duen tresna bat da, proiektuaren inpaktu desberdinei diru-balio jakin bat esleituz. Horrela, Kostu-Mozkin azterketa bat egin da, Programa gauzatzean sortzen den balio soziala hura gauzatzeko behar

den inbertsioarekin alderatzeko. Parte-hartzaileek galdetegi bat bete dute desgaitasunari eta kontsumo-gastuei buruzko hileko gastu espezifikoiari buruz (VIII. eranskina). Gipuzkoako Foru Aldundiak prestazio eta laguntzen zenbatekoei buruzko zenbait datu ekonomiko eman ditu.

Aipatu bezala, galdetegi guztiak elkartuk egin ditu, eta Exceleko tauletan irauli ditu gero. Parte-hartzaileen datu pertsonalei goitizenak jarri zaizkie UPV/EHU-ko ikertzaileei bidali aurretik. Datu pertsonalak babesteko neurriak aplikatu dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Datuen tratamendua SPSS estatistika-programaren bidez egin da, eta programa horretara inportatu ziren Excel tauletan erregistratutako datuak. Bildutako datuak egiaztatzeko eta arazteko hainbat prozesu egin ziren, haiek landu aurretik. Gizarte- eta psikologia-esparruko aldagaiak sexuaren eta desgaitasun motaren aldagaiekin gurutzatu dira, eta aztertutako aldagaiak sexuaren (emakumea edo gizonea<sup>1</sup>), eta desgaitasun motaren (sortzetikoa edo gerora sortutakoa) arabera zer neurritan zituen aldeak jakin da. Ikerketak arreta berezia eskaini dio genero-azterketari, ateratako datuetatik abiatuta (txostenaren III. zatia).

Bestalde, erdi-egituratutako 16 elkarrizketa indibidual sakon egin dira, eta, horiei esker, informazio subjektiboa jaso ahal izan da programarako sarbideari, laguntza-baliabideei, administrazioarekiko harremanari, programaren balorazioari eta parte-hartzaileek hobetzeko proposamenei buruz. Bildutako informazioa egoera azterketako AMIA (aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulezia) matrize bategan antolatu da. Horrek Programaren onurak eta mugak identifikatzeko aukera ematen du, barnekoak zein kanpokoak, parte-hartzaileen arabera (txostenaren IV. zatia).

Ikerketan parte hartzeak ez du inolako arriskurik eragin parte-hartzaileen osasunean. Hala eta guztiz ere, errespetuaren eta zaintzaren premisekin egin da lan, ikerketa-prozesua haien zirkunstantzietara eta gaitasun funtzionalera egokituz. Pertsonen arabera, 45 minutuko bizpahiru saio aurreikusi dira galdetegiak eta elkarrizketa sakona egiteko. Ikerketarako tresna hauek elkartuk gauzatu ditu, zehazki, Rosa Ugaldek, elkartuko gizarte-langileak, Ane Izagirreren laguntzarekin bere gizarte-laneko curriculum-praktiketan eta ondoren lan mundura igarotzeko bekan.

---

<sup>1</sup> Ikerketa mugatua izan dela oinarri hartuta, ez da ikusi pertsona ez-binarioaren kategoria sartzeko premiarik.

## II. zatia

### — Programaren ebaluazio kuantitatiboa eta eragin sozial, emozional eta ekonomikoa

#### 3. GALDETEGIEN AZTERKETA: BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN OINARRIZKO DATUAK

- 3.1. Bizitza Independenterako Programan parte hartzen duten pertsonen profila
- 3.2. Bizitza Independenterako Programan sartzea
- 3.3. Laguntzaile pertsonalaren kudeaketa
- 3.4. Laguntzaile pertsonalak kontratatzeke zuzeneko prestazioa
- 3.5. Bizitza Independenterako Programan parte hartzeke laguntza-sarea
- 3.6. Ondorio gisa

#### 4. PROGRAMAK GIZARTEAREN IKUSPEGITIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA

- 4.1. Inklusio eta partaidetza sozialari buruzko ikuspegia
- 4.2. Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna
- 4.2. Emaizak
- 4.4. Ondorio gisa

#### 5. PROGRAMAK IKUSPEGI PSIKOLOGIKOTIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA

- 5.1. Osasun mentalari buruzko ikuspegi teorikoa
- 5.2. Psikopatologia eta osasun mental positiboa neurtzeko tresnak
  - 5.2.1. Psikopatologia neurtzeko tresnak
  - 5.2.2. Osasun mental positiboa neurtzeko tresnak
- 5.3. Emaizak
- 5.4. Ondorio gisa

#### 6. PROGRAMAK IKUSPEGI EKONOMIKOTIK DUEN ERAGINAREN AZTERKETA

- 6.1. Gizarte-inbertsioaren itzulera ekonomikoaren ikuspegia
- 6.2. *Social Return on Investment* (SROI) metodologia
- 6.3. Emaizak
- 6.4. Ondorio gisa

### — 3. Galdetegien azterketa: Bizitza Independententerako Programan parte hartzen duten pertsonen oinarritzko datuak

Atal honetan, Bizitza Independententerako Programan parte hartzen duten eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoerari buruzko oinarritzko datuak jasotzen dira. Horretarako, emandako galdetegiaren (I. eranskina) erantzunak aztertu dira; 18 pertsonak hartu zuten parte.

#### 3.1. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN PROFILA

Bizitza Independententerako Programan parte hartzen duten pertsonen profila zehazteko, datu soziodemografiko hauek aztertu dira:

- Parte-hartzaileen datu pertsonalak, hala nola: bizilekua, adina, sexua eta egoera zibila.
- Desgaitasun- eta mendekotasun-maila eta -tipologiarekin lotutako datuak.
- Ohiko bizilekuari buruzko informazioa, etxebizitzaren edukitze-erregimena eta bizikidetza-unitateari buruzko datuak.
- Gizarte- eta prestakuntza-egoeraren eta egoera ekonomikoaren azterketa; diru-sarreraren iturritzat hartuko dira eskubidea duten kotizaziopeko prestazioak eta kotizaziopekoak ez direnak, eta pentsio-osagarriak eta mendekotasunagatiko laguntzak ere kontuan hartuko dira. Puntu honetan, prestakuntza-maila ere kontuan hartu da, diru-sarrerekin lotura zuzena duelako.

Ebaluazioa egiteko unean, 27 pertsonak parte hartu dute Bizitza Independententerako Programan; horietatik 18k (% 66,7) galdetegia bete eta ikerketa-proiektuan parte hartu dute, hamar gizonek (% 55,6) eta zortzi emakumek (% 44,4). Beraz, lagina nahiko adierazgarria da, eta txostenean adierazten diren datuek, neurri handi batean, programako parte-hartzaile guztien egoera eta ezaugarriak islatzen dituzte.

Bizitza Independententerako Programaren estaldura-tasa testuinguruan kokatzeko, adierazi behar da tasa hori % 0,06 dela Gipuzkoan, 2021/12/31n gutxienez % 33ko desgaitasuna zuten 49.060 pertsonen guztizkoaren aldean. Jarraian, konparazio-ondorioetarako, eta Bizitza Independententerako Programa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan jasota ez dagoela eta aipatzen diren prestazio ekonomikoak mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat direla adierazten da (Programan sartzeko ere eskatzen da baldintza hori). Hala eta guztiz ere, beste baliabide batzuen estaldura-tasak adierazten dira:




### 1. taula. Prestazio eta zerbitzuen estaldura-tasak Gipuzkoan

|                                                                                   | Pertsonak | Estaldura-tasa (%) |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------|--------------------|
| >=% 33-ko desgaitasuna duten pertsonak Gipuzkoan (2021-12-31)                     | 49.060    |                    |
| Familia ingurunekeo Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa                              | 5.434     | 11,08              |
| Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa                                      | 2.359     | 4,81               |
| Etkez etxeko laguntza-zerbitzua                                                   | 1.768     | 3,60               |
| Desgaitasuna duten pertsonak adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan            | 1.238     | 2,52               |
| Desgaitasuna duten pertsonak desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan | 848       | 1,73               |
| Desgaitasuna dutenentzako Egunekeo Zentroa                                        | 716       | 1,46               |
| Bizitza Independenterako familia-laguntzako programa (adimen-desgaitasuna)        | 50        | 0,10               |
| Bizitza Independenterako Programa (desgaitasun fisikoa)                           | 27        | 0,06               |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politikako Departamentua (2021-12-31)

### 1. grafikoa. Prestazio eta zerbitzuen estaldura-tasak Gipuzkoan



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politikako Departamentua (2021-12-31)

**Adinari** dagokionez, hamabi pertsonak 51 eta 64 urte bitartean dituzte, bostek 31 eta 50 urte bitartean, eta bakarra da 65 urtetik gorakoa. Hala, Programan parte hartzen dutenen batez besteko adina 54,8 urtekoa da.

## 2. taula. Adina


| ADINA          | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                    |       | GUZTIRA |       |
|----------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|--------------------|-------|---------|-------|
|                | GIZONEZKOA |       | EMAKU-MEZKOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTU-TAKOA |       |         |       |
|                | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                  | %     | K       | %     |
| 18-30          | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                  | 0,0   | 0       | 0,0   |
| 31-50          | 3          | 30,0  | 2            | 25,0  | 4                | 40,0  | 1                  | 12,5  | 5       | 27,8  |
| 51-64          | 7          | 70,0  | 5            | 62,5  | 6                | 60,0  | 6                  | 75,0  | 12      | 66,7  |
| 65 eta gehiago | 0          | 0,0%  | 1            | 12,5  | 0                | 0,0%  | 1                  | 12,5  | 1       | 5,5   |
| Guztira        | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                  | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Desgaitasun motari dagokionez, 31-50 urteko tartean dauden pertsonen % 80,0k sortzetiko desgaitasuna du. Datu horrek esan nahi du desgaitasun-egoerak bi-zi-ibilbide luzeagoa izan duela, eta horrek, hobeto ezagutzen direla norberaren beharrak eta horiek betetzeko dauden aukerak, edo, bestela, desgaitasun-egoera hori adin handi samarrean izan dela Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen dutenen eta gerora sortutako desgaitasuna dutenen artean.

Halaber, nabarmentzen du gazte bakar bat ere ez dela sartu Bizitza Independenteterako Programan (30 urtetik beherakoak, Euskadiko Gazteei buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen arabera), eta horrek agerian uzten duela baliabide horrek ez duela loturarik gazteen emantzipazio-politikekin. Ildo horretan, esan behar da aipatutako politikek helburu hau dutela: «gazteak osotasunez eta aukera-berdintasunez gizarteratzea lortzea da, beren bizi-proiektua autonomiaz eraikitzen eta eskubide guztiak egikaritzen joateko aukera izan dezaten, arreta berezia ipinita gazte kalteberenei» (martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 2. art.).

2. grafikoa. Adina



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta

Gipuzkoako Lurralde Historikoan **hainbat lekutan** bizi dira (IX. eranskineko 2. taula): zazpi Donostian bizi dira (% 38,9), hiru Irunen (% 16,7), bi Zarautzen (% 11,1), eta bana ordezkaturik dauden gainerako udalerrietan: Astigarraga, Beasain, Eibar, Elgoibar, Lasarte-Oria eta Tolosa (% 33,3). Beraz, Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen dutenen % 94,4 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira, eta horrek frogatzen du baliabide hori, batez ere, hiri-eremuko desgaitasuna duten pertsonen erabiltzen dutela.

**Egoera zibilar** dagokionez, ezkonduen edo bikoteen eta ezkongabeen kopuru orekatua dago; izan ere, zortzi lehen kategorian daude, eta hamar bigarrenen. Hala ere, nabarmenezkoa da ezkonduak dauden edo bikotekidea duten pertsonen % 75,0 gizonak direla, eta, desgaitasun motari dagokionez, ezkonduak dauden edo bikotekidea duten pertsona guztiek sortzetiko desgaitasuna dutela.

## 3. taula. Egoera zibila

| EGOERA<br>ZIBILA                | SEXUA      |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                        |       | GUZTIRA |       |
|---------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|------------------------|-------|---------|-------|
|                                 | GIZONEZKOA |       | EMAKU-<br>MEZKOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTU-<br>TAKOA |       |         |       |
|                                 | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                      | %     | K       | %     |
| Ezkondua<br>eta/edo<br>bikotean | 6          | 60,0  | 2                | 25,0  | 8                | 80,0  | 0                      | 0,0   | 8       | 44,44 |
| Ezkongabea                      | 4          | 40,0  | 6                | 75,0  | 2                | 20,0  | 8                      | 100,0 | 10      | 55,56 |
| Alarguna                        | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                      | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira                         | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                      | 100,0 | 18      | 100,0 |


Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Txostenaren arabera, Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonen % 44,4 ezkontuta daude edo bikotekidea dute, baina datu hori ez dator bat elkartuk egindako «Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharizanei buruzko azterketa-diagnostikoa» (2015) lanean jasotakoarekin. Bertan adierazten zen desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 34,3 egoera horretan zeudela, eta, aldiz, Gipuzkoako biztanleen artean, % 46,6. Beraz, Bizitza Independentetaren ereduak modu erabakigarrian laguntzen du desgaitasuna duten pertsonen beren familia-unitate propioa osa dezaten, biztanleria osoarekin parekatzeraino.

**Desgaitasun motari** dagokionez (IX. eranskineko 4. taula), hamar kasutan (% 55,6) sortzetikoa da (lau emakume eta sei gizon), eta zortzitan (% 44,4), berriz, gerora sortutakoa (lau emakume eta lau gizon). **Desgaitasunaren diagnostikoari** dagokionez (IX. eranskineko 5. taula), kategoria nagusia neurodegeneratiboa da, zehazki, sei pertsona (% 33,3); beste lauk (% 22,2) garun-paralisiaren diagnostikoa dute, hiruk tetraplegia (% 16,7), batek paraplegia (emakumea), batek zentzumen-desgaitasuna (gizona), beste batek desgaitasun neurodegeneratiboa eta garun-paralisia, eta bik zehaztu gabeko beste desgaitasun mota bat dute.

Bizitza Independenteterako Programako ia parte-hartzaile guztiek (% 94,4) % 75-100en arteko **desgaitasun-maila** aitortua dute (IX. eranskineko 6. taula).


4. grafikoa. Desgaitasun-maila



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

**Mugikortasunaren** kasuan (IX. eranskineko 7. taula), % 72,2k A kategoriako mugikortasun murriztua du, hau da, gurpil-aulkia erabiltzen du, % 22,2k zazpi puntu edo gehiago ditu, eta horietako batek, 0-6 puntu, hau da, ez du aitortua mugikortasun mugatuko pertsonaren izaera.


5. grafikoa. Mugikortasun murriztua



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

**Mendekotasun-mailari** dagokionez (IX. eranskineko 8. taula), % 44,4k III. mendekotasun-maila du aitortua, hau da, mendekotasun handia; % 44,4k aitortua du II. mendekotasun-maila, mendekotasun larria; eta % 11,1ek aitortua du I. maila, mendekotasun moderatua. Nabarmentzekoa da mendekotasun handia duten emakumeen ehunekoa (% 62,5) gizonena baino handiagoa dela (% 30,0), baita sortzetiko desgaitasuna duten pertsonen mendekotasun-maila handiagoa ere (% 100,0, II. edo III. maila), sortutako desgaitasunaren aldean (% 75,0, II. edo III. maila).

#### 6. grafikoa. Mendekotasun-maila



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

**Bizikidetza-erregimenari** dagokionez (IX. eranskineko 9. taula), pertsonen % 38,9 ezkontidearekin edo bikotekidearekin bizi da (gainerako % 5,5 ez da bikotekidearekin bizi), % 33,3 bakarrik, % 16,7 laguntzaile pertsonalarekin eta % 11,1 senideekin. Nabarmentzekoa da ezkontide edo bikotekidearekin bizi diren pertsona guztiek sortzetiko desgaitasuna dutela, eta bakarrik bizi diren pertsonen % 66,7 emakumeak direla.

Pertsona guztiak etxebizitza partikular batean bizi dira, eta horietako batek ere ez du desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentrorik erabiltzen (Programan sartzeko baldintzekin bat etorritik), ezta eguneko zentrorik ere. Hala ere, zehaztu behar da kasu batean tutoretzapeko apartamentua dela, nahiz eta eremu komunitarioan kokatuta egon, eta bi kasutan etxebizitza ingurune instituzionalizatu batean kokatuta dagoela, nahiz eta ingurune horretatik independentea izan. Kasu guztietan, etxebizitzaren gaineko eskubidearen titulartasuna desgaitasuna duen pertsonari dagokio, eta ez familiari.

**Etxebizitza partikularren erregimenari** dagokionez, nabarmentzekoa da % 77,7 jabetzan bizi dela, eta % 16,7 alokairuan eta kasu bat (% 5,6) tutoretzapeko apartamentu batean.


7. taula. Etxebizitza partikularren erregimena

| ETXEBIZITZA<br>PARTIKU-<br>LARRAREN<br>ERREGIME-<br>NA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                        | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                        | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Jabetza askea                                          | 4          | 40,0  | 2                | 25,0  | 3                | 30,0  | 3                    | 37,5  | 6       | 33,3  |
| BOE jabetza                                            | 4          | 40,0  | 4                | 50,0  | 5                | 50,0  | 3                    | 37,5  | 8       | 44,4  |
| Alokairu askea                                         | 1          | 10,0  | 1                | 12,5  | 2                | 20,0  | 0                    | 0,0   | 2       | 11,1  |
| BOE alokairua                                          | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Tutoretzape-<br>ko aparta-<br>mentua                   | 1          | 10,0  | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Guztira                                                | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Datuetatik ondorioztatzen da lotura argia dagoela jabetzako etxebizitza bat, babes publikoko edo librekoa, eskuratzearen eta bizitza independenteko proiektuak gauzatzearen artean, eta alokairuak arlo horretan betetzen duen zeregina bigarren mailakoa dela.

7. grafikoa. Etxebizitza partikularren erregimena



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Era berean, etxebizitza-politika publikoak funtsezko tresna dira desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean bizitza independenteko proiektuak garatzeko; izan ere, ebaluazioan parte hartu zuten pertsonen % 55,6k bizimodu berri bati ekin ahal izan zioten, babes publikoko etxebizitza bat eskuratu ondoren.

Bizitza Independentearen Programan parte hartzen dutenek dituzten **laguntza-baliabideei** dagokionez, nabarmentzekoa da % 44,4k programaren beraren babesa baino ez duela jasotzen, eta % 50,0k Laguntzaile Pertsonalentzako Prestazio Ekonomikoarekin (LPEP) eta % 16,7k Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin (ELZ) bateratzen duela. Nolanahi ere, programan sartzeko baldintzetako bat LPEP aldez aurretik eskatzea da.

8. taula. Bizitza independenterako laguntzak

| BIZITZA IN-<br>DEPENDEN-<br>TERAKO LA-<br>GUNTZAK         | GENEROA    |       |                  |      | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-----------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                           | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |      | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                           | K          | %     | K                | %    | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bizitza Inde-<br>pendenterako<br>Programa                 | 4          | 40,0  | 4                | 50,0 | 4                | 40,0  | 4                    | 50,0  | 8       | 44,4  |
| Bizitza Inde-<br>pendenterako<br>Programa +<br>LPEP       | 4          | 40,0  | 3                | 37,5 | 5                | 50,0  | 2                    | 25,0  | 7       | 38,9  |
| Bizitza Inde-<br>pendenterako<br>Programa +<br>ELZ        | 1          | 10,0  | 0                | 0,0  | 1                | 10,0  | 0                    | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Bizitza Inde-<br>pendenterako<br>Programa +<br>LPEP + ELZ | 1          | 0,0   | 1                | 12,5 | 0                | 0,0   | 2                    | 25,0  | 2       | 11,1  |
| Guztira                                                   | 10         | 100,0 | 8                | 100  | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

**Prestakuntzari** dagokionez, Bizitza Independenterako Programan parte hartu duten pertsonen % 33,3k goi-mailako irakaskuntza amaitu du (unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak), % 27,9k bigarren hezkuntza eta goi-mailako bigarren hezkuntzaren ondokoa (bigarren hezkuntza, batxilergoa



eta oinarrizko lanbide-heziketa) eta % 38,9k lehen hezkuntza. Nabarmentze-koa da ez dagoela ikasketarik gabeko pertsona bakar bat ere; soilik lehen hezkuntza amaitu dutenen artean, berriz, % 71,4k gerora sortutako desgaitasuna du (% 28,6k sortzetiko desgaitasuna du), eta % 57,1 emakumeak dira (% 42,9 gizonak).

#### 9. taula. Prestakuntza

| PRESTA-KUNTZA      | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|--------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                    | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                    | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Ikasketarik ez     | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                 | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Lehen Hezkuntza    | 3          | 30,0  | 4            | 50,0  | 2                | 20,0  | 5                 | 62,5  | 7       | 38,9  |
| Bigarren Hezkuntza | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 1                | 10,0  | 0                 | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Batxilergoa        | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 1                | 10,0  | 0                 | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Oinarrizko LH      | 1          | 10,0  | 2            | 25,0  | 2                | 20,0  | 1                 | 12,5  | 3       | 16,7  |
| Goi mailako LH     | 2          | 20,0  | 0            | 0,0   | 1                | 10,0  | 1                 | 12,5  | 2       | 11,1  |
| Unibertsitatea     | 2          | 20,0  | 2            | 25,0  | 3                | 30,0  | 1                 | 12,5  | 4       | 22,2  |
| Guztira            | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegiaren bildutako datuak oinarri hartuta.

Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten guztiak **pentsiodunak** dira (IX. eranskineko 15. taula). Horietako bat enplegu-araubide bereziaren barruan dago, eta prestakuntza eta ponentziak emateko aukera ematen du. Beraz, datuetatik ondorioztatzen da desgaitasun fisikoa izanda lan-jarduera bat egiten duten pertsonak ia ez dutela Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen. Normalean, lan-etapa amaitzen denean eta lanerako ezintasun iraunkorreko pentsioa jasotzen dutenean sartzen dira Programan.

**Pentsio motari** dagokionez, azpimarratu behar da pertsona guztiek dituztela pentsiotik datozen diru-sarrerak, aldez aurretik lan-jarduera bat egin izanagatik, dela norberarena, dela senide eragile batena (umezurtz-pentsioa). Aitzitik, horietako bakar batek ere ez du diru-sarreraren iturri bakartzat kotizazio gabeko pentsiorik edo ardurapeko seme-alabagatiko prestaziorik; egoera ekonomiko hori, bestalde, ohikoa da desgaitasuna duten pertsonen artean.

10. taula. Pentsio mota

| PENTISIO<br>MOTA                                             | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                              | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                              | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Kotizazio gabeko pentsioa                                    | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Ardurapeko seme-ala-bengatiko prestazioa                     | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Ardurapeko seme-ala-bengatiko prestazioa + beste pentsio bat | 3          | 30,0  | 2            | 25,0  | 4                | 40,0  | 1                    | 12,5  | 5       | 27,8  |
| Gizarte-ongi-zateko funtsa                                   | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Ezintasun osoa                                               | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Ezintasun absolutua                                          | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Baliaezintasun handia                                        | 6          | 60,0  | 6            | 75,0  | 6                | 60,0  | 6                    | 75,0  | 12      | 66,7  |
| Bestelakoak                                                  | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira                                                      | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.


**Egoera ekonomikoari** dagokionez, esan behar da Programan parte hartzen duten pertsonetako bakar batek ere ez duela jasotzen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (IX. eranskineko 17. taula), eta diru-sarreraren mailari buruzko datuek adierazten dute ez dagoela diru-sarrera gutxiago duen pertsonarik, nahiz eta profil hori kuantitatiboki garrantzitsua izan desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean. Hala, % 61,1ek 1.500 eurotik gorako hileko diru-sarrera pertsonalak ditu, eta % 11,2k, 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak. Diru-sarreraren maila handienaren (2.000 euro baino gehiago) ezaugarria da gizonak (% 80,0) eta sortzetiko desgaitasuna duten pertsonak (% 80,0) direla nagusi.

11. taula. Hileko diru-sarrera pertsonalen maila

| HILEKO DIRU-SARRERA PERTSONALEN MAILA | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|---------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                       | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                       | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Diru-sarrerarik gabe                  | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                 | 0,0   | 0       | 0,0   |
| 500 €-raino                           | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                 | 0,0   | 0       | 0,0   |
| 500-700€                              | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                 | 12,5  | 1       | 5,6   |
| 700-1.000€                            | 0          | 0,0   | 1            | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                 | 12,5  | 1       | 5,6   |
| 1.000-1.500€                          | 3          | 30,0  | 2            | 25,0  | 3                | 30,0  | 2                 | 25,0  | 5       | 27,8  |
| 1.500-2.000€                          | 2          | 20,0  | 4            | 50,0  | 3                | 30,0  | 3                 | 37,5  | 6       | 33,3  |
| 2.000 € baino gehiago                 | 4          | 40,0  | 1            | 12,5  | 4                | 40,0  | 1                 | 12,5  | 5       | 27,8  |
| Guztira                               | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

11. grafikoa. Hileko diru-sarrera pertsonalen maila



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

### 3.2. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAN SARTZEA

Atal honetan, Bizitza Independenteterako Programan sartzeari buruzko gai espezifikoak jorratzen dira, eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizitza independentearen proiektuari ekitea erabakitzen duten unetik jasotzen da informazio garrantzitsua.

Programan parte hartu aurreko bizikidetzako egoerari dagokionez, aipatzekoa da 15 pertsona beren etxean bizi zirela, laguntza desberdinekin, bereziki familia-arlokoak, eta 3 pertsona instituzionalizatuta zeudela. Beraz, bereziki aipagarria da Programak familian oinarritutako laguntza-eredua gaitzitzeko duen eraginkortasuna, bai eta horren bidez hiru pertsonak desinstituzionalizazio-prozesua gauzatzeko dakarren balio kualitatiboa ere.


12. taula. Programara sartu aurretiko egoera

| PROGRAMA-<br>RA SARTU<br>AURRETIKO<br>EGOERA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                              | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                              | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Egoitza-zen-<br>troa                         | 2          | 20,0  | 1                | 12,5  | 2                | 20,0  | 1                    | 12,5  | 3       | 16,7  |
| Etxean, fami-<br>liaren lagun-<br>tzarekin   | 6          | 60,0  | 5                | 62,5  | 7                | 70,0  | 4                    | 50,0  | 11      | 61,1  |
| Etxean,<br>laguntza per-<br>sonalarekin      | 2          | 20,0  | 0                | 0,0   | 1                | 10,0  | 1                    | 12,5  | 2       | 11,1  |
| Etxean, beste<br>laguntza<br>batzuekin       | 0          | 0,0   | 2                | 25,0  | 0                | 0,0   | 2                    | 25,0  | 2       | 11,1  |
| Guztira                                      | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egin, galdetegiaren bildutako datuak oinarri hartuta.

Programaren berri izan zuten moduari dagokionez (IX. eranskineko 20. taula), azpimarratzekoa da elkartuk programaren zabalkundean eta sustapenean izan zuen eginkizuna; izan ere, kasuen % 44,5etan pertsonen Federazioak emandako informazioaren bidez ezagutu zuten programa, eta eskaerarako lehen urratsak ere hala egin zituzten. Era berean, ebaluazioaren parte hartu duten pertsonen emandako erantzunetatik ondorioztatzen da horietako batek ere ez zuela Programaren berri izan komunikabideen bidez, eta, zalantzarik gabe, hedapen eta sozializazio eskasaren isla da hori.

13. grafikoa. Programaren berri izateko modua



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bizitza independenteko proiektu bati hasiera emateko erabakiak erresistentziak eragin ditzake desgaitasun fisikoa duten pertsonen sare formal eta informaletan. Hori dela eta, egokitzen jo da Programan parte hartzen duten pertsonen alderdi horri buruz galdetzea, hasierako urratsek familiaren, erakundearen ostatuaren eta abarren erresistentziak ekarri ote zituzten zehazteko. Emandako erantzunen arabera, gehienek (% 66,7) ez zituzten aipatutako erresistentziak hauteman, nahiz eta horiek gertatu zirenean jaiotzetiko desgaitasuna zutenen artean handiagoak izan (% 40,0), gerora sortutako desgaitasuna dutenen aldean (% 25,0).

14. taula. Erresistentzien pertzepzioa


| ERRESIS-<br>TENTZIEN<br>PERTZEP-<br>ZIOA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                          | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                          | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai                                      | 3          | 30,0  | 3                | 37,5  | 4                | 40,0  | 2                    | 25,0  | 6       | 33,3  |
| Ez                                       | 7          | 70,0  | 5                | 62,5  | 6                | 60,0  | 6                    | 75,0  | 12      | 66,7  |
| Guztira                                  | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Programan sartzeko eskaeraren konplexutasunari ere heldu zaio (IX. eranskineko 22. taula), hainbat agiri aurkeztu eta izapide jakin batzuk egin behar baitira. Hala, parte-hartzaileen % 55,6k erantzun zuten eskaera ez zitzaizela konplexua izan, eta % 44,4k baietz erantzun zuten.

Sarbidea eskatzeko funtsezko izapidea Bizitza Independentearen Proiektua egitea da (IX. eranskineko 23. taula). Horren bidez, desgaitasuna duen pertsonak bere laguntza-beharrak zehazten ditu, bai eta premia horien intentsitatea eta kostuak ere. Nabarmentzekoa da kasuen % 61,1ean pertsonak berek egin zutela proiektua; % 16,7an, berriz, elkarturen laguntzarekin egin zuten, % 16,7an beste laguntza batzuen bidez, eta % 5,6an oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez.

#### 15. grafikoa. Bizitza Independentearen proiektua egiteko modua



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bizitza Independenteterako Programan (IX. eranskineko 24. taula) parte hartzen daramaten denborari dagokionez, aipatzekoa da pertsona guztiek gutxienez lau urte daramatzatela programan, eta % 88,9k, 5 urte baino gehiago.


### 3.3. LAGUNTZAILE PERTSONALAREN KUDEAKETA

Atal honetan, laguntza pertsonaleko eginkizunak betetzen dituzten pertsonen profilarekin eta zerbitzu horiek kontratatzen dituzten desgaitasuna duten pertsonekin duten kontratu-harremanarekin lotutako alderdiak jasotzen dira, baita harreman horien esparruan eta horiek ebaztean izandako gorabeherak ere.

Bizitza Independenteterako Programaren esparruan laguntzaile pertsonal bat lehen aldiz kontratatzeko moduari dagokionez (IX. eranskineko 25. taula), % 55,6k beren kabuz kontratatu zuten, inolako laguntzarik izan gabe; % 16,7k elkarturen babesa izan zuten, % 5,6k oinarritzko gizarte-zerbitzuena, eta % 22,2k beste laguntza batzuk. Beraz, pertsona bakar batek ere ez zuten izan laguntzaile pertsonal bat kontratatzeko prozesua errazteko eraturako baliabide formalik.

Egungo laguntza pertsonalari dagokionez (IX. eranskineko 26. taula), 14 pertsonak pertsona fisiko baten laguntza dute; pertsona horren kontratazioa besteren kontura egin da kasu guztietan (IX. eranskineko 27. taula), eta ez da inolako kontrataziorik egin pertsona autonomo batekin. Gainerako 4 pertsonek enpresa baten bidez jasotzen dute laguntza pertsonala, eta adierazi behar da guztiak sortzetiko desgaitasuna duten pertsonak direla.

16. grafikoa. Egungo laguntza pertsonalaren mota



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Programan parte hartzen dutenek dituzten laguntzaile pertsonalen kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da % 55,5ek zenbait laguntzaile dituztela beren laguntza-premiak asetzeko, eta % 44,4k eginkizun horiek betetzen dituen pertsona bakarra dutela. Alde handienak sortzetiko desgaitasuna dutenen (% 70,0k lagun-

tzaile bat baino gehiago du) eta gerora sortutako desgaitasuna dutenen artean (% 62,5ek laguntzaile pertsonal bakarra du) daude.


17. taula. Laguntzaile pertsonalen kopurua

| LAGUNTZAI-<br>LE PER-<br>TSONALEN<br>KOPURUA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                              | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                              | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| 1                                            | 4          | 40,0  | 4                | 50,0  | 3                | 30,0  | 5                    | 62,5  | 8       | 44,4  |
| 2                                            | 4          | 40,0  | 2                | 25,0  | 3                | 30,0  | 3                    | 37,5  | 6       | 33,3  |
| 3                                            | 2          | 20,0  | 2                | 25,0  | 4                | 40,0  | 0                    | 0,0   | 4       | 22,2  |
| 3 baino<br>gehiago                           | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira                                      | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Laguntzaile pertsonalaren profilari dagokionez, nabarmentzekoak dira datu hauek: lanbide hori betetzen duten emakumeak gizonak baino gehiago dira (IX. eranskineko 29. taula), jatorri nazionalako laguntzaileen eta migratzaileen arteko oreka dago (IX. eranskineko 30. taula), eta gehienek titulazio soziosanitarioa dute (IX. eranskineko 31. taula).


18. grafikoa. Laguntzaile pertsonalaren generoa



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.




19. grafikoa. Laguntzaile pertsonalaren jatorria



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

20. grafikoa. Laguntzaile pertsonalaren titulazioa



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Laguntza pertsonaleko zerbitzuaren intentsitateari buruzko datuek, eguneko orduetan zehaztuta, erakusten dute pertsonen % 44,5ek 8 laguntza-ordu baino gehiago behar dituela, eta, era berean, azpimarragarria da emakumeek laguntza-ordu gehiago jasotzen dituztela (emakumeen % 62,5ek egunean 8 ordu baino gehiago jasotzen ditu laguntza pertsonalean, eta gizonezkoengan, % 30,0ek). Duen garrantzi kualitatiboagatik, nabarmentzekoa da programan parte hartzen

duten pertsonen % 16,7k 24 orduko laguntza behar duela, eta laguntza hori ez dela etengabeko zuzeneko arretarekin lotzen, baizik eta gaueko aldian ere laguntza pertsonaleko zerbitzua izateko beharragatik (jarrera-alaketak, arnasmailak, etab.). Ondorioz, agerian geratzen da eskatutako laguntza asko izatea ez dela bateraezina bizitza independenteko proiektu bat garatzearekin, horretarako baliabide egokiak izanez gero.


## 21. taula. Laguntza pertsonaleko orduak eguneko

| LAGUNTZA<br>PERTSO-<br>NALEKO<br>ORDUAK<br>EGUNEKO | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                    | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                    | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| 2h baino gutxiago                                  | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| 2 eta 4 ordu artean                                | 2          | 20,0  | 1                | 12,5  | 1                | 10,0  | 2                    | 25,0  | 3       | 16,7  |
| 4 eta 6 ordu artean                                | 5          | 50,0  | 1                | 12,5  | 5                | 50,0  | 1                    | 12,5  | 6       | 33,3  |
| 6 eta 8 ordu artean                                | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| 8 ordutik gora                                     | 2          | 20,0  | 3                | 37,5  | 3                | 30,0  | 2                    | 25,0  | 5       | 27,8  |
| 24h                                                | 1          | 10,0  | 2                | 25,0  | 1                | 10,0  | 2                    | 25,0  | 3       | 16,7  |
| Guztira                                            | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Laguntza pertsonaleko zerbitzuaren xede diren jardueri dagokienez (IX. eranskineko 33. taula), eguneroko bizitzako oinarritzko jardueri erantzuteko etxean bertan emandako laguntzak nabarmentzen dira. Hala ere, etxetik kanpoko jardueretan ere laguntza izaten dute % 77,8k, dela etxekoan aldean bigarren mailan dauden jarduerekin (% 55,6) dela maila bereko jarduerekin (% 22,2). Beraz, emaitzek erakusten dute laguntza pertsonaleko zerbitzuaren antolaerak aukera ematen duela, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerekin batera, komunitatean parte hartzeari lotutakoak bermatzeko. Hala eta guztiz ere, pertsonen % 22,2k etxeko ingurunera mugatzen dute laguntza, bizitza independentearen proiektuan horrela zehaztu dutelako, eta horietako % 75,0 emakumeak dira.

22. grafikoa. Laguntza pertsonalaren xede diren jarduerak



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonak eta, oro har, laguntzaile pertsonal baten zerbitzuak kontratatu dituztenak gehien kezkatzen dituen faktoreetako bat da laguntzaile horrek lan-harremana bere borondatez uztea, horrek kalteberatasun- eta ziurgabetasun-egoera bat sortzen baitu eguneroko bizitzako oinarritzko premien estalduran, eta hori funtsezko eremua da.

Gai hori aztertu ondoren, datuek erakusten dute Programan parte hartu duten pertsonen % 88,9k laguntzaile pertsonalaren aldaketa bizitzen dutela uneren batean, nahi izan gabe, baina datu hori ezin da bereizi programan luzaroan egon izanari buruzko datutik. Emandako erantzunen arabera, arrazoiak (IX. eranskineko 35. taula) askotarikoak dira, baina % 31,3k dio laguntzaile pertsonalak beste lan bat lortu zuela. Era berean, garrantzitsua da kasuen % 61,1ean egoera horretan hiru aldiz baino gehiago egon direla, eta emakumeak nagusi dira gizonen aldean, baita sortzetiko desgaitasuna ere, gerora sortu denaren aldean.

23. taula. Zenbat aldiz aldatu da laguntzaile pertsonala nahi gabe

| ZENBAT ALDIZ<br>ALDATU DA<br>LAGUNTZAILE<br>PERTSONALA<br>NAHI GABE | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|---------------------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                                     | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                     | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| 1                                                                   | 2          | 20,0  | 1                | 12,5  | 2                | 20,0  | 1                    | 12,5  | 3       | 16,7  |
| 2                                                                   | 1          | 10,0  | 1                | 12,5  | 1                | 10,0  | 1                    | 12,5  | 2       | 11,1  |
| 3                                                                   | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| 3 baino<br>gehiago                                                  | 5          | 50,0  | 6                | 75,0  | 7                | 70,0  | 4                    | 50,0  | 11      | 61,1  |
| Inoiz ez                                                            | 2          | 20,0  | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 2                    | 25,0  | 2       | 11,1  |
| Guztira                                                             | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bestalde, pertsonen % 68,8k bere laguntzaile pertsonala kaleratu du noizbait, neurri handiagoan emakumeek eta sortzetiko desgaitasuna dutenek, eta arrazoi nagusia (IX. eranskineko 37. taula) zeregina behar bezala ez betetzea izan da (% 72,7) .

24. taula. Noizbait langile pertsonala kaleratu izana

| NOIZBAIT<br>LANGILE<br>PERTSONA-<br>LA KALERA-<br>TU IZANA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|------------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                            | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                            | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai                                                        | 5          | 62,5  | 6                | 75,0  | 8                | 88,9  | 3                    | 42,9  | 11      | 68,8  |
| Ez                                                         | 3          | 37,5  | 2                | 25,0  | 1                | 11,1  | 4                    | 57,1  | 5       | 31,2  |
| Guztira                                                    | 8          | 100,0 | 8                | 100,0 | 9                | 100,0 | 7                    | 100,0 | 16      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Parte-hartzaileen erdiek gatazkaren bat izan dute laguntzaile pertsonalarekin, neurri handiagoan emakumeek eta sortzetiko desgaitasuna dutenek. Arrazoi nagusiak (IX. eranskineko 39. taula) bete beharreko funtzioen edukia eta emandako zerbitzuaren kalitatea dira. Gatazka horiek (IX. eranskineko 40. taula) ia maila berean ebatzi dituzte profesionalekin eta haien baliabideen bidez.

25. taula. Gatazkak langile pertsonalarekin

| GATAZKAK<br>LANGILE<br>PERTSONA-<br>LAREKIN | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|---------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                             | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                             | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai                                         | 4          | 40,0  | 5                | 62,5  | 7                | 70,0  | 2                    | 25,0  | 9       | 50,0  |
| Ez                                          | 6          | 60,0  | 3                | 37,5  | 3                | 30,0  | 6                    | 75,0  | 9       | 50,0  |
| Guztira                                     | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Fuente: Elaboración propia a partir de los datos recogidos en los cuestionarios.

Jorratutako beste gai bat, bizitza independenteko proiektu bat garatzeko duen garrantzia dela-eta, zera izan da: programan parte hartzen duten pertsonak laguntza-baliabide bat izatea laguntza pertsonalarekin lotutako alderdi laboralak eta ekonomikoak kudeatzeko (kontratuak, altak, bajak, baldintzen aldaketa, nominak, etab.). Hala, nabarmentzekoa da 18 pertsonetatik 12k ez dutela baliabide hori, eta gizonek (% 80,0) emakumeek baino (% 50,0) gehiago baliatzen dituztela beren jakintza eta baliabideak, kanpoko baliabide batean oinarritu beharrik gabe.

26. taula. Laguntza pertsonalarekin lotutako lan- eta ekonomia-gaietarako laguntza

| LAGUNTZA PERTSO-<br>NALAREKIN LO-<br>TUTAKO LAN- ETA<br>EKONOMIA-GAIETA-<br>RAKO LAGUNTZA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                                                           | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                                           | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai, aholkularitza                                                                        | 1          | 10,0  | 2                | 25,0  | 1                | 10,0  | 2                    | 25,0  | 3       | 16,7  |
| Bai, elkartu                                                                              | 1          | 10,0  | 1                | 12,5  | 1                | 10,0  | 1                    | 12,5  | 2       | 11,1  |
| Bai, aholkularitza eta<br>elkartu                                                         | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Bai, beste batzuk                                                                         | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 1                | 10,0  | 0                    | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Ez                                                                                        | 8          | 80,0  | 4                | 50,0  | 7                | 70,0  | 5                    | 62,5  | 12      | 66,7  |
| Guztira                                                                                   | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

### 3.4. LAGUNTZAILE PERTSONALAK KONTRATATZEKO PRESTAZIOA

Atal honetan, laguntzaile pertsonalak kontratatzeke jasotzen duten prestazioari buruzko alderdiak jasotzen dira, hala nola hauek: hileko zenbatekoa, premien estaldura emandako zenbatekoarekin, zenbatekoa aldatzea aurre egin behar dieten kostu kontingenteen arabera (gizarte-segurantzaren igotzea, oporretako ordezkapena, lanerako ezintasun iragankorreko batak, etab.), jasotako zenbatekoak justifikatzea, eta mendekotasun-egoeratik eratorritako beste prestazio batzuekin bateragarri egitea.

Bizitza Independenteterako Programaren hileko prestazioaren zenbatekoari dagokionez, emandako erantzunen arabera, pertsonen % 83,3k 2.000 euro baino gutxiago jasotzen du, eta % 16,7k 2.000 euro baino gehiago, baina inork ez du 3.000 euro baino gehiago jasotzen bere laguntza-premiak asetzeko. Puntu honetan, adierazi behar da Programaren prestazioaren zenbatekoa zehazteko, desgaitasuna duen pertsonak kontzeptu beretik eratorritako beste diru-sarrera batzuk baditu, deskontatu egiten direla (hirugarren pertsonaren premiaren osagarria kotizazio gabeko pentsioaren kasuan, baliaezintasun handiko ezintasun iraunkorreko pentsioa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, etab.).


Emakumeen artean, 2.000 euro baino gehiago jasotzen duen ehunekoa % 25,0 da, eta gizonen artean, berriz, % 10,0. Bestalde, 1.000 eurotik beherako prestazioa jasotzen duten pertsonen artean, % 77,8k gerora sortutako desgaitasuna du.

27. taula. Programaren hileko zenbatekoa

| PROGRAMA-<br>REN HILEKO<br>ZENBATE-<br>KOA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                            | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                            | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| 500 €-raino                                | 1          | 10,0  | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 2                    | 25,0  | 2       | 11,1  |
| 500€-1.000€                                | 4          | 40,0  | 3                | 37,5  | 2                | 20,0  | 5                    | 62,5  | 7       | 38,9  |
| 1.000€-2.000€                              | 4          | 40,0  | 2                | 25,0  | 6                | 60,0  | 0                    | 0,0   | 6       | 33,3  |
| 2.000€-3.000€                              | 1          | 10,0  | 2                | 25,0  | 2                | 20,0  | 1                    | 12,5  | 3       | 16,7  |
| 3.000 € baino<br>gehiago                   | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira                                    | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.


27. grafikoa. Programaren hileko zenbatekoa



Iturria: Guk geuk egina, galdetegiaren bidez bildutako datuak oinarri hartuta.

Parte-hartzaileen % 88,9ri ez dio erabat estaltzen laguntza pertsonaleko zerbitzuaren kostua (IX. eranskineko 43. taula) Bizitza Independenteterako Programak, eta baietz erantzun duten bi pertsonen sortzetiko desgaitasuna dute. Ildo beretik, pertsonen % 88,9k uste du programak ez duela bermatzen laguntza pertsonaleko zerbitzuaren kostuan gerta daitezkeen aldaketen estaldura (lan-baldintzen hobekuntza, KPlaren igoera, etab.) (IX. eranskineko 44. taula); aldiz, ehuneko hori bera da laguntzaile pertsonalak bere zerbitzuak betetzean jasan ditzakeen kontingentzien aurrean (bajak, oporrak, ordezkapenak, etab.) estaldura ekonomikoki eskaintzen ez dela dioten ehuneko (IX. eranskineko 45. taula).

28. grafikoa. Laguntza pertsonalaren kostu osoaren, aldaketen eta kontingentzien estaldura



Iturria: Guk geuk egina, galdetegiaren bidez bildutako datuak oinarri hartuta.

Azkenik, lau pertsonak uste dute zaila dela aurkeztu beharreko prestazioaren urteko justifikazioa, eta hamalauk ez dute halakotzat jotzen.

29. taula. Urteko justifikazioa konplexutzat hartzea

| URTEKO<br>JUSTIFIKA-<br>ZIOA KON-<br>PLEXUTZAT<br>HARTZEA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-----------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                           | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                           | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai                                                       | 2          | 20,0  | 2                | 25,0  | 4                | 40,0  | 0                    | 0,0   | 4       | 22,2  |
| Ez                                                        | 8          | 80,0  | 6                | 75,0  | 6                | 60,0  | 8                    | 100,0 | 14      | 77,8  |
| Guztira                                                   | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

### 3.5. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA-SAREA

Atal honetan, laguntza-sarearekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa jasotzen da, beharrezkoa desgaitasunen bat duten pertsonen Bizitza Independentearen Programan sartzeko eta bertan mantentzeko kudeaketak egin ahal izateko, hala nola: proiektua egiteko aholkularitza, laguntzaile pertsonalak kontratatzea, kontratu-harremanean gertatzen diren gorabeherak ebaztea, eta lan- eta zerga-alderdiekin zerikusia duten alderdietako orientazioa.

Aholkularitza-sare orokorrari dagokionez, hala nola Bizitza Independentearen Proiektua egiteko eta horren ondorengo aldaketak egiteko, bai eta Programan parte hartzeari lotutako beste gai batzuetarako ere, nabarmentzekoa da pertsonen % 38,9k ez duela laguntza-sarerik, eta baliabide horiek neurri handiagoan ematen direla emakumeen artean (% 87,5) gizonen artean baino (% 40,0), eta gerora sortutako desgaitasuna dutenen artean (% 75,0) sortzetiko desgaitasuna dutenen artean (% 50,0) baino.

Hala ere, adierazi beharra dago aholkularitza-sarea, funtsean, baliabide informalek osatzen dutela (elkartu, beste batzuk, etab.), eta ez desgaitasun fisikoa duten pertsonen laguntzeko zerbitzu hori eskaintzen duen baliabide formal publikoren batek.



30. taula. Aholkularitza-sarea

| AHOLKULA-<br>RITZA-SAREA                                          | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-------------------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                                   | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                   | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai, Gizarte-zer-<br>bitzuak                                      | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Bai, Gipuzkoako<br>Foru Aldundia                                  | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Bai, Gizarte-zer-<br>bitzuak eta Gi-<br>puzkoako Foru<br>Aldundia | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Bai, elkartu                                                      | 1          | 10,0  | 2                | 25,0  | 1                | 10,0  | 2                    | 25,0  | 3       | 16,7  |
| Bai, Gipuzkoako<br>Foru Aldundia<br>eta elkartu                   | 1          | 10,0  | 0                | 0,0   | 1                | 10,0  | 0                    | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Bai, beste<br>batzuk                                              | 2          | 20,0  | 3                | 37,5  | 3                | 30,0  | 2                    | 25,0  | 5       | 27,8  |
| Bai, Gizarte-zer-<br>bitzuak eta<br>beste batzuk                  | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Ez                                                                | 6          | 60,0  | 1                | 12,5  | 5                | 50,0  | 2                    | 25,0  | 7       | 38,9  |
| Guztira                                                           | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bizitza independenteko proiektu baten garapenaren beste alderdi garrantzitsu bat laguntzaile pertsonala kontratatzekeo prozesua da, eta hura bilatzea da lehenengo urratsa. Hala, Programan parte hartzen duten pertsonen galdetu zaie profesional hori hautatzeko laguntza formala duten ala ez, eta % 50,0k ezetz erantzun dute. Nabarmenezkoa da gehiago direla laguntza-zerbitzua izan duten emakumeak (% 62,5), eta gutxiago, aldiz, gizonak (% 40,0).

Aurreko atalean bezala, kontratazio-prozesu honetarako laguntza jaso duten kasuak informalak izan dira, eta ez dago funtzio hori betetzeko berariazko baliabide formalik.

31. taula. Laguntzaile pertsonala bilatzeko laguntza

| LAGUNTZAIL-<br>LE PER-<br>TSONALA<br>BILATZEKO<br>LAGUNTZA<br>FORMALA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-----------------------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                                       | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                       | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai, Lanbide                                                          | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Bai, Lanbide<br>Heziketako<br>zentroak                                | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Bai, elkartu                                                          | 1          | 10,0  | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Bai, beste<br>batzuk                                                  | 3          | 30,0  | 5                | 62,5  | 5                | 50,0  | 3                    | 37,5  | 8       | 44,4  |
| Ez                                                                    | 6          | 60,0  | 3                | 37,5  | 5                | 50,0  | 4                    | 50,0  | 9       | 50,0  |
| Guztira                                                               | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Gehiengoa dira, halaber, laguntzaile pertsonalarekin sor daitezkeen gatazkak konpontzeko laguntza-baliabide formalik ez dutela dioten pertsonak, eta sortzetiko desgaitasuna dute horrelako baliabide bat dutela adierazi duten bi pertsonek.

32. taula. Gatazkak konpontzeko laguntza formala

| GATAZKAK<br>KONPON-<br>TZEKO<br>LAGUNTZA<br>FORMALA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-----------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                     | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                     | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai                                                 | 1          | 10,0  | 1                | 12,5  | 2                | 20,0  | 0                    | 0,0   | 2       | 11,1  |
| Ez                                                  | 8          | 80,0  | 5                | 62,5  | 8                | 80,0  | 5                    | 62,5  | 13      | 72,2  |
| ED/EE                                               | 1          | 10,0  | 2                | 25,0  | 0                | 0,0   | 3                    | 37,5  | 3       | 16,7  |
| Guztira                                             | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Aurreko gaietan ez bezala, gehienek laguntzaile pertsonala kontratatzearekin lotutako lan- eta zerga-alderdiak kudeatzeko laguntza-baliabideren bat dute, eta nabarmentzekoa da baliabide hori duten pertsonen % 60,0 emakumeak izatea. Era berean, aipagarria da laguntza mota hori dutenen % 60,0k kanpoko aholkularitza profesional baten zerbitzuen bidez egiten duela, hau da, pertsonen berek kontratatutako baliabide partikular baten bidez, dakarren kostu ekonomikoarekin.

33. taula. Lan- eta zerga-gaietarako laguntza formala

| LAN- ETA<br>ZERGA-<br>-GAIE-<br>TARAKO<br>LAGUNTZA<br>FORMALA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|---------------------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                               | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                               | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai, kanpoko aholkularia                                      | 2          | 20,0  | 4                | 50,0  | 3                | 30,0  | 3                    | 37,5  | 6       | 33,3  |
| Bai, elkartu                                                  | 1          | 10,0  | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Bai, beste batzuk                                             | 1          | 10,0  | 2                | 25,0  | 3                | 30,0  | 0                    | 0,0   | 3       | 16,7  |
| Ez                                                            | 6          | 60,0  | 2                | 25,0  | 4                | 40,0  | 4                    | 50,0  | 8       | 44,4  |
| Guztira                                                       | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegiaren bildutako datuak oinarri hartuta.

Aztertu dugun laguntza-sareari lotutako azken alderdia da programan parte hartzen duten pertsonen beste autonomia-erkidego batzuetako pertsonen duten harremana, desgaitasun fisikoaren duten pertsonen bizitza independenterako eskubidea sustatzeko helburua duten antzeko programetan parte hartzen dutenekin. Emandako erantzunetatik ondorioztatzen da 7 pertsonak, guztiak sortzetiko desgaitasuna dutenak, horrelako programen betekizunak eta bilakaera ezagutzeko eta partekatzeak aukera ematen dien harreman hori dutela, harreman horiek ez dituzten 11 pertsonen aurrean.


34. taula. Beste autonomia-erkidego batzuetan antzeko programetan parte hartzen duten pertsonetikiko harremana

| BESTE AUTO-<br>NOMIA-ERKI-<br>DEGO BATZUE-<br>TAN ANTZEKO<br>PROGRAMETAN<br>PARTE HAR-<br>TZEN DUTEN<br>PERTSONE-<br>KIKO HARREMANA | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                                                                                                                     | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                                                                                     | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Bai                                                                                                                                 | 4          | 40,0  | 3            | 37,5  | 7                | 70,0  | 0                 | 0,0   | 7       | 38,9  |
| Ez                                                                                                                                  | 6          | 60,0  | 5            | 62,5  | 3                | 30,0  | 8                 | 100,0 | 11      | 61,1  |
| Guztira                                                                                                                             | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Laburpen gisa, jarraian, Programan parte hartzen duten eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera erakusten da, Bizitza Independentearen Proiektua diseinatzeko eta gauzatzeko laguntza-sarearen prestasunari dagokionez. Ikus daitekeenez, laguntza-sare handiena duten gaiak aholkularitza orokorrerako eta lan- eta zerga-gaietarako dira. Laguntzaile pertsonala bilatzeari dagokionez, laguntza-sarea duten eta ez duten pertsonen kopurua berdina da. Laguntzarik gabeko parte-hartzaile gehienak laguntzaile pertsonalekin gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko alderdian daude, eta, jarraian, beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko programetako pertsonekin harremanik ez dutenak datoz.

35. grafikoa. Babes-sarea



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

### 3.6. ONDORIO GISA

Ikerketatik ateratako datuek adierazten dute Programa erabiltzen duten 27 pertsonetatik 18 parte-hartzaile 31 eta 64 urte bitarteko gizonak (% 55,6) eta emakumeak (% 44,4) direla. Horrek agerian uzten du oraindik ahalegin gehiago egin daitezkeela desgaitasuna duten emakumeek bizitza independentea izan dezaten, eta, batez ere, gazteenek emantzipatzeko aukera izan dezaten. 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi da % 94,0 eta horrek zalantzan jartzen du udalerri txikiagoetako pertsonentzako programaren irisgarritasuna.

Taldea nahiko antzekoa da desgaitasun motari dagokionez; sortzetiko desgaitasuna dutenen ehunekoa handiagoa da (% 55,6), eta geroago sortutako desgaitasuna, berriz, % 44,4. % 75-100eko desgaitasun-maila aitortua dute pertsonen % 94,4k, eta % 72,2k gurpil-aulkia erabiltzen dute. Aitortutako mendekotasun-mailari dagokionez, handia da: III. maila % 44,4k eta II. maila % 44,4k. Emakume gehiagok (% 63,5) dute mendekotasun handia (III. maila) gizonek baino (% 30). Sortzetiko desgaitasuna duten pertsonen mendekotasun-maila handiagoa dute gerora sortutako desgaitasuna dutenek baino.

Nahiko antzekoa da, halaber, ezkontuta dauden edo bikotekidea duten pertsonen (% 44,4) eta ezkongabeen kopurua (% 56,6), azken hau pixka bat handiagoa. Ezkontide edo bikotekidearekin bizi diren pertsona guztiek sortzetiko desgaitasuna dutela, eta bakarrik bizi diren pertsonen artean, % 66,7 emakumeak direla. Inork ez du eguneko zentrorik erabiltzen. % 77,0 jabetzako etxebizitza batean bizi da. Gainerakoak alokairuan bizi dira, eta bat tutoretzapeko apartamentuan. Pertsonen % 55,6k bizitza independentearen eredura sartzea lortu ahal izan zuten, babes publikoko etxebizitzaren esleipendun izan ondoren. Haien diru-sarrerak Bizitza Independenteterako Programatik soilik datoz kasuen % 44,4an, eta Laguntzaile Pertsonalentzako Prestazio Ekonomikoarekin (LPEP) eta/edo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin (ELZ) batera % 56,6an.

Programako pertsona guztiek amaitu dute ikasketa-mailaren bat. Lortutako prestakuntza-maila % 38,9, % 27,9 eta % 33,3 da, hurrenez hurren, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta goi-mailako ikasketetan. Nabarmenezkoa da desgaitasunen bat duten pertsonen kopurua handia dela soilik lehen hezkuntza amaitu dutenen artean (% 71,4), eta handiagoa dela soilik lehen hezkuntza egin duten emakumeen ehunekoa (% 57,1).

Guztiak dira pentsiodunak, eta haien pentsioak norberaren edo guraso baten lan-ekarpenetik datoz (umezurtz-pentsioa). Bat ere ez da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuraduna, eta horrek agerian uzten du diru-sarrera baxuagoak dituztenek zaila dutela Bizitza Independenteterako Programa eskuratzea. Horien diru-sarrerak, kasuen % 61,1ean 1.500 eurotik gorakoak dira, % 27,8tan, 1.000 eta 1.500 euro bitartekoak, eta % 11,2an 1.000 eurotik beherakoak. Errentarik handienak, 2.000 eurotik gora, gizonen jasotzen dituzte kasuen % 80an, eta sortzetiko desgaitasuna duten pertsonen ere bai kasuen % 80an.

Bizitza Independenteterako Programarako sarbidea elkartuk emandako informazioaren bidez izan zen kasuen % 44,5ean. Eskaera ez zen konplexua izan pertsonen % 56rentzat, baina bai % 44,4rentzat, eta horrek laguntza handiagoa eskatzen du behar duten pertsonentzat. % 61,1ek laguntzarik gabe egin zuten Bizitza Independentearen Proiektua, eta gainerakoek, berriz, elkarturen, beste laguntza batzuen eta gizarte-zerbitzuen laguntzarekin.

Asistentzia pertsonalaren estaldurari dagokionez, kasuen % 78,0an pertsona fisikoa da, eta % 22,0an, enpresa. % 55,5ek hainbat laguntzaile pertsonal ditu, batez ere sortzetiko desgaitasuna dutenak, eta % 44,4k pertsona bakarra du, gehiago gerora sortutako desgaitasuna dutenak. Laguntzaile pertsonalaren ordainketa finantzatzeko prestazioaren estaldura hilean 2.000 euro baino gutxiagokoa da kasuen % 83,3an. 1.000 eurotik beherako prestazioa jasotzen dutenen artean, % 77,8k gerora sortutako desgaitasuna du. Parte-hartzaileen % 88,9k ezin du erabat ordaindu laguntza pertsonaleko zerbitzuaren kostua Bizitza Independenteterako Programaren bidez.

Laguntzaile pertsonalaren kontratazioa bere bitartekoen bidez egin da kasuen % 55,6k, eta gainerakoa elkarturen, gizarte-zerbitzuez eta beste batzuen laguntzarekin. Laguntzen xedea da etxean bertan eta eguneroko bizitzako oinarriko jardueretan beharrezkoak diren jarduerak eta etxetik kanpokoak (% 77,8). Horrela, pertsonen parte-hartzea eta gizarteratzea bultzatzen da. % 77,8k 4 ordu baino gehiagoko laguntza pertsonala behar du egunean. Horien artean, % 44,5ek 8 ordu baino gehiagoz edo 24 orduz behar du laguntza. Laguntzaile pertsonal gehienak emakumeak dira, nahiz eta batzuk gizonezkoak izan, neurri berean jatorri nazionalakoak zein atzerriarrak, eta titulazio soziosanitarioa dute gehienetan, gizarteratzea besteetan. Pertsonen % 68,8k laguntzailez aldatu du inoiz, eta horren arrazoa zereginak behar bezala ez betetzea izan da. % 50,0ek gatazkak izan ditu laguntzailearekin arrazoi horregatik, eta laguntza eskasa izan dute mota horretako gatazkak konpontzeko sarearen aldetik; izan ere, arazo hori garrantzitsua da bere ongizate psikosozialerako.

Programako parte-hartzaileek duten laguntza-sarearen barruan, kanpoko aholkularitza profesionala nabarmentzen da kasuen % 33,3an, eta ordainpeko zerbitzua da, lan- eta zerga-kontuetarako. % 22,3k, berriz, elkarturen eta beste zerbitzu batzuen laguntza jasotzen du, eta % 44,4k ez du laguntza formalik gai horietarako.

Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonen % 38,9k soilik du harremana beste autonomia-erkidego batzuetan antzeko programetan parte hartzen duten pertsonekin.

## — 4. Programak gizartearen ikuspegitik duen eraginaren azterketa

### 4.1. INKLUSIO ETA PARTAIDETZA SOZIALARI BURUZKO IKUSPEGIA

Bizitza independenterako eskubideak dimentsio bikoitza du: alde batetik, norbana-koarena (modu independentean bizitzeko eskubidea), norberaren emantzipaziorako eskubide gisa ulertua, sarbideak eta aukerak ukatu gabe; bestetik, soziala (komunitatean sartzeko eskubidea), ingurune inklusiboak sortzeko eskubide gisa ulertua.

Hori dela eta, funtsezkoa da Bizitza Independenterako Programan parte hartzen duten pertsonen lortu duten gizarteratze-maila aztertzea, ikuspegi multidimentsional batetik ulertuta. Horrela, bizitza independentearen ereduaren helburu nagusia betetzen ote den ebaluatuko da, hau da, desgaitasuna duten pertsonen komunitatean duten erabateko inklusioa eta parte-hartzea.

Horretarako, ebaluazio-proiektuak, gizarte-eremu honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan legez aintzatetsitako tresna objektibo bat baliatu du, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna, parte-hartzaileen gizarteratze-/bazterketa-egoera zehazteko, bai eta aztertu beharreko dimentsio bakoitzaren eragin-maila zehazteko ere.

### 4.2. GIZARTE BAZTERKERIA BALIOESTEKO TRESNA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gizarte-diagnostikorako eta bazterkeria baloratzeko tresna komunak ditu, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 20. Artikulua aplikatuz, gizarte-zerbitzuen esku-hartze irizpideen homogeneotasuna bermatzeko. Tresna horiek honako arau hauen bidez zehaztu dira: 353/2013 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa, eta 385/2013 Dekretua, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.

Horrekin, Gizarte Diagnostikoaren Eredua egin da, eta, eredu horretan integratuta, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna Teknikoa. Eredu horrek diagnostiko sozial sakona egitea ahalbidetzen du, eta, horretarako, zenbait adierazle erabiltzen ditu, bizi-eremuen arabera banatuta. Adierazle horiek gizarte-zerbitzuen sisteman artatu beharreko edozein kasuistika mota jasotzen dute, oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik hasi eta bigarren mailako arretako zerbitzuen zeregin espezializaturaino.

Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnak kontuan hartzen ditu, bazterketaren dimentsio anitzeko eta kausa anitzeko ikuspegi batetik, 171 adierazle, dimen-

tsioen arabera ordenatuta (II. eranskina) eta, era berean, bost bizi-eremutan antolatuta (ekonomikoa, bizikidetzakoa, pertsonala, osasuna eta soziala). Haren aplikaziotik honako diagnostiko-kategoria hauek ondorioztatzen dira:

- **Gizarteratze-egoera:** zerikusia du dauden gizarte-babeseko sistemetara iristeko gaitasuna edukitzearekin, eta herritar gisa dagozkien eskubide eta bete-beharretarako irismena izateko pertsonen behar besteko informazioa lortzeko duten erraztasunarekin, eta harremanak izateko gaitasun pertsonal eta sozialekin, gizartearen parte-hartzearekin. Pertsonak gizarte-ondasunak ekoizteko eta kontsumitzeko aktibatzeaz gain, gizartean aktiboki parte hartzea, herritar kontzientzia hartzea, aukeratzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena edukitzea, komunitateko kide gisa inplikatzeko eta abar dakar.
- **Gizarte-bazterkeriako arriskuko egoera:** pertsona batek dauzkan edo falta dituen ezaugarri edo faktore pertsonal edo sozial multzo batekin zerikusia du. Ezaugarri edo faktore horiek gizarte-bazterkeria egoerak edo prozesuak eragiten dituzten ondorio kaltegarriak agertzeko aukerak handitzen dituzte.
- **Gizarte-bazterkeria egoera:** Pertsona bat gizartetik baztertuta dagoela esaten da pertsona horrek defizit eta gabezia asko baditu bere bizi-baldintzetan eta bizikidetzan, gabezia horiek iraunkorrak badira, eta, guztiek batera, gizarte-bazterkeriaren egoera sortzen badute, zuzeneko lotura duena baliabide pertsonalekin, harremanetarako baliabideekin eta baliabide materialekin. Gizarte-bazterkeriaren intentsitatea arina, moderatua eta larria izan daiteke. Era berean, gizarte-bazterkeria zenbait motatakoa izan daiteke: harreman-arlokoa, juridiko-administratiboa, etxebizitza-arlokoa, ekonomia- eta lan-arlokoa.

### 4.3. EMAITZAK

Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna Tekniko Komuna, aplikatzeko irizpideei jarraituz, irizpideak betetzen direla egiaztatzeko, 1. irizpideari jarraitu behar zaio: Gabezia pertsonalak eta harreman-gabeziak: lehen eta bigarren mailako sareetatik datorren gizarte-babesik eza eta baliabide pertsonalen gabeziak; izan ere, irizpide horretan kokatzen da zehaztapena edo «eten-puntua», gizarte-bazterkeriako egoeren eta halakoak ez diren egoeren artean.

Horretarako, 1. irizpidea osatzen duten adierazleen guztizkoa kontabilizatu behar da:

- (0) balioa duten adierazleen guztizko kopurua, gizarteratze-eremuan.
- (1) balioa duten adierazleen guztizko kopurua, bazterkeria-eremuan, defizit eta prekaritatearekin.
- (2) balioa duten adierazleen guztizko kopurua, gizarteratze-eremuan, gabeztearekin.

Hala, horrelako egoerak jazo daitezke:

- a) (0) balioa duten 8 adierazle baino gehiago, gizarteratze-eremuan, honako hauetan egon daitezke:
  - gizarteratze-egoeran
  - edo gizarte-bazterkeriako arriskuko egoeran



b) (0) balioa duten 8 adierazle edo gutxiago, gizarteratze-eremuan, honako hauetan egon daitezke:

- gizar-te-bazterkeriako arriskuan
- gizar-te-bazterkeriako egoeran

Behin tresna parte-hartzaileei aplikatuta, emaitzek adierazten dute pertsona batek soilik aurkezten dituela (0) balioko 8 adierazle edo gutxiago gizarteratze-eremuan, eta 17k (% 94,4), berriz, (0) balioko 8 adierazle baino gehiago gizarteratze-eremuan.


Kontuan hartuta gizarteratze- eta bazterketa-egoeren/-arriskuaren arteko «eten-puntua» (0) balioko 8 adierazletan kokatzen dela, garrantzitsua da aztertzea zenbaterainoko hurbiltasuna duen adierazle kopuruak puntu horrekiko, 1. irizpidearen arabera, (0) balioko 8 adierazle baino gehiago dituzten pertsonen artean:

36. taula. Eten-puntuarekiko hurbiltasun-maila

| ETEN-PUN-<br>TUAREKIKO<br>HURBILTA-<br>SUN-MAILA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                  | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                  | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| 9-11 artean                                      | 3          | 30,0  | 2                | 28,6  | 2                | 22,2  | 3                    | 37,5  | 5       | 29,4  |
| 12-14 artean                                     | 2          | 20,0  | 2                | 28,6  | 2                | 22,2  | 2                    | 25,0  | 4       | 23,5  |
| 14 baino<br>gehiago                              | 5          | 50,0  | 3                | 42,8  | 5                | 55,6  | 3                    | 37,5  | 8       | 47,1  |
| Guztira                                          | 10         | 100,0 | 7                | 100,0 | 9                | 100,0 | 8                    | 100,0 | 17      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

37. grafikoa. (0) balioa duten adierazleen guztizko kopurua gizarteratze-eremuan, 1. irizpidean



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Taulan eta grafikoan ikus daitekeenez, desgaitasun fisikoa duten pertsonen ehunekoa (% 47,1) askoz ere handiagoa da gizarte-bazterkeriako egoerak zehazten dituen «eten-puntutik» urrunen daudenen artean. Halaber, aipatu behar da 0 balioa duten 8 adierazletik beherako emaitza duen pertsona bakarra gizarteratze-egoeretatik oso hurbil dagoela.

Aipatzekoa da, halaber, eten-puntutik urrunen dauden egoeretan (0 balioa duten 14 adierazle baino gehiago) sortzetiko desgaitasuna duten pertsonak nagusi direla (% 55,6), sortutako desgaitasuna duten pertsonen aldean (% 37,5).

1. irizpidea aplikatu ondoren sortutako egoerak berresteko, 2. Irizpidearen balorazioarekin jarraituko dugu. Irizpide hori betetzen da pertsonak gabeziak baditu (hau da, bizi-eremu bakoitzerako ezarritako gutxieneko ehunekora iristen bada) aintzat hartzen dituen lau bizi-eremuetatik bitan gutxienez, eta, horretarako, 1 edo 2 gisa barematutako defizit- edo gabezia-balioak dituzten eraginpeko adierazleen ehunekoa zenbatuko da.

Tabla 38. **Ámbitos vitales y porcentajes mínimos de afectación del criterio 2**

|                |                                                           |      |
|----------------|-----------------------------------------------------------|------|
| 1. BIZI-EREMUA | Etxebizitza-bizitokiaren egoera                           | 100% |
| 2. BIZI-EREMUA | Egoera ekonomikoa                                         | 60%  |
|                | Lanbide- eta lan-egoera                                   |      |
|                | Bizileku-egoera                                           |      |
| 3. BIZI-EREMUA | Heziketa - Prestakuntza - Informazioa - Gaikuntza         | 40%  |
|                | Enplegurako baliabide pertsonalen egoera                  |      |
| 4. BIZI-EREMUA | Osasun-egoera                                             | 50%  |
|                | Lanerako ezintasun-, desgaitasun- eta mendekotasun-egoera |      |

Iturria: Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna Tekniko Komuna

2. irizpidea aplikatu ondoren, ikusten da pertsona bakar batek, berriro ere gerora sortutako desgaitasuna duenak, dituela gabeziak gutxienez bi bizi-eremutan, jarraian erakusten den bezala.

39. taula. 2. irizpideko bizi-eremuetako bitan gutxienez gabeziak dituzten pertsonak

| 2. IRIZPIDE-KO BIZI-EREMUE-TAKO BITAN GUTXIENEZ GABEZIAK DITUZTEN PERTSONAK | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|-----------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                                                             | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                             | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Gabeziak gutxienez bizi-eremue-tako bitan                                   | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                 | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Gabeziarik ez gutxienez bizi-eremue-tako bitan                              | 9          | 90,0  | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 7                 | 87,5  | 17      | 94,4  |
| Guztira                                                                     | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

2. irizpidea betetzeaz haratago, egokia da aztertzea zer neurritan dauden gabeziak bizi-eremu desberdinetan Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean, bai eta neurri handiagoan kaltetuak dauden bizi-eremuak ere.

Horrela, taula hauetan 2. irizpidea bizi-eremu bakoitzean aplikatzearen ondoriozko datuak adierazten dira:

40. taula. 1. bizi-eremu kaltetua. Etxebizitza-bizitokiaren egoera

| 1. BIZI-<br>-EREMU<br>KALTETUA.<br>Etxebizitza-<br>-bizitokiaren<br>egoera | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                                            | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                            | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Bai                                                                        | 2          | 20,0  | 1            | 12,5  | 2                | 20,0  | 1                    | 12,5  | 3       | 16,7  |
| Ez                                                                         | 8          | 80,0  | 7            | 87,5  | 8                | 80,0  | 7                    | 87,5  | 15      | 83,3  |
| Guztira                                                                    | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Adierazi behar da etxebizitza-bizitokiaren egoera kaltetuta dagoen kasuetan hiru pertsona bizi direla desgaitasuna duten pertsonentzako apartamentuetan edo erakunde-izaerako esparru fisiko batean kokatutako etxebizitzetan.

41. taula. 2. bizi-eremu kaltetua. Egoera ekonomikoa / Lanbide- eta lan-egoera / Bizileku-egoera

| 2. BIZI-EREMU KALTE-TUA. Egoera ekonomikoa / Lanbide- eta lan-egoera / Bizileku-egoera | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                                                                        | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                                        | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Bai                                                                                    | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                 | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Ez                                                                                     | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |
| Guztira                                                                                | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bizitza Independenteterako Programako parte-hartzaileek bermatuta dute diru-sarrera jakin bat, ia guztiek kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituztelako. Dena den, ezin dugu ahaztu Bizitza Independenteterako Programako parte-hartzaileek kostu handiei egin behar izaten dietela aurre (laguntzarako produktuak, laguntza pertsonalak, etab.); kostu horiek desgaitasun-egoerak dakarren gaikostuaren ondorio dira.

42. taula. 3. bizi-eremu kaltetua. Heziketa - Prestakuntza - Informazioa - Gaikuntza / Enplegurako baliabide pertsonalak

| 3. BIZI-EREMU KALTE-TUA    Heziketa - Pres-takuntza - Informazioa - Gaikuntza / Enplegurako baliabide pertsonalak | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                                                                                                   | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                                                                   | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Bai                                                                                                               | 1          | 10,0  | 1            | 12,5  | 0                | 0,0   | 2                 | 25,0  | 2       | 11,1  |
| Ez                                                                                                                | 9          | 90,0  | 7            | 87,5  | 10               | 100,0 | 6                 | 75,0  | 16      | 88,9  |
| Guztira                                                                                                           | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Ikus daitekeenez, bi dira eremu honetako kaltetuak; biek gerora sortutako desgaitasuna dute, eta arrazoiak prestakuntza- eta informatika-maila eskasa eta Internet gutxi erabiltzea dira. Era berean, bi kasuetan ez zaie behar adinako informaziorik ematen beren eskubideei eta gizarte-babeseko sistemei buruz.


43. taula. . 4. bizi-eremu kaltetua. Osasun-egoera / Lanerako ezintasun-, desgaitasun- eta mendekotasun-egoera

| 4. BIZI-EREMU KALTE-TUA. Osasun-egoera / Lanerako ezintasun-, desgaitasun- eta mendekotasun-egoera | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                                                                                    | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                                                    | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Bai                                                                                                | 5          | 50,0  | 6            | 75,0  | 7                | 70,0  | 4                 | 50,0  | 11      | 61,1  |
| Ez                                                                                                 | 5          | 50,0  | 2            | 25,0  | 3                | 30,0  | 4                 | 50,0  | 7       | 38,9  |
| Guztira                                                                                            | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Programako parte-hartzaileen % 61,1ek kaltetua du bizi-eremu hau, eta arrazoi nagusia da desgaitasuna duten eta haien guztien mendekotasun-egoeran dauden pertsonak direla, eta horrek eragina du Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnari jarraikiz. Nabarmentzekoa da eremu horretan kaltetutako sortzetiko desgaitasuna duten pertsonen ehunekoa handiagoa dela (% 70,0) gerora sortutako desgaitasuna duten pertsonena baino (% 50,0), baita emakumeen ehunekoa handiagoa ere (% 75,0) gizonen aldean (% 50,0).

44. grafikoa. Bizi-eremuren bat kaltetuta duten pertsonak



Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Adierazitakotik ondorioztatzen da parte-hartzaileen artean eragin handiena izan duen bizi-eremua 4.a dela, hau da, osasunari, lanerako ezintasunari, desgaitasunari eta mendekotasunari lotutakoa. Gehiago dira kaltetutako pertsonak kaltetu gabekoak baino, gainerako bizi-eremuetan ez bezala, horietan argi eta garbi nagusitzen baitira kaltetu gabeko egoerak.

Bestalde, 1. eta 2. irizpideak konbinatuta, honako egoera hauetakoren bat gerta daiteke:

- **Inklusioa:** 1. irizpidearen A aukera, eta 2. irizpidea ez da betetzen
- **Arriskua:** 1. irizpidearen A aukera, eta 2. irizpidea betetzen da / 1. irizpidearen B aukera, eta 2. irizpidea ez da betetzen
- **Bazterketa:** 1. irizpidearen B aukera, eta 2. irizpidea betetzen da

Ondoren, parte-hartzaileen artean 1. eta 2. irizpideak konbinatzearen ondoriozko datuak biltzen dira, eta, horrela, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnan bertan adierazitakoa aplikatzen da.

45. taula. 1. eta 2. irizpideak konbinatzearen emaitza

| 1. ETA 2. IRIZPI-DEAK KONBINATZEAREN EMAITZA                                                                       | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                                                                                                                    | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                                                                                    | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| 1. irizpidearen A aukera, eta 2. irizpidea ez da betetzen                                                          | 9          | 90,0  | 7            | 87,5  | 9                | 90,0  | 7                 | 87,5  | 16      | 88,9  |
| 1. irizpidearen A aukera, eta 2. irizpidea betetzen da / 1. irizpidearen B aukera, eta 2. irizpidea ez da betetzen | 1          | 10,0  | 1            | 12,5  | 1                | 10,0  | 1                 | 12,5  | 2       | 11,1  |
| 1. irizpidearen B aukera, eta 2. irizpidea betetzen da                                                             | 0          | 0,0   | 0            | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                 | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira                                                                                                            | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Laburbilduz, Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioan parte hartzen duten 18 pertsonen Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna aplikatzeak, aurrez adierazitako irizpide eta urratsak kontuan hartuta, honako datu hauek ematen ditu:

46. taula. Bizitza Independenterako Programan parte hartzen duten pertsonen bazterketaren balorazioaren emaitza

| BAZTERKE-<br>TAREN BALO-<br>RAZIOAREN<br>EMAITZA | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                                  | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                                  | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Gizarteratzea                                    | 9          | 90,0  | 7                | 87,5  | 9                | 90,0  | 7                    | 87,5  | 16      | 88,9  |
| Bazterke-<br>ta-arriskua                         | 1          | 10,0  | 1                | 12,5  | 1                | 10,0  | 1                    | 12,5  | 2       | 11,1  |
| Gizarte-bazter-<br>keta                          | 0          | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 0                    | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira                                          | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Datuek erakusten dute 16 pertsona (% 88,9) gizarteratze-egoeran daudela eta 2 pertsona (% 11,1) gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran, baina inor ez dagoen gizarte-bazterketako egoeran. Era berean, adierazi behar da sexua-ren eta desgaitasun motaren aldagaiek ez dutela, balorazio-prozesuaren az-ken emaitzan, desberdintasun nabarmenik markatzen gizarteratze-egoeretan edo gizarte-bazterketako arrisku-egoeretan.

#### 4.4. ONDORIO GISA

Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna aplikatzeari esker, egiaztatu daiteke Bizitza Independenterako Programak parte-hartzaileen gizarteratze-egoera bermatzen modu erabakigarrian laguntzen duela; izan ere, pertsonen % 88,9 kategoria diagnostiko horretan dago, eta horietako bat ere ez dago gizarte-bazterketako gunean.

Hau da, gizartean aktiboki parte hartzea, herritarren kontzientzia hartzea, au-keratzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna, komunitateko kide gisa inplika-tzea eta abar bermatzen dira. Horrek esan nahi du Bizitza Independenterako Programak funtsezko helburua betetzea ahalbidetzen duela, hau da, desgai-tasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikuluan adierazten den bezala, komunitatean erabat integratzea eta parte hartzea bermatzea.

Hori nahitaez lotu behar da desgaitasuna duten pertsonen gizarte-bazter-ketako egoerari buruz egin diren beste azterketa batzuekin. Hala, elkartuk 2015ean egindako «Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoe-

ra eta beharrezane buruzko azterketa-diagnostikoa» txostenean, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratze-/bazterketa-maila ere jorratzen zen, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren aplikazioaren bidez. Datu horien arabera, % 33,3 gizarte-bazterketako egoeran zeuden, % 36,3 gizarte-bazterketako arriskuan, eta % 30,4 gizarteratze-egoeran.

Bestalde, FOESSA Fundazioaren Espainiako bazterketari eta gizarte-garapenari buruzko VIII. Txostenaren (2019) metodologia etxeko unitateen lagin adierazgarri bati buruzko etxeko inkesta batean oinarritzen da, eta hiru ardatz, zortzi dimentsio eta 37 adierazle zehatz hartzen ditu kontuan bazterketa- eta gizarteratze-egoerak aztertzeko; zera aipatzen du: *«desgaitasuna duten pertsonen % 30 gizarte-bazterkeriako egoeran daude, eta % 16 gizarte-bazterketa larrian, desgaitasunik ez duten pertsonen bikoitza. Bazterketa-tasa handiagoa ez ezik, problematika-metaketa handiagoa ere nabarmena da. Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta desgaitasunen bat duten pertsonen % 55,4 bi dimentsiotan edo gehiagotan daude, eta ehuneko hori 9,6 puntu txikiagoa da desgaitasunik ez duten pertsonen kasuan».*

Era berean, garrantzitsua da aipatzea gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeraren balorazioa duten pertsonak gizarteratzetik oso hurbil daudela, eta, beraz, egoera pertsonalean eta sozialean aldaketa txiki bat eginez gero, autode-terminazio eta parte-hartze sozial handiagoko errealitate batera igarotzeko aukera izan dezaketela.

Azkenik, adierazi behar da ebaluazio-proiektuan diagnostikatu beharreko bizi-eremuen azterketatik ondorioztatzen dela eragin handiena duen eremua osasunarekin, lanerako ezintasunarekin, desgaitasunarekin eta mende-kotasunarekin lotuta dagoela, eta alderdi horiek Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonen ezaugarriei atxikita daudela, eta beste eremu batzuetan ere eragin txikia dutela, hala nola ekonomian, okupazioan, egoitzetan, hezkuntzan, prestakuntzan edo gaikuntzan.



## — 5. Programak ikuspegi psikologikotik duen eraginaren azterketa

### 5.1. OSASUN MENTALARI BURUZKO IKUSPEGI TEORIKOA

Eskuarki, *osasun mentala* eta *gaixotasun mentala* edo *psikopatologia* terminoak modu baliokidean erabiltzen dira: osasun mental egokia sintoma psikopatologikorik ez izatean datza, edo, bestela esanda, pertsona batek buruko gaixotasunaren sintomarik edo zantzurik agertzen ez badu, pertsona hori mentalki edo psikologikoki osasuntsu dagoela esaten da. Osasun mentala sintoma psikopatologikorik eza dela ulertzen duen ikuspegi horri osasun mentalaren «ikuspegi psikopatologikoa» deritzo.

Hala ere, Osasunaren Mundu Erakundeak definizio hau proposatu du osasun mentalarentzat: «...ongizate-estatu, non gizabanakoak bere trebetasunak gauza ditzakeen, bizitzaren estres normalari aurre egin diezaiokeen eta bere komunitateari ekarpena egiteko gai den» (OME, 2004, 12. orr.). OMEren definizio horrek «osasun mental positiboaren ikuspegia» islatuko luke (Westerhof eta Keyes, 2010); izan ere, definizio horren arabera, osasun mentala ez da psikopatologiarik eza soilik, pertsonaren funtzionamendu psikologiko eta sozial osoa baizik.

Bi ikuspegiak alderatuz gero, lehenengoak gaixotasun mentalaren izaera, kausak eta tratamendua ditu ardatz, eta osasun mental positiboak, berriz, pertsona bat mentalki osasuntsu egotera daramaten kondizio psikologiko eta sozialen gainean jartzen du arreta.

Zer lotura dute bi ikuspegiak? Ikerketek erakusten dute, oro har, osasun mental positiboak buruko gaixotasunetik babesten duela: norbanakoa osasun mental positibora zenbat eta bideratuago egon, orduan eta aukera gutxiago izango ditu mentalki gaixotzeko. Eta kontrakoa ere bai: gaixotasun mental larriak agertzen direnean, normalean osasun mental positiboa txikia edo urria izaten da.

Dena den, garrantzitsua da aipatzea bi ikuspuntu horiek ez direla continuum baten bi muturrak: dimentsio independenteak dira. Pertsona bat mentalki gaixotzeko arrazoiak eta pertsona batek osasun mental positibo ona izateko arrazoiak desberdinak dira, ez daude erlazionatuta. Osasun mental positiboak psikopatologiatik babestu ohi badu ere, biak aldi berean gerta daitezke. Adibidez, pertsona batek depresioaren sintomak izan ditzake —psikopatologia- ren adierazleak— eta, aldi berean, ahal duen neurrian ahalegindu daiteke bere bizitzari aurre egiten, eguneroko bizitzako zereginetan aplikatzen eta familian edo bere ingurune orokorrean laguntzen —osasun mental positiboaren adierazleak—. Hortaz, pertsona baten osasun mentala ebaluatzeko, eta zeha-

tzago esanda, Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen dutenen osasun mentala ebaluatzeko, garrantzitsua izango da osasunaren bi dimentsio horiek kontuan hartzea. Zentzu horretan, ekuazio hau planteatu dezakegu:

**Osasun mental globala = psikopatologia + osasun mental positiboa**

Bizitza Independenteko Programaren ebaluazio psikologiko/kliniko honetan, osasun mentalaren bi ikuspegiak jaso nahi izan ditugu, eta, horretarako, arlo psikopatologikoko eta osasun mental positiboko tresnak erabili ditugu. 61. taulan jaso dira tresna horiek.

## 5.2. PSIKOPATOLOGIA ETA OSASUN MENTAL POSITIBOA NEURTZEKO TRESNAK

Programan parte hartzen duten pertsonen ebaluazio psikologikoa/klinikoa egiteko, dimentsio psikopatologikoa aztertu zen, laginaren osasun mental positiboaren dimentsio gisa. Hala, bost tresna erabili ziren (III. Eranskina); horietatik bi dimentsio psikopatologikoari zegozkion eta hiru osasun mental positiboari. Tresna horiek deskribatu aurretik, aipatzekoa da guztietan aztertu dela generoaren edo desgaitasun motaren (sortzetikoa versus gerora sortutakoa) arabera desberdintasunik ote dagoen.

47. taula. Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonen osasun mentala neurtzeko erabilitako tresnak

| Dimentsio psikopatologikoa                                                                  | Osasun mental positiboaren dimentsioa                                         |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|
| Beck BDI II Depresio Inbentarioa (BDI-II, Beck et al., 1996)                                | Bizitzarekiko gogobetetze-eskala (Diener et al., 1985)                        |
| Goldberg-en 12 itemeko osasun orokorrari buruzko galdetegia (GHQ-12, Goldberg et al., 1988) | Keyesen osasun mentalaren Continuumaren bertsio laburra (MHC-SF, Keyes, 2002) |
|                                                                                             | Ingurunea menderatzea (Ryff, 1989)                                            |

### 5.2.1. Psikopatologia neurtzeko tresnak

Jarraian, osasun mentalaren dimentsio psikopatologikoa neurtzeko erabilitako tresnak deskribatuko ditugu. Zehazki, Beck II Depresio Inbentarioa (1996; Espainiarako baliozkotzea: Beck et al., 2011) eta Goldbergen osasun orokorrari buruzko galdeketa (1988; Espainiarako baliozkotzea: Rocha et al., 2011) deskribatuko dira:

- **Beck II Depresio Inbentarioa.** *Screening* edo depresio klinikoa detektatzeko tresna bat da. Helburua da ahalik eta era sinpleenean, depresioa jasan dezaketen pertsonak detektatu ahal izatea. Sintomatologia depresiboa (tristura, negatibotasuna, erruduntasun-sentimenduak, etab.) detektatzen duten 21 item biltzen ditu, 0tik 3rako eskalan neurtuak, 0 sintoma horren gabezia eta 3 haren presentzia osoa izanik.

BDI-II tresnak, gainera, depresioaren larritasunaren arabera lau kategoria jasotzen ditu: depresio minimoa, arina, moderatua eta larria.

- **Goldberg-en 12 itemeko osasun orokorrari buruzko galdetegia.** BDI-II bezala, Goldberg-en 12 itemeko osasun orokorrari buruzko galdetegia (GHQ-12, *Goldberg General Health Questionnaire*, Goldberg eta Williams, 1988) screening tresna bat da, sintomatologia psikopatologiko orokor ez-psikotikoa detektatzen duena. Beste era batera esanda, GHQ-12ak estresa, depresioa, antsietatea eta sintoma psikosomatikoak adierazten ditu. Guk erabilitako 12 itemeko bertsioan, parte-hartzaileek 12 galdera erantzun behar zituzten. Adibidez, bigarren itema hau da: «Zure kezkek loa galarazi dizute?». Itemak 0tik 3ra bitarteko eskalan erantzun behar ziren, non 0 «ohikoa baino gutxiago» zen, eta 3 «ohikoa baino askoz gehiago». GHQ-12aren puntuazioak zenbat eta altuagoak izan, sintoma psikopatologikoak orduan eta handiagoak eta biziagoak dira.

Gainera, GHQ-12k larritasun-mailak ezartzea ahalbidetzen du sintomatologia psikiatrikoan. 15etik beherako puntuazioak estresaren, depresioaren eta antsietate baxuaren sintomatologia du; 15etik 20ra bitartean, estresaren eta ondoezaren maila moderatuak dituzten puntuazioak bilduko lirateke, eta 20tik gorako puntuazioek estresaren eta ondoezaren maila altuak izango lituzkete, gaixotasun mentalekin lotuta egoteko probabilitate handiarekin (Goldberg eta Williams, 1988).

### 5.2.2. . Osasun mental positiboa neurtzeko tresnak

Parte-hartzaileen osasun mental positiboa neurtzeko, honako tresna hauek erabili ziren: Bizitzarekiko gogobetetze-eskala (Diener et al., 1985), osasun mentalaren continuumaren bertsio laburra (Keyes, 2005) eta Ryffen ongizate psikologikoko eskalen «ingurunea menderatzeko» eskala (1989).

Jarraian, tresna horiek labur-labur deskribatuko dira:

- **Bizitzarekiko gogobetetze-eskala (SWLS, *Satisfaction With Life Scale*, Diener et al., 1985, *Espainiarako baliozkotzea: Pons et al., 2002*)**  
Pertsonak bere bizitzari buruz egiten duen balorazio orokorra da. Galdetegiak bost item ditu, eta horietako bakoitzak bost puntuko Likert eskala du. Eskala horretan, 1 «erabat desadotsa» dago, eta 5 «erabat adotsa», eta galdetegiaren puntuazio-tartea 5-25 da. Jatorrizko eskalan, erantzun-tartea 1etik 7ra bitarte-

koa zen, baina espainierazko egokitapenean 1etik 5era bitarteko Likert eskala erabili zen. Azterketa honetan ere eskala hori erabili dugu.

Bizitzarekiko gogobetetze-eskalak hautemandako gogobetetzearen araberako taldeak biltzen ditu. 21 eta 25 arteko puntuazioek bizitzarekiko gogobetetze-maila altua adierazten dute; 16 eta 20 artean beren bizitzarekin apur bat pozik dauden pertsonak egongo lirateke; 15 puntuazio neutrala da; 14 eta 10 artean beren bizitzarekin pozik ez dauden pertsonak sailkatuko lirateke, eta 9 eta 5 artean batere pozik ez dauden pertsonak.

– *Osasun mentalaren continuumaren bertsio laburra (MHC-SF, Mental Health Continuum Short Form, Keyes, 2002)*

Tresna hau parte-hartzaileen osasun mental positiboa ezagutzeko erabili zen. Osasun mental positiboak gizabanakoak bere esperientzia emozionalari eta eguneroko bizitzako funtzionamendu sozial eta indibidualari buruz dituen pertzepzioen multzoa jorratzen du. MHC-SFn jasotako pertzepzio multzo hori ongizate emozional, sozial eta psikologiko gisa definitzen da:

- **Ongizate emozionala.** MHC-SFn, pertsonak sentitzen dituen emozio positiboak eta bere bizitzarekin duen gogobetetze-mailak osatzen dute ongizate emozionala. Hiru item dira, bost puntuko Likert eskalaren gainean eraikiak. Eskala horretan, 1 «inoiz ez» da, eta 5 «beti». Eskalako puntuazio-tartea 3tik 15era bitartekoa da.
- **Ongizate soziala.** MHC-SFren azpieskala honetan, pertsonak bere ingurune sozial orokorrari buruz duen pertzepzioa aztertzen da, hau da, bizi den gizartea berarentzat zenbateraino den ona. Azpieskalak bost item ditu, ongizate emozionalerako deskribatutako Likert eskala berarekin, eta tartea 5etik 25era bitartekoa da. Item horietako bakoitzak ongizate sozialaren bost arlo desberdin aztertzen ditu: a) ekarpen soziala, parte-hartzailearen ustez zer neurritan lagun diezaiokeen bizi den gizarteari; b) gizarteratzea, parte-hartzaileak bere komunitatearekin duen harremanaren kalitatea; c) eguneratze soziala, gizartearen bilakaeraren eta potentzialtasunaren ebaluazio subjektiboa, hau da, zer neurritan den leku egokia pertsona gisa hazteko; d) onarpen soziala, zenbateraino hautematen dituen gainerako pertsonak funtsean onak, atseginak edo langileak direla; eta e) koherentzia soziala, gizarteak egitura eta funtzionamendu ulergarria eta aurreikusteko modukoa duela hautematea (Keyes, 1998). Hau ere bost puntuko Likert eskalaren bidez neurtzen da. Eskala horretan, 1 «inoiz ez» da, eta 5 «beti». Adibide bat 6. itema litzateke, eguneratze sozialari buruzkoa: «sentitu dut gure gizartea leku egokia dela ni bezalako pertsonentzat». Gutxieneko puntuazioa 5 da, eta maximoa 25.
- **Ongizate psikologikoa.** Eskalaren atal honetan, funtzionamendu psikologiko osasungarrirako beharrezkoak diren 6 gaitasun edo trebetasun bil-

tzen dira: a) *autoonarpena*, pertsonak bere burua zein neurritan onartzen duen aztertzen du, bere bertute eta akatsekin; b) *gainerako pertsonetikiko harreman positiboak*, pertsonak harreman sozial positiboak eta afektiboki gogobetegarriak dituen aztertzen du; c) *autonomia*, pertsonak bere ikuspuntuak defendatzeko duen gaitasuna jorratzen du, nahiz eta gehien-goaren aurkakoak izan; d) *ingurunea menderatzea*, pertsona batek bere ezaugarriekin bat datorren bizimodua eta ingurunea sortzeko gai izan den neurria ikertzen du; e) *hazkunde pertsonala*, pertsona batek bere bizitzan gauza berriak ikasi eta pertsona gisa garatzen dela sentitzen duen neurria aztertzen du; eta f) *bizitzako asmoa*, pertsonak bere bizitzak zentzua duela sentitzen duen neurria ezagutzen saiatzen da.

Ongizate psikologikoaren sei itemek ongizate emozionalaren eta sozialaren neurketa bera dute. Adibide gisa, 11. itemak beste pertsonetikiko harreman positiboak jorratzen ditu: «sentitu dut besteekin izan ditudan harremanak atseginak eta konfiantzazkoak izan direla». Gutxieneko puntuazioa 6 da, eta maximoa 30.

MHC-SF bi modutan zuzendu daiteke: orokorrean eta osasun mental positiboaren kategorien arabera:

- **Zuzenketa orokorra.** Oro har, ongizate emozional, sozial eta psikologikoko azpieskalen puntuazioak batu, eta 14-70 bitarteko puntuazioa lortzen da. Horrela lortutako puntuazioak informazio kuantitatiboa ematen du, eta aukera ematen du zenbait azterlanen edo pertsona-talderen osasun mental positiboa alderatzeko, aurrerago egingo den moduan.
- **Kategorien arabera zuzenketa.** Bestalde, MHC-SFk osasun mental positiboko hiru kategoria bereizten ditu: loraldiaren fasea, osasun mental moderatuaren fasea eta ahulaldiaren fasea (Keyes, 2002):
  - Loraldiaren fasean (*flourishing*), ongizate emozional, sozial eta psikologikoaren maila altua duten pertsonak bilduko lirateke. Pertsona bat kategoria horretan sailkatu ahal izateko, «askotan» edo «beti» aukeretan puntuatu behar ditu ongizate emozionalaren azpieskalako item batean gutxienez, eta elkarrekin hartutako ongizate sozial eta psikologikoko azpieskaletako sei itemetan gutxienez.
  - Ahulaldiaren faseak (*languishing*) osasun mental positibo oso baxua duten pertsonak biltzen ditu. Pertsona bat kategoria horretan sailkatu ahal izateko, «inoiz ez» edo «oso gutxitan» aukeretan puntuatu behar ditu ongizate emozionalaren azpieskalako item batean gutxienez, eta elkarrekin hartutako ongizate sozial eta psikologikoko eskaletako sei itemetan gutxienez.

- Osasun mentaleko fase moderatuan, loraldiaren fasean edo ahulaldiaren fasean ez dauden pertsonak sartuko lirateke (Keyes, 2002).

#### – *Ingurunea menderatzea*

Dimentsio hori ikertzeko, Ryffen ongizate psikologikoko eskalen ingurunea menderatzeko azpieskala hartu zen (RPWS, Ryff 's *Psychological Wellbeing Scales*, Ryff eta Singer, 2013, Espainiarako baliozkotzea: Villar et al., 2005)<sup>2</sup>. Pertsonak beren eguneroko bizitza kontrolatzeko eta menderatzeko duten gaitasuna aztertzen du eskala horrek. 9 item dira, 1etik 6ra bitarteko Likert eskalan, non 1 «erabat desados» eta 6 «erabat ados» den. Adibide gisa, eskalako lehen itema honako hau da: «Oro har, bizi naizen egoera kontrolatzen dudala sentitzen dut». Gutxieneko puntuazioa 9 da, eta maximoa 81.

### 5.3. EMAITZAK

Lehenik eta behin, **osasun mentalaren dimentsio psikopatologikoari** dagozkion emaitzak deskribatzen dira: Beck II Depresio Inbentarioa eta Goldbergen osasun orokorrari buruzko galdetegiaren 12 itemeko bertsioa. Emaitzen laburpena 62. ikus daiteke.

#### – *Beck BDI II Depresio Inbentarioa (BDI-II)*

Gure laginean, BDI-IIko batez besteko puntuazioa 5,72koa izan zen (DE = 6,71), puntuazio nabarmen baxua. BDI-IIren Espainiarako baliozkotzean, laginaren batezbestekoa 9,4 puntukoa izan zen, gure azterketako parte-hartzaileek lortutako emaitzaren gainetik, argi eta garbi. Adimen-desgaitasuna duten pertsonekin egindako ikerketa batean, BDI-IIren batezbestekoa 14,06 puntukoa izan zen, eta desgaitasun fisikoa duten pertsonekin egindako beste ikerketa batean, 11,69 puntukoa (Lindsay eta Skene, 2007; Secinti et al., 2017). Emaitza horiek ikusita, ondoriozta dezakegu programan parte hartzen duten pertsonen BDI-IIko batezbestekoa oso baxua dela.

Depresioaren larritasunari dagokionez, BDI-IIk lau multzo jasotzen ditu: depresio minimoa, arina, moderatua eta larria. Laginaren % 88,9 (k = 16) depresio minimoaren multzoan sailkatu zen, hau da, BDI-IIko kategoria baxuenean, ahalik eta depresio maila txikiena adierazten duen kategorian. Gainerako bi pertsonen kasuan, bat depresio arinaren kategorietan sailkatu zen, eta bestea depresio moderatuaren kategorian. Beraz, ikerketa honetan parte hartu zuten pertsonak oso maila baxua zuten BDI-IIk neurtutako depresioaren larritasunari dagokionez.

<sup>2</sup> MHC-SFn ongizate psikologikoaren azpieskalaren item gisa agertzen da ingurunea menderatzea. Hala ere, garrantzitsua iruditu zaigu eskala osoa 9 itemekin aztertzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat dimentsio horrek garrantzi berezia baitu.

Generoari eta desgaitasun motari —sortzetikoa edo gerora sortutakoa— dagokionez, ez zen alde esanguratsurik topatu. Generoari dagokionez, parte-hartzaile gehienak depresio minimoaren kategorian kokatu ziren, bai gizonak ( $k = 9$ ), bai emakumeak ( $k = 7$ ), eta bi taldeen arteko aldea ez zen esanguratsua izan ( $X^2(1, K = 18) = 2.053, p = .358$ ). Gauza bera gertatu zen desgaitasun motarekin; hala, sortzetiko desgaitasuna duten pertsonak ( $k = 9$ ) eta gerora sortutako desgaitasuna zutenak ( $k = 7$ ) depresio minimoaren kategorian sailkatu ziren, haien arteko alde nabarmenik gabe ( $X^2(1, K = 18) = 2.053, p = .358$ ).

48. taula. Depresio-maila sexuaren eta desgaitasun motaren arabera

| DEPRESIOA | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|-----------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|           | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|           | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Minimoa   | 9          | 90,0  | 7            | 87,5  | 9                | 90,0  | 7                 | 87,5  | 16      | 88,9  |
| Arina     | 0          | 0,0   | 1            | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                 | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Moderatua | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 1                | 10,0  | 0                 | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Larria    | 0          | 0,0%  | 0            | 0,0   | 0                | 0,0%  | 0                 | 0,0   | 0       | 0,0   |
| Guztira   | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegiaren bildutako datuak oinarri hartuta.

– *Goldbergen osasun orokorrari buruzko galdetegiaren 12 itemeko bertsioa*

Puntuazio mota hori erabiliz, laginaren batezbesteko orokorra 12,72 izan zen ( $DE=5,91$ ). Batezbesteko hori biztanleria orokorraren batezbestekoa baino zertxobait altuagoa da. Espainian biztanleria orokorraren lagin batekin egindako azterlan batean, GHQ-12ren batezbestekoa 8,52 izan zen (Sánchez-López eta Dresch, 2008), eta parte-hartzaile gazteekin egindako beste azterlan batean, berriz, are txikiagoa: 3,7 (Montazeri et al., 2003).

Lehen esan bezala, GHQ-12ak sintomatologia psikiatriko arina, moderatua eta larria bereizten ditu. Gure laginean, 12 parte-hartzailek (% 66,7) 15 puntu baino gutxiago lortu zituzten, eta horrek estres eta ondoez maila baxua adierazten du. Beste lau parte-hartzailek (% 22,2) 15 eta 20 arteko puntuazioa izan zuten, hau da, estres eta ondoez maila moderatua zuten. Gainerako biek (% 11,1) 20 puntu baino gehiago lortu zituzten; beraz,

estres eta ondoez handiko pertsonak dira. Horrela, laginaren bi herenek GHQ-12n lortutako puntuazioek sintoma psikiatrikoen maila baxua islatuko lukete, eta laginaren heren batek GHQ-12n lortutako puntuazioek estres eta ondoez maila garrantzitsua edo oso garrantzitsua islatzen dituzte.

Generoari eta desgaitasun fisikoari dagokienez, 63. taulan ikus daitekeen bezala, ez da desberdintasun esanguratsurik topatu, ez generoaren arabera ( $X^2(1, K=18) = 2.215, p = .333$ ), ez desgaitasun motaren arabera ( $X^2(1, K=18) = 0,218, p = .666$ ).

Ikusi ahal izan denez, GHQ-12aren bi zuzenketa-modu horiek bat datoz, biek deskribatzen baitute laginaren zatirik handienak osasun mental onargarria duela. Emaita horiek bat datoz BDI-IItik lortutakoekin, eta horrek guztiak iradokitzen du ikerketan parte hartu duten pertsonen osasun mentala ez dela biztanleria orokorraren batezbestekotik urruntzen.

49. taula. **Sintomatologia psikiatrikoa sexuaren eta desgaitasun motaren arabera**

| SINTOMATO-LOGÍA | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                   |       | GUZTIRA |       |
|-----------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|-------------------|-------|---------|-------|
|                 | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA SORTUTAKOA |       |         |       |
|                 | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                 | %     | K       | %     |
| Arina           | 6          | 60,0  | 6            | 75,0  | 7                | 70,0  | 5                 | 62,5  | 12      | 66,7  |
| Moderatua       | 4          | 40,0  | 0            | 0,0   | 3                | 30,0  | 1                 | 12,5  | 4       | 22,2  |
| Larria          | 0          | 0,0   | 2            | 25,0  | 0                | 0,0   | 2                 | 25,0  | 2       | 11,1  |
| Guztira         | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                 | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Horrenbestez, bi tresna ezberdinen emaitzak deskribatu dira: BDI-II eta GHQ-12renak. BDI-IIk depresioaren sintomak detektatzen ditu espezifikoki; GHQ-12k, berriz, ondoez psikologikoko sintoma orokorrak edo ez hain espezifikak jasotzen ditu: estresa, antsietatea, depresioa edo disfuntzio soziala eragiten duten sintoma psikosomatikoak. Aztergai dugun programaren laginak psikopatologia baxua adierazten duten puntuazioak erakutsi ditu oro har. Laginaren heren batek, ordea, puntuazio oso altua lortu du bi neurri horietan.



50. taula. BDI-II eta GHQ-12 tresnen emaitzen laburpena

|        | BATEZBESTEKOA<br>(DESBIDERATZE<br>ESTANDARRA) | LARRITASUNA     |                 |                |                |
|--------|-----------------------------------------------|-----------------|-----------------|----------------|----------------|
|        |                                               | MINIMOA         | ARINA           | MODERATUA      | LARRIA         |
| BDI-II | 5,72<br>(6,71)                                | 88,9%<br>(n=16) | 5%<br>(n=1)     | 5%<br>(n=1)    | 0%             |
| GHQ-12 | 12,72<br>(5,91)                               | -               | 66,7%<br>(n=12) | 22,2%<br>(n=4) | 11,1%<br>(n=2) |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Bigarrenik, **osasun mental positiboari** dagokionez, pertsonak mentalki ondo egoteko eta eguneroko bizitzan normaltasunez eta ongizatearekin funtzionatu ahal izateko duen gaitasuna aztertzen da. Hiru tresna erabili dira osasun mental positiboa ebaluatzeko: bizitzarekiko gogobetetze-eskala (Diener et al., 1985), osasun mentalaren continuumaren bertsio laburra (Keyes, 2005) eta Ryffen ongizate psikologikoko eskalen «ingurunea menderatzeko» azpieskala (1989):

– *Bizitzarekiko gogobetetze-eskala*

Lehen esan bezala, bizitzarekiko gogobetetze-eskalak pertsonak bere bizitzarekiko duen gogobetetze-maila orokorra neurtzen du. Aztertutako laginean, bizitzarekiko gogobetetzea 17,22koa izan zen ( $DE=4.94$ ). Puntuazio horrek gogobetetze-maila nahiko altua adierazten du. Konparatzearen, Espainiako biztanleria osoaren lagin batean bizitzarekiko gogobetetze-maila 16,85 izan zen (Vázquez et al., 2013).

Tresna horren bidez definitzen diren ongizate-taldeak arabera —erabat gogobeteta, apur bat gogobeteta, neutro, apur bat atsekabetuta eta erabat atsekabetuta—, pertsona bat erabat atsekabetuta dagoen taldean sailkatu zen, lau pertsona apur bat atsekabetuta dagoen taldean, beste pertsona bat talde neutroan, zazpi apur bat gogobeteta dagoen taldean eta bost erabat gogobeteta dagoen taldean. Horrela, parte-hartzaileen bi heren baino gehiago (% 66,7) gogobeteta edo erabat gogobeteta daude beren bizitzarekin, eta laginaren % 5,6 bakarrik egongo litzateke erabat atsekabetuta.

Generoari eta desgaitasun motari dagokienez, ez da desberdintasun esanguratsurik aurkitu bizitzarekiko gogobetetzeari dagokionez aldagai horien arabera (generoaren kasuan,  $X^2(1, K = 18) = 8.888$ ,  $p = .543$ ; desgaitasun motaren kasuan —sortzetikoa versus gerora sortutakoa— ( $X^2(1, K = 18) = 5.850$ ,  $p = .664$ ).

51. taula. Bizitzarekiko gogobetetzea sexuaren eta desgaitasun motaren arabera

| GOGOBE-<br>TASUNA          | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|----------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                            | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                            | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Erabat gogo-<br>beteta     | 3          | 30,0  | 2                | 25,0  | 4                | 40,0  | 1                    | 12,5  | 5       | 27,8  |
| Apur bat go-<br>gobeteta   | 3          | 30,0  | 4                | 50,0  | 4                | 40,0  | 3                    | 37,5  | 7       | 38,9  |
| Neutrala                   | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Apur bat atse-<br>kabetuta | 3          | 30,0  | 1                | 12,5  | 2                | 20,0  | 2                    | 25,0  | 4       | 22,2  |
| Erabat atseka-<br>betuta   | 1          | 10,0  | 0                | 0,0   | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Guztira                    | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegiaren bildutako datuak oinarri hartuta.

– Osasun mentalaren continuumaren bertsio laburraren emaitzak (MHC-SF)

Gogora dezagun MHC-SFk zuzentzeko bi modu dituela: puntuazio orokorra eta osasun mental positiboko kategoriak. Lehenik eta behin, laginaren emaitzak deskribatzen eta alderatzen dira MHC-SFren puntuazio globalan eta ongizate emozional, psikologiko eta sozialaren azpieskaletan. Bigarrenik, osasun mental positiboaren kategorietako emaitzak aztertzen dira (loraldia, ahulaldia eta osasun mental positibo moderatua).

MHC-SFren eskala orokorraren puntuazioa 51,05 izan zen ( $DE=10.86$ ). Duela gutxi egindako azterlan batean, 38 herrialdetan aztertu ziren MHC-SFren emaitzak (Žemojtel–Piotrowska et al., 2018). Bestalde, azterlan honetako laginak MHC-SFn lortutako puntuazio orokorra Žemojtel–Piotrowska et al (2018) lanean aztertutako herrialdeetakoak baino zertxobait baxuagoa da. Aztertutako 38 herrialdeetatik, soilik seik —Txekiar Errepublikak, Iran, Japonia, Hego Korea, Polonia eta Errusia— lortu zituzten Bizitza Independenteterako Programaren laginean lortutakoak baino puntuazio orokor baxuagoak. Espainiari dagokionez, batez besteko puntuazioa 56,29koa izan zen ( $DE=11.57$ ). Datu horiek ikusita, ondoriozta daiteke az-

tertutako laginaren MHC-SFren puntuazio orokorra Espainiako biztanleria orokorrarena baino pixka bat txikiagoa dela.

Ongizate emozionalaren, psikologikoaren eta sozialaren kategoriei dagokienez, 66. taulan gure laginaren batezbestekoak eta Italian, Singapurren eta Australian biztanleria orokorraren laginak dituzten azterlanetakoak agertzen dira (Petrillo et al., 2015; Yeo eta Suárez, 2022) . Kasu honetan ere ikus daiteke ongizate emozional, sozial eta psikologikoari dagokionez, programaren laginak beste herrialde batzuetako biztanleria orokorraren batezbestekoen antzekoak islatzen dituela. Aipatzekoa da, halaber, ikerketa honetako laginak ongizate sozialeko puntuazio handiagoa lortu zuela konparatzen diren azterlanetakoak baino.

**52. taula. Bizitza Independenteterako Programaren azterketan parte hartzen dutenen batezbestekoaren eta desbideratze estandarren alderaketa beste ikerketa batzuekin**

|                              | BIP<br>IKERKETA B.<br>BESTEKOAK<br>(DE) | (PETRILLO<br>ET AL., 2015)<br>ITALIA | (YEO ET AL.,<br>2022) SINGAPUR | (YEO ET<br>AL., 2022)<br>AUSTRALIA |
|------------------------------|-----------------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------|------------------------------------|
| <b>Ongizate emozionala</b>   | 3,68 (0,86)                             | 3,97 (1,12)                          | 2,60 (1,39)                    | 3,46 (1,16)                        |
| <b>Ongizate soziala</b>      | 3,27 (0,79)                             | 2,73 (1,01)                          | 3,10 (1,11)                    | 2,50 (1,46)                        |
| <b>Ongizate psikologikoa</b> | 3,93 (0,87)                             | 4,45 (1,02)                          | 3,07 (1,27)                    | 3,17 (1,34)                        |
| <b>MHC-SF (orokorra)</b>     | 3,64 (0,77)                             | 3,73 (0,85)                          | 2,91 (1,30)                    | 2,99 (1,40)                        |

Iturria: Guk geuk egina, bigarren mailako eta lehen mailako datuetan oinarrituta.

Osasun mental positiboaren kategoriei dagokienez, 67. taulan ikus daiteke parte-hartzaile bat ahulaldi-fasean kokatu zela; 10 parte-hartzaile, hau da, laginaren erdia baino gehiago, loraldiaren kategorian; eta 7 parte-hartzaile, osasun mental moderatuaren fasean.

Laburbilduz, deskribatutako datuek, bai MHC-SFren puntuazio orokorrekin, bai osasun mental positiboko kategorien arabera, programaren ebaluazioan parte hartu duten pertsonen osasun mental positibo nahiko altua erakutsi dute.

<sup>3</sup> Aipatutako 38 herrialdetako azterlanean (2018) ez da daturik ematen MHC-SFren azpieskalei buruz (ongizate emozionala, soziala eta psikologikoa)

53. taula. Osasun mental positiboko kategoriak sexuaren eta desgaitasun motaren arabera

| OSASUN<br>MENTAL<br>POSITIBOA | GENEROA    |       |              |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|-------------------------------|------------|-------|--------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                               | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                               | K          | %     | K            | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Loraldia                      | 4          | 40,0  | 6            | 75,0  | 7                | 75,0  | 3                    | 37,5  | 10      | 55,6  |
| Moderatua                     | 5          | 50,0  | 2            | 25,0  | 2                | 25,0  | 5                    | 62,5  | 7       | 38,9  |
| Ahulaldia                     | 1          | 10,0  | 0            | 0,0   | 1                | 10,0  | 0                    | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Guztira                       | 10         | 100,0 | 8            | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Generoari dagokionez, ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu ez eskalaren osotasunean ( $X^2(4, K = 18) = 15.300, p = .358$ ), ez osasun mental positiboaren azpieskaletan (ongizate emozionala  $X^2(4, K = 18) = 3.150, p = .677$ ; ongizate soziala  $X^2(4, K = 18) = 5.850, p = .664$ ; ongizate psikologikoa  $X^2(4, K = 18) = 10.913, p = .451$ ). Eta gauza bera gertatu zen desgaitasun motari dagokionez, ez baitzen desberdintasun esanguratsurik aurkitu osasun mental positiboan desgaitasun motaren arabera (sortzetikoa versus gerora sortutakoa), ez eskala orokorrean ( $X^2(4, K = 18) = 13,1275, p = 0.505$ ), ez ongizate emozionalean ( $X^2(4, K = 18) = 4,873, p = 0.436$ ), ez sozialean ( $X^2(4, K = 18) = 7,875, p = 0.446$ ), ez psikologikoan ( $X^2(4, K = 18) = 10,913, p = 0.451$ ).

#### – Ingurunea menderatzea

Ingurunea menderatzeak norbanakoak bere eguneroko ingurunea gobernatzeko duen gaitasuna aztertzen du. Gure laginaren batezbestekoa 43,72koa izan zen. Zaila da emaitzak alderatzea; izan ere, laginen arteko emaitzak pertsona desberdinekin alderatzeko zailtasunari –adibidez: gazteak versus adinekoak, desgaitasunen bat duten pertsonak versus desgaitasunik gabeko pertsonak, eta abar– gehitzen zaio ingurunea menderatzeko eskalak aldaera asko dituela (bederatzi, sei eta hiru itemekoak), eta horrek konparazioa egitea zailtzen du. Espainian adinekoekin egindako azterlan batean, batezbestekoa 42,36 izan zen (Villar et al., 2005), gure laginaren emaitzaren azpitik. Beraz, zalantzarik bada ere, esan dezakegu Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten eta ebaluazio honetan parte hartu duten pertsonen beren ingurunea era egokian menderatzen dutela.

Bestalde, ez generoak ( $t(16) = 0,440$ ,  $p = 0,333$ ), ez desgaitasun motak ( $t(18) = -0,397$ ,  $p = 0,348$ ), ez zuten estatistikoki alde adierazgarririk adierazi ingurunea menderatzeari dagokionez.

54. taula. Ingurunea menderatzea sexuaren eta desgaitasun motaren arabera

| INGURUNEA<br>MENDERATZEA | GENEROA    |              | DESGAITASUN MOTA |                   | GUZTIRA |
|--------------------------|------------|--------------|------------------|-------------------|---------|
|                          | GIZONEZKOA | EMAKU-MEZKOA | SORTZETIKOA      | GERORA SORTUTAKOA |         |
| Batezbestekoa            | 44,30      | 43,0         | 43,2             | 44,37             | 43,72   |
| Desbideratze tipikoa     | 7,10       | 4,89         | 6,35             | 6,09              | 6,08    |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

Osasun mental positiboari dagokionez, eta laburpen gisa, esan daiteke, oro har, programaren ebaluazio klinikoan/psikologikoan parte hartu duten pertsonen biztanleria orokorraren antzeko osasun mental positiboa erakutsi dutela, eta kasu batzuetan baita altuagoa ere. Biztanleria orokorrarekin alderatuta, azterlanean parte hartu duten pertsonen bizitzarekiko gogobetetasuna apur bat txikiagoa da, osasun mental positiboa antzekoa, eta ingurunea apur bat gehiago menderatzen dute.

Lehen esan bezala, psikopatologia eta osasun mental positiboa ez daude lotuta: jatorri eta garapen independenteak dituzte. Keyesek (2005) proposatzen du pertsonen osasun mental osoa bi dimentsio horiekin osatzen dela. Horrela, eta ikerketa honetan defendatu den moduan, pertsona baten osasun mentala ebaluatzeko, **psikopatologiaren eta osasun mental positiboaren konbinazioa** ezagutu behar da. Informazioa sinplifikatzeko, BDI-II depresio-eskalan lortutako puntuazioek psikopatologia islatuko dute. BDI-IIko puntuazioak bi taldetan banatu ditugu: depresio minimoaren tartean puntuatu duten pertsonak «depresiorik gabe» kategorian sailkatu ditugu, eta depresioaren hiru kategorietako batean —depresio arina, moderatua eta larria— puntuatu duten pertsona guztiak «depresioa» kategorian sailkatu ditugu.

Bestalde, osasun mental positiboa hiru kategorien bidez irudikatu da: loral-dia, ahulaldia eta osasun mental positibo moderatua. Horrela, psikopatologiako bi kategoriak —depresiorik gabe eta depresioa— eta aipatutako osasun mental positiboko hirurak konbinatuz, sei kategoria eratzen dira.


55. taula. Osasun mental osoa: depresioaren eta osasun mental positiboaren kategorien konbinazioa

| OSASUN MENTAL POSITIBOA |                                     |                                                    |                                      |
|-------------------------|-------------------------------------|----------------------------------------------------|--------------------------------------|
|                         | Loraldiaren fasea                   | Osasun mental positibo moderatua                   | Ahulaldiaren fasea                   |
| Depresiorik gabe        | Loraldiaren fase osoa (k=10)        | Osasun mental positibo moderatua (k=6)             | Ahulaldiaren fase osoa (k=0)         |
| DEPRESIOA               | Loraldiaren fasea + depresioa (k=0) | Osasun mental positibo moderatua + depresioa (k=1) | Ahulaldiaren fasea + depresioa (k=1) |

Iturria: Guk geuk egina.

Ikus daitekeenez, parte-hartzaileen erdia baino gehiago osasun mental positiboko (loraldiaren fasea) eta depresiorik gabeko taldean (k= 10) kokatu ziren. Parte-hartzaile gehien izan zituen hurrengo kategoria depresiorik gabeko osasun mental positibo moderatua izan zen (k= 6). Depresioa duten kategorietan, pertsona bat osasun mental positibo moderatua duen taldean kokatu zen, eta bestea ahulaldiaren fasea + depresioa taldean.

56. grafikoa. Psikopatologiaren eta osasun mental positiboaren arteko erlazioaren irudikapen grafikoa (n=1)



Estatistikoki ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu generoaren ( $X^2$  (4, K = 18) = 4,905, p = 0,179) eta desgaitasun motaren arabera ( $X^2$  (4, K = 18) = 4,095, p = 0,251).

57. taula. Osasun mental osoa sexuaren eta desgaitasun motaren arabera

| OSASUN<br>MENTAL<br>OSOA       | GENEROA    |       |                  |       | DESGAITASUN MOTA |       |                      |       | GUZTIRA |       |
|--------------------------------|------------|-------|------------------|-------|------------------|-------|----------------------|-------|---------|-------|
|                                | GIZONEZKOA |       | EMAKUMEZ-<br>KOA |       | SORTZETIKOA      |       | GERORA<br>SORTUTAKOA |       |         |       |
|                                | K          | %     | K                | %     | K                | %     | K                    | %     | K       | %     |
| Loraldia eta depresiorik gabe  | 4          | 40,0  | 6                | 75,0  | 7                | 7,0   | 3                    | 37,5  | 10      | 55,6  |
| Moderatua eta depresiorik gabe | 5          | 50,0  | 1                | 12,5  | 2                | 20,0  | 4                    | 50,0  | 6       | 33,3  |
| Moderatua eta depresioa        | 0          | 0,0   | 1                | 12,5  | 0                | 0,0   | 1                    | 12,5  | 1       | 5,6   |
| Ahulaldia eta depresioa        | 1          | 10,0  | 0                | 0,0   | 1                | 10,0  | 0                    | 0,0   | 1       | 5,6   |
| Guztira                        | 10         | 100,0 | 8                | 100,0 | 10               | 100,0 | 8                    | 100,0 | 18      | 100,0 |

Iturria: Guk geuk egina, galdetegietan bildutako datuak oinarri hartuta.

## 5.4. ONDORIO GISA

Atal honen sarreran esan den bezala, Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazio psikologikoa/klinikoa diseinatu genuenean, parte-hartzaileen psikopatologia neurtzeaz gain, osasun mental positiboaren neurketa ere sartu behar zela pentsatu genuen. Izan ere, ebaluazio dual hori gero eta indar handiagoa hartzen ari da osasun mentalaren ebaluazioan, eta uste dugu bereziki egokia dela desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen ebaluazio psikologikorako.

Oro har, baieztatu dezakegu aztertutako laginak erakutsi duela osasun mental altua dutela, bai psikopatologiari dagokionez, bai osasun mental positiboari dagokionez. Psikopatologiaren alderdian, parte-hartzaileek depresio-, antsietate- eta estres-maila nahiko baxuak erakutsi dituzte. Laginaren heren batek depresio- eta antsietate-puntuazio esanguratsuak izan zituen, baina, lehen esan bezala, hori biztanleria orokorrean ere gertatzen da. Are gehiago,

pentsa liteke desgaitasunak psikopatologia-maila handiagoa eragin beharko lukeela biztanleria orokorrekin alderatuta, baina hori ez da hala, aztertutako laginean behintzat.

Osasun mental positiboari dagokionez, parte-hartzaileek osasun mental positibo altu samarra izan dute. Bai bizitzarekiko gogobetetzean, bai ongizate emozional, sozial eta psikologikoan eta bai ingurunea menderatzean, puntuazioak altuak izan dira. Berrero ere, batzuek osasun mental positibo baxua dute, biztanleria orokorrean gertatzen den moduan.

Azkenik, frogatu ahal izan dugu psikopatologia eta osasun mental positiboa batera kontuan hartzen direnean, parte-hartzaileen gehiengoa osasun mental osoaren koadranteetan kokatu dela, eta soilik bi subjektuk izan dituztela psikopatologiako puntuazio esanguratsuak eta, aldi berean, osasun mental positiboa baxua.

Programaren ebaluazio klinikoa/psikologikoaren emaitza guztiak batera aztertuta, salbuespenak salbuespen, programa honetan parte hartzen duten pertsonen osasun mentala egokia eta biztanleria orokorrenaren antzekoa dela esan dezakegu.

Generoari eta desgaitasun motari dagokienez, ez dugu ondorio esanguratsurik aurkitu ikerketa honetan erabilitako tresnekin lortutako emaitzetan. Biztanleria orokorrean, generoaren arabera aldeak nabarmenak dira, oro har emakumeen kalterako. Desgaitasun fisikoei dagokienez, pentsa liteke sortzetiko ezintasunak dituzten pertsonen gerora sortutako desgaitasunak dituztenek baino osasun mental hobea izango luketela; hala ere, hori ez da gertatu. Nolanahi ere, lagina txikia da —18 pertsona—, eta horrek eragina izan dezake generoaren eta desgaitasun motaren arabera desberdintasunei buruzko estatistika-emaitzetan.

Azkenik, adierazi behar dugu ezin izan ditugula lagin horren emaitzak alderatu programan parte hartzen ez duten eta desgaitasuna duten pertsonen lagin baliokideen emaitzekin. Gure ustez, konparazio horrek are nabarmenago egingo lituzke Bizitza Independenteterako Programak erabiltzaileei dakartzkien onurak.



## — 6. Programak ikuspegi ekonomikotik duen eraginaren azterketa

### 6.1 GIZARTE-INBERTSIOAREN ITZULKIN EKONOMIKOAREN IKUSPEGIA

Azterketa honen bidez, Bizitza Independenteterako Programaren eraginaren balorazio ekonomikoa egin nahi da, edozein izaera sozialeko programaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioak denboran zehar duen jasangarritasunari buruzko erabakia baldintzatzen baitu beti

### 6.2. SOCIAL RETURN ON INVESTMENT (SROI) METODOLOGIA

Aurretik azaldutako testuingurutik abiatuta, esan beharra dago programa ekonomikoki baloratzeko egin zen lehenengo zeregina dokumentuak sakonki bilatzea izan zela, gure lana oinarritzeko erreferentziak identifikatu ahal izateko.

Bilaketa horrek, dokumentu akademikoetara gidatzeaz gain, dokumentazio edo literatura gris izeneko dokumentuetara ere bidali gintuen<sup>4</sup>. Aztertzen ari garen kasurako, bereziki garrantzitsua iruditzen zitzaigun erakunde desberdinei (pribatuak, publikoak zein hirugarren sektorekoak) lotutako ikertzaileek egindako dokumentuak izatea, laguntza-programen eragin ekonomikoa baliosteaz arduratzen baitziren, instituzionalizatuak izan ala ez, mundu akade-

---

<sup>4</sup> Literatura edo dokumentazio ez-konbentzional, erdi argitaratu, informal edo ikusezin izenez ere eza-guna, literatura grisa editatu gabeko edo ohiko bideetatik kanpo zabaldutako edozein dokumentu da. Literatura horrek, bere izaeragatik, irisgarritasun orokorreko arazoak sortzen ditu. Hona hemen zenbait ezaugarri:

- Inprimatutako dokumentuen kasuan, ekoizpen mugatukoak dira, eta ale gutxiko tiradak dituzte;
- Ez dute nahitaez betetzen edizio tradizionalen araurik;
- Irakurle espezializatuak zuzenduta dago;
- Ez dator bat kontrol bibliografiko edo bibliografikoko arauekin (ISBN, ISSN, inpaktu-indizeak).

Hona hemen literatura grisaren adibideak: graduaurreko eta graduondoko tesiak, kongresuetako aktak, ikerketa-txostenak, memoriak, proiektuak, patenteak, arau teknikoak edo kudeaketakoak, jarraibideak, elkarte zientifikoaren edo era askotako erakundearen dokumentuak, buletinak, lan-koadernoak, txosten teknikoak, enpresen produktuen eta zerbitzuen katalogoak, dosierak edo kartelak (Carrizo, 2000).

<sup>5</sup> SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak bere oinarritzko jarduera-ildoetako bat izaten jarraitzen du, bai eta originala izateko arrazoia ere: «gizarte-politiken eta -zerbitzuen arloan espezializatutako dokumentazio- eta liburutegi-zentro gisa jardutea». Gaur egun, SIISeko dokumentazio-zentroa gizarte-politiken eta -zerbitzuen esparruan espezializatutako bibliografia-bilduma nagusietako bat da Europan (<https://www.siiis.net/eu/que-es-siis/aurkezpena/1/>).

Eskerrak eman nahi dizkiegu SIISeko dokumentazio-langileei, eta, bereziki, Joseba Zulaika zuzendariari, emandako laguntzagatik eta gertutasunagatik.

mikoko ohiko dibulgazio-kanaleetatik harago. Horregatik jo genuen SIISera<sup>5</sup>, gizarte-arloko aditu dokumentalisten lankidetzaren bila. Literatura akademiko eta grisaren berrikuspenetik ondorioztatu ahal izan genuen, lehen ondorio gisa, *Social Return on Investment* (SROI) dela programa mota horren alderdi ekonomikoak jorratzeko gehien aukeratutako metodologia, alde handiarekin. Metodologia hori «erakunde batek sortutako gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-balioak ulertzeko, neurtzeko eta komunikatzeko prozesu» gisa ulertzen da (Narrillos, 2010), eta, beraz, enpresa edo jarduera batek sortutako gizarte-inpaktua neurtzeko eta komunikatzeko tresna bihur daiteke, enpresa edo jarduera horri diru-balio bat esleitzen baitio.

Hitz batez, metodologia hori aplikatzean, edozein kasutan, balio soziala unitate monetarioetan kuantifikatu nahi da, beste edozein eremu ekonomikotan bezala. Hori aplikatuta, datu berri eta garrantzitsuak lortzen dira, baliabideak esleitzeko erabakiak hartzeari begira. SROI metodologiarekiko interesa jarduera-programak kudeatzeko orduan metrikek duten garrantziaren eta metrika horiek emaitzetan zentratzeko beharraren gero eta aintzatespen handiagoak bultzatu du, baina galdu-irabazien kontuek berezkoa duten ikuspegi konbentzionaletik haratago joanez. Gaineratu behar da SROIa kostu-onuraren analisiaren logikan oinarritzen bada ere, esplizituki diseinaturik dagoela erabakiak hartzeko, ikuspegi holistikoa kontuan hartuta, eta beharragatik inpaktu ekonomikoak, psikosozialak eta ingurumenekoak barne hartzen dituela.

Narrillosi (2012) jarraiki, bi SROI mota daude: atzera begirakoa eta etorkizuneko. Atzera begirakoaren bidez, iraganean sortutako balio soziala kalkulatu nahi da; hau da, erakundeak jarduera gauzatu du jada, eta, beraz, SROIren aplikazioak lehendik zeuden datuak erabiltzen ditu. Etorkizuneko SROIren kasuan, egungo egoera etorkizuneko egoera posible batekin alderatzen da; beraz, aurreikusitako aldaketak eta aurreikusitako jardueretatik erator daitekeen balio soziala aurreikusten dira.

Aztertzen ari garen kasuan, argi dago Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioa bat datorrela tresnaren atzera begirako bertsioarekin.

SROI metodologiaren aurkezpenarekin jarraitzeko, adierazi behar da hura aplikatzearen azken emaitza koefiziente bat kalkulatzeko datzala, aurreikusitako jarduerari edo programei esker sortutako balio soziala alderatuta, hura abian jartzeko erabilitako finantzaketari dagokionez. Koefizientea unitatea baino handiagoa/txikiagoa den kasuetan, esan daiteke fenomenoaren balio soziala eskatutako finantzaketa baino handiagoa/txikiagoa dela (Andrich eta Caracciolo, 2007; Ardvison et al., 2013).

SROI metodologiaren aplikazioa elkarri kateatutako bost faseko ikerketaprozesu sendo gisa deskribatu ohi da (EDUCO, 2016; Esnal, 2021):

1. *Stakeholders* edo interes-taldeak identifikatzea.
2. Ikusitako aldaketak behatzea: inputak (finantzaketa), outputak (egindako jarduerak) eta incomeak (jarduerak interes-talde bakoitzean duten eragina).
3. Aldaketen adierazleak edo neurriak definitzea.
4. Ondorio ekonomikoen tamaina.
5. SROI koefizientearen kalkulua.

Puntu honetara iritsita, lehen aipatutako hiru ikuspegiak kontuan hartuta, garrantzitsutzat jotzen dugu adieraztea SROIren gure erabileraren berezitasun bat dela programaren eraginak kuantifikatzea erabaki dugula, Gipuzkoako Foru Aldundiaren posizioan kokatuz, haren eragile nagusia baita. Uste dugu horrela kalkulaturako kuantifikazioa zuhurra izango dela, eta horrek erraztu egingo du programa bultzatzeko arduradunek kuantifikazioa kontuan hartzea (Hurstfield et al., 2007; Quezada eta Motos, 2017).

Hau da, guretik hurbil dagoen fenomeno sozial baten balorazio ekonomikoa egiteko helburuz argitaratutako azterlan askotan, SROIren balioak ikerketa honetan proposatutakoak baino askoz ere altuagoak direla esan arren, gure ustez, hartutako irizpidea arrazoizkoa da. Hori baieztatzeko oinarria da txosten honetan Bizitza Independenteterako Programaren alderdi psikologikoak, sozialak eta emozionalak modu zehatzean aztertu direla, eta, beraz, ikerketa horien alderdi kualitatiboei buruzko zenbait hurbilketa kuantitatibo onartzeak emaitzak handitzera behartuko gintuzkeela, lan honetarako hartuz gero. Azken finean, azpimarratu behar da atal honen hurbilketa metodologikoa zenbait lanetan SROI fiskal deritzonetik eratortzen dela, aipatutako programak kontu publikoetan duen eraginean ardazten baitu bere ikuspegia.

Aurreko atalean jasotako kontsiderazioetatik abiatuta, 71. taulan laburbiltzen da SROI metodologiaren lehen lau faseei buruzko informazioa, aztertutako Bizitza Independenteterako Programari dagokionez. Hau da, administrazio publikoen ikuspegia hartuta, identifikatutako *stakeholder* nagusietan ikusitako aldaketak aurkezten eta lotzen ditu taulak, bai eta programan parte hartzeagatik izandako aldaketak neurtzeko zehaztutako adierazleak ere. Adierazle horien egitura behar bezala egiaztatu da bai elkarturekin, bai programaren erabiltzaileekin, haiek baitira aztertutako fenomenoak sakon eta zehatz eza-gutzen dutenak.

58. taula. Bizitza Independenteterako Programa: Stakeholderrengan ikusitako al-daketaren adierazleak eta eragin ekonomikoa

| ALDAGAIAK                                                                                 | URTEKO GASTUAK<br>(inbertsio publikoa edo IP)               | ITZULKINA ( I ) |                   |                       |                              |                       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|-----------------|-------------------|-----------------------|------------------------------|-----------------------|
|                                                                                           |                                                             | PFEZ            | BEZ               | GIZARTE SEGURAN-TZA   | ABERAS-TASUN-EKARPE-NA       | BESTE ITZULKIN BATZUK |
| ERABILTZAILEARENTZAKO DIRU-SARRERAK                                                       |                                                             |                 |                   |                       |                              |                       |
| Aldundiak BIPn inbertitutako aurrekontua                                                  | Dirulaguntzak, zerga-salbuespenak                           | PFEZ            |                   |                       |                              |                       |
| Zeharka BIP finantzatu duten proiektuak finantzatzeko Aldundiak inbertitutako aurrekontua | Dirulaguntzak, zerga-salbuespenak                           | PFEZ            |                   | Prestazioaren arabera |                              |                       |
| Babestutako enplegua                                                                      | Dirulaguntzak, zerga-salbuespenak eta Gizarte Segurantzaren | PFEZ            |                   | Enpresa eta langileak | Enplegua                     |                       |
| Enplegua                                                                                  |                                                             | PFEZ            |                   | Enpresa eta langileak | Enplegua                     |                       |
| ERABILTZAILEARENTZAKO GASTUAK                                                             |                                                             |                 |                   |                       |                              |                       |
| GASTU ZEHATZAK                                                                            |                                                             |                 |                   |                       |                              |                       |
| Babes edo laguntza pertsonalerako gastua: soldatak                                        |                                                             | PFEZ            |                   | Enpresa eta langileak | Kontsumoa eta enplegu zuzena |                       |
| Tratamendu medikoren / osasun-arretaren gastua                                            |                                                             | PFEZ            | BEZ               | Enpresa eta langileak |                              |                       |
| Sendagaiak eta bestelako osasun-produktuak erosteko gastua                                |                                                             |                 | BEZ               |                       |                              |                       |
| Laguntza-produktuak erosteko gastua <sup>6</sup>                                          |                                                             |                 | BEZa eta bereziak |                       |                              |                       |

<sup>6</sup> Honako hauek hartzen dira kontuan: gurrpil-aulki elektrikoa, eskuzko gurrpil-aulkia, garabia (mugikorra), sabai-garabia, dutxa-aulkia, ohe artikulatua, ohiko etxebizitza egokitzeko obrak, etxebizitzaren eraikina irisgarri egiteko obrak (igogailua, ataria...), ibilgailua egokitzea eta abar.

| ALDAGAIK                                                                                                                               | URTEKO<br>GASTUAK<br>(inbertsio<br>publikoa edo<br>IP) | ITZULKINA ( I ) |     |                            |                                         |                             |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|-----------------|-----|----------------------------|-----------------------------------------|-----------------------------|
|                                                                                                                                        |                                                        | PFEZ            | BEZ | GIZARTE<br>SEGURAN-<br>TZA | ABERAS-<br>TASUN-<br>-EKARPE-<br>NA     | BESTE<br>ITZULKIN<br>BATZUK |
| KONTSUMOAREN GASTUAK                                                                                                                   |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Elikagaien eta edarien<br>gastua                                                                                                       | Urteko<br>gastu<br>agregatuak                          |                 | BEZ |                            | Kontsu-<br>moa eta<br>enplegu<br>zuzena |                             |
| Jantzien eta oineta-<br>koen gastua                                                                                                    |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Etxebizitza-gastua<br>(alokairua, hornidura,<br>ura, elektrizitatea,<br>gasa, Internet, komu-<br>nitatea)                              |                                                        | PFEZ            |     |                            |                                         |                             |
| Altzarien eta etxe-<br>ko ekipamenduaren<br>gastua eta etxebizitza<br>kontserbatzeko gastu<br>arruntak                                 |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Garraiorako gastua<br>(autobusa, trena,<br>taxia...)                                                                                   |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Gastua aisialdian,<br>ikuskizunetan eta kul-<br>turan (ekitaldiak, era-<br>kusketak, museoak,<br>kontzertuak, zinema,<br>antzerkia...) |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Prestakuntza-gastua                                                                                                                    |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Gastua ostalaritzan,<br>oporretan, bidaietan...                                                                                        |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |
| Beste batzuk (PC,<br>tableta...)                                                                                                       |                                                        |                 |     |                            |                                         |                             |

Iturria: Guk geuk egina, Huete eta Quezadaren (2014) datuetan oinarrituta.

Lehenik eta behin, aldagai guztiak kuantifikatzea proposatzen da, denbora-erreferentziatzat urtea hartuta. Bestalde, adierazi behar da azterlana programaren 18 erabiltzaile elkarriketatuetara mugatzen dela.

Aldagaiei buruzko lehenengo zutabean, zenbatespena egin ahal izateko kontabilizatzen diren kontzeptuak zerrendatzen dira:

Lehenengo blokean, programaren erabiltzaileentzako diru-sarrera dakarten partidak kontabilizatu dira, onuradun izateagatik. Kontuan izango dira hurrengo aldagaiak:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizitza Independenteterako Programan inbertitutako aurrekontua.
2. Zeharka BIP finantzatzen duten proiektuetan Gipuzkoako Foru Aldundiak inbertitutako aurrekontua; kasu honetan laguntzaile pertsonalentzako prestazio ekonomikoa, laguntza teknikoak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua hartzen dira kontuan.
3. Enplegua (babestua edo ez): erabiltzaileak enpleguaren bidez lortutako diru-sarrerak.

Bigarren blokean, programaren erabiltzaileentzako gastuak kontabilizatu dira. Kasu honetan, kontuan hartutako gastuak bi ataletan banatu ditugu:

1. Gastu zehatzak, gizarte-segurantzaren, zeharkako zergen edo aberastasun-ekarpenaren bidez administrazioaren itzulkina kalkulatu ahal izateko; erabiltzaileentzako laguntza-zerbitzuei dagozkienak izango lirateke:
  - I. Babes edo laguntza pertsonalerako gastuak
  - II. Tratamendu medikoaren / osasun-arretaren gastuak
  - III. Sendagaiak eta bestelako osasun-produktuak erosteko gastuak
  - IV. Laguntza-produktuak erosteko gastuak

Atal honetan, betetako galdetegietatik lortu da informazioa (IV. eranskina eta programaren erabiltzaileei egindako elkarrizketak). Laguntza-produktuak erosteko gastuei dagokienez, dagokion taulan agertzen direnak hartu dira kontuan. Kasu honetan, erabiltzaileen baliabideetatik ordaindutako zenbatekoak zenbatu dira, hau da, Osakidetza, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta abarren laguntzak kenduta. Produktuen amortizazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Osakidetza proposatzen duten bizitza erabilgarriaren<sup>7</sup> arabera kalkulatu da.

2. Kontsumo-gastuak, zeharkako zergen bidez administrazioarako itzulkina zenbatesteko.

71. taulan jasotako informazioaren deskribapenarekin jarraituz, lehenengo zutabearen definitutako aldagaietarako urteko gastuen zenbatespena jaso nahi da bigarren zutabearen.

Azkenik, hirugarren zutabearen, Administrazio Publikora (kasu honetan, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundira) zerga-bilketaren bidez (PFEZ Pertsona Fisi-

---

<sup>7</sup> Laguntza-produktu hori erosteko aurretik egindako dirulaguntza-eskaeraz geroztik igaro behar den denbora-tartea. Produktuaren «bizitza erabilgarriaren» baliokidea litzateke.

koen Errentaren gaineko Zerga eta BEZ Balio Erantsiaren gaineko Zerga), gizarte-segurantzako kotizazioen bidez eta ikusitako fenomenotik eratorritako aberastasun-ekarpenaren bidez itzultzen diren zenbatekoak islatu nahi dira.

59. taula. Osakidetzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gastu zehatzetarako eskura dituzten dirulaguntzak

|                                                             | OSAKIDETZAREN DIRULAGUNTZA     |                  | GFAREN DIRULAGUNTZA            |                  |
|-------------------------------------------------------------|--------------------------------|------------------|--------------------------------|------------------|
|                                                             | Produktu hau barne hartzen du? | Gutxieneko aldia | Produktu hau barne hartzen du? | Gutxieneko aldia |
| Gurpildun aulki elektrikoa                                  | BAI                            | 5 urte           | BAI                            | 6 urte           |
| Eskuzko gupil-aulkia                                        | BAI                            | 3 urte           | BAI                            | 6 urte           |
| Garabia (mugikorra)                                         | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Polipastoa (sabai-garabia)                                  | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Dutxa-aulkia                                                | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Ibilgailua egokitzea                                        | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Ohe artikulatua                                             | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Bainugela edo etxeko beste edozein gela egokitze lanak      | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Eraikina irisgarri egiteko lana (igogailua, portala, etab.) | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Bestelakoak (parte-hartzaileek emandako erantzunak)         |                                |                  |                                |                  |
| Eskaren aurkako koltxoia                                    | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Eskaren aurkako kuxina                                      | BAI                            | 1,5 urte         | EZ                             |                  |
| Etxebizitza domotizatzea                                    | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |
| Sistema informatikoa                                        | EZ                             |                  | BAI                            | 6 urte           |

Iturria: Guk geuk egina, elkartuk emandako datuetan oinarrituta.

## 60. taula. Kontabilizatutako kontsumo-gastuen tipologia

| KONTSUMO-GASTU MOTAK                                                                                                |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Elikagaien eta edarien gastua                                                                                       |
| Jantzien eta oinetakoen gastua                                                                                      |
| Etxebizitza-gastua (alokairua, hornidura, ura, elektrizitatea, gasa, Internet, komunitatea)                         |
| Altzarien eta etxeko ekipamenduaren gastua eta etxebizitza kontserbatzeko gastu arruntak                            |
| Garraiorako gastua (autobusa, trena, taxia...)                                                                      |
| Gastua aisialdian, ikuskizunetan eta kulturen (ekitaldiak, erakusketak, museoak, kontzertuak, zinema, antzerkia...) |
| Prestakuntza-gastua                                                                                                 |
| Gastua ostalaritzan, oporretan, bidaietan...                                                                        |
| Beste batzuk (PC, tableta...)                                                                                       |

Iturria: guk geuk egina.

Xehetasunez, kontzeptuak kalkulatzeko, honako jarraibide hauek jarraitu dira:

- i. PFEZ: *Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergak Aitortzeko Eskuliburuan* (2021) laburbiltzen diren foru-arauak hartzen dira kontuan. Zehazki, karga-tasei eta kuotaren kenkariari buruzko informazioa eskatu da, bai subjektu pasibo guztiei aplikatzekoa, bai desgaitasun handia aitortzetik eratorritakoa. Era berean, aitorpena aurkeztera behartuta ez dauden erabiltzaileek aukera horri heldu diotela kontuan hartu da (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2021).
- ii. BEZa: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen edukiari jarraitzen zaio, bai eta Zerga Agentziak editatutako *BEZ eskuliburu praktikoa 2021* jasotako aldaketa ugariei ere. Horregatik, lan honetan % 4ko karga-tasa aplikatzen da gastu espezifikoetarako, salbuetsitako zerbitzuetarako izan ezik (tratamendu medikoak), eta % 21ekoa kontsumo-gastuetarako, elikadura-gasturako izan ezik, horri % 10eko tasa murriztua aplikatzen baitzaio.



- iii. Gizarte Segurantzako kotizazioak<sup>8</sup>: gertakari arruntengatiko % 28,3ko kotizazio-tasa hartu da kontuan, % 23,6 enplegatzailearen kontura eta % 4,7 langilearen kontura.
- iv. Aberastasun-ekarpena<sup>9</sup>: Inpaktuaren biderkatzaileak deritzonak kuantifikatzea da. Hau da, produkzio-sektoreen artean izandako interakzioak ebaluatu nahi dira, sektore baten eskaria handitzeak beste sektore batzuetan ere handitzea dakarrelako. Gure xedeari dagokionez, Zubiri et al. (2007) autoreen lan sakonetik mendekotasuna duten adinekoen gastuaren Gipuzkoako itzulkin-tasaren zenbatespena (% 45,4) hartu dugu erreferentzia gisa. Ez dugu arrazoirik ikusten tasa horrek programaren erabiltzaileen kolektiboarekiko duen balioan aldeak aintzat hartzeko (54. or.).

SROI metodologiaren lehen lau faseei buruzko alde zurreko gogoeta guztiak kontuan hartuta, adierazi behar da metodologia honen bosgarren faseak honako formula hau erabili duela SROI indizea kalkulatzeko:

---

**Inbertsio Publikoa (IP)** = GFAk Bizitza Independenteterako Programan inbertitutako aurrekontua, zuzenean edo zeharka

**Itzulkina (I)** = bildutako zergak batuta, gizarte-segurantzako kotizazioak eta lurraldeari egindako aberastasun-ekarpenak

$$SROI = [I/IP] \times 100$$

---

Indize horrek, azkenean, Bizitza Independenteterako Programan inbertitutako 100 euroko, administrazio publikoetara zenbateko itzulkina joaten den zenbatetsiko du, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundira.

---

<sup>8</sup> Kontsiderazio hori 2021ean aplikagarria den Gizarte Segurantzako Etxeko Langileentzako Sistema Be-reziaren ezaugarrietan oinarritzen da (<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/CotizacionRecaudacionTrabajadores/10721/10957/2222/2225>).

<sup>9</sup> Zehaztapen metodologikoetan sartu gabe, UPV/EHUko Ogasun Publikoko katedradun Ignacio Zubiriren taldeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna duten adinekoei ematen zaien laguntzaren eragin ekonomikoa aztertzeko erabiltzen duen metodologia laburbilduko dugu, honako zertzelada hauek aurkeztuz. Egileek uste dute eragin ekonomikoa kalkulatzeko modurik egokiena input-output taulak (IOT) erabiltzea dela. IOTek lurralde bateko jarduera-sektoreen artean dauden loturak jasotzen dituzte, eta tokiko edo beste lurralde batzuetako produkzioarekin asetzen diren barne-kontsumoen zatia kalkulatzeko. Gipuzkoak ez dituenez IOT horiek, egileek hasiera batean EAEko IOTak erregionalizatzearekin zioten, semi-survey metodoari jarraituz. Ikerketaren hurrengo fasean, fenomenoaren inpaktuaren biderkatzailea neurtzen dute. Horrela, sortutako ondorio zuzenari (Gipuzkoan eskaria handitzea mendekotasuna duten adinekoentzako asistentziaren sektorean) zeharkako eragina (beste sektore batzuetan sortutako eskariaren hazkundera) eta biztanleriaren errenta orokorraren igoerak eragindako eragina gehitzen dizkiote, azken horrek, aldi berean, sektore guztien eskaria handituko baitu. Jakina, ondoko ondoko interakzioen inpaktuak beharrezko intentsitatea erakutsiko du, eta prozesuak bat egingo du. Azkenik, jarduera ekonomikoaren hedapen orok biderkatzaile bat eragingo du (Zubiri et al., 2007).

## 6.3 EMAITZAK

Gipuzkoako Administrazioarentzako gastuen eta diru-sarreraren partida nagusien artean Programaren ondorioz dauden erlazioak zehaztu ondoren, adierazleak Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako bigarren mailako datuekin elikatu ziren (batez ere, Programa mantentzeko aurrekontua).

Halaber, programaren hemezortzi erabiltzaileei sakoneko elkarrizketak eginez elkartutako lortutako datuekin ere elikatu ziren; lehenago deskribatu dugu prozesu hori. Elkarrizketen bidez bildutako lehen mailako datuak behar bezala berrikusi, garbitu eta batu ziren.

Horren guztiaren ondorioz, honako balio hauek lortzen dira erabilitako adierazleetatik:

61. taula. Bizitza Independenteterako Programatik eratorritako fluxu ekonomikoak

| ALDAGAIK                                                                                  | URTEKO GASTUAK<br>(inbertsio publikoa edo IP) | ITZULKINA ( I ) |      |                     |                        |                       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------|-----------------|------|---------------------|------------------------|-----------------------|
|                                                                                           |                                               | PFEZ            | BEZ  | GIZARTE SEGURAN-TZA | ABERAS-TASUN-EKARPE-NA | BESTE ITZULKIN BATZUK |
| ERABILTZAILEARENTZAKO DIRU-SARRERAK                                                       |                                               |                 |      |                     |                        |                       |
| Aldundiak BIPn inbertitutako aurrekontua                                                  | 282,377,17 <sup>10</sup>                      | 0,00            | 0,00 | -                   | 0,00                   | -                     |
| Zeharka BIP finantzatu duten proiektuak finantzatzeko Aldundiak inbertitutako aurrekontua | 534.181,72 <sup>11</sup>                      | 52.320,00       | 0,00 | -                   | 0,00                   | -                     |
| * laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoa                                         |                                               |                 |      |                     |                        |                       |
| * Laguntza teknikoak                                                                      |                                               |                 |      |                     |                        |                       |
| * Etxez etxeko laguntza zerbitzua                                                         |                                               |                 |      |                     |                        |                       |
| Babestutako enplegua                                                                      | 0,00                                          | 0,00            | 0,00 | 0,00                | 0,00                   | -                     |
| Enplegu arrunta                                                                           | 0,00                                          | 0,00            | 0,00 | 0,00                | 0,00                   | -                     |

<sup>10</sup> GFAk emandako informaziotik abiatuta, gutxi gorabehera 15.687 €-ko kostua kalkulatzen da erabiltzaile bakoitzeko.

<sup>11</sup> Erabiltzaileek elkarrizketa sakonetan emandako datuetatik abiatuta.

| ALDAGAIK                                                                                                                              | URTEKO GASTUAK<br>(inbertsio publikoa edo IP) | ITZULKINA ( I ) |           |                            |                                |                             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------|-----------------|-----------|----------------------------|--------------------------------|-----------------------------|
|                                                                                                                                       |                                               | PFEZ            | BEZ       | GIZARTE<br>SEGURAN-<br>TZA | ABERASTA-<br>SUN-EKAR-<br>PENA | BESTE<br>ITZULKIN<br>BATZUK |
| ERABILTZAILEAREN GASTUAK                                                                                                              |                                               |                 |           |                            |                                |                             |
| GASTU ZEHATZAK                                                                                                                        |                                               |                 |           |                            |                                |                             |
| Babes edo laguntza pertso-<br>nalerako gastua: soldatak (*)                                                                           | 317.883,84                                    | 0,00            |           | 89.961,13                  | 144.319,26                     |                             |
| Tratamendu medikoaren /<br>osasun-arretaren gastua                                                                                    | 14.232,00                                     |                 | 0,00      |                            | 6.461,33                       |                             |
| Sendagaiak eta bestelako<br>osasun-produktuak erosteko<br>gastua                                                                      | 8.400,00                                      |                 | 336,00    |                            | 3.813,60                       |                             |
| Laguntza-produktuak /<br>ortopedia / gurgil-aulkiak,<br>garabia, ohe artikulatua...<br>erosteko gastua                                | 51.883,34                                     |                 | 2.075,33  |                            | 23.555,04                      |                             |
| KONTSUMOAREN GASTUAK                                                                                                                  |                                               |                 |           |                            |                                |                             |
| Elikagaien eta edarien<br>gastua                                                                                                      | 64.680,00                                     |                 | 6.468,00  |                            | 29.364,72                      |                             |
| Jantzien eta oinetakoen<br>gastua                                                                                                     | 13.800,00                                     |                 | 2.898,00  |                            | 6.265,20                       |                             |
| Etxebizitza-gastua (alokairua,<br>hornidura, ura, elektrizitatea,<br>gasa, Internet, komunitatea)                                     | 75.240,00                                     |                 | 15.800,40 |                            | 34.158,96                      |                             |
| Altzarien eta etxeko eki-<br>pamenduaren gastua eta<br>etxebizitza kontserbatzeko<br>gastu arruntak                                   | 7.920,00                                      |                 | 1.663,20  |                            | 3.595,68                       |                             |
| Garraiorako gastua (auto-<br>busa, trena, taxia...)                                                                                   | 6.420,00                                      |                 | 1.348,20  |                            | 2.914,68                       |                             |
| Gastua aisialdian, ikuskizu-<br>netan eta kulturaren (ekital-<br>diak, erakusketak, museoak,<br>kontzertuak, zinema,<br>antzerkia...) | 9.000,00                                      |                 | 1.890,00  |                            | 4.086,00                       |                             |
| Prestakuntza-gastua                                                                                                                   | 3.480,00                                      |                 | 730,80    |                            | 1.579,92                       |                             |
| Gastua ostalaritzan, oporre-<br>tan, bidaietan...                                                                                     | 25.300,00                                     |                 | 5.313,00  |                            | 11.486,20                      |                             |
| Beste batzuk (PC, tableta...)                                                                                                         | 9.516,00                                      |                 | 1.998,36  |                            | 4.320,26                       |                             |

Iturria: Guk geuk egina

Azkenik, ikerketa honen emaitza nagusi gisa, ondorioztatu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizitza Independenteterako Programan inbertitutako euro bakoitzeko, 56,2 zentimoko itzulkina sortzen dela.

**62. taula. SROIren zenbatespena Gipuzkoako Bizitza Independenteterako Programarako**

|                  |            |
|------------------|------------|
| <b>IP</b>        | 816.558,89 |
| <b>ITZULKINA</b> | 458.936,48 |
| <b>SROI</b>      | % 56,20    |

Iturria: Guk geuk egina.

## 6.4. ONDORIO GISA

Bizitza Independentearen Programa ikuspegi ekonomikotik ebaluatzeko egindako ikerketa diseinatu eta erabili ondoren, honako ondorio hauek nabarmendu nahi ditugu, testuinguruari eta metodologiari dagokienez, bai eta diseinatutako neurketa-tresnen eta erabilitako lehen eta bigarren mailako datuetatik lortutako emaitzen behaketari dagokionez ere:

- Mota guztietako gizarte-programen alderdi ekonomikoak lantzeko metodologia nagusia Social Return on Investment (SROI) da, kontsultatutako literatura akademikoaren eta grisaren arabera. Ebaluatu beharreko fenomenoaren ezauzgarriak kontuan hartuta, SROI metodologiaren atzera begirako bertsioa aplikatzea erabaki da.
- Egoki deritzogu programaren eraginak zuhurtiaz kuantifikatzeari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lekuan kokatuz, programako eragile nagusia baita, eta horrek erraztu beharko luke baliabide hau bultzatzeko ardura dutenek ikerketa hori kontuan hartzea.
- Azkenik, ikerketa honen emaitza nagusi gisa, kalkulatzeko da Gipuzkoako Foru Aldundiak programan inbertitutako euro bakoitzeko 56,2 zentimoko itzulkina sortzen dela, eragindako diru-bilketaren igoeraren bidez.

# III. zatia

## — Bizitza Independenterako Programa eta genero-ikuspegia

### 7. GENERO-IKUSPEGIA

- 7.1. Genero-berdintasunaren arau-oinarriak desgaitasunaren arloan
- 7.2. Genero-azterketa Bizitza Independenterako Programaren ebaluazioan

## — 7. Genero-ikuspegia

### 7.1. GENERO-BERDINTASUNAREN ARAU-OINARRIAK DESGAITASUNAREN ARLOAN

Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioak desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten askotariko diskriminazioa jorratu du nahitaez. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak berak formalki aitortzen du errealitate hori, zera jasotzen baitu: *«Estatu kideek onartzen dute desgaitasuna duten emakumeek eta neskek diskriminazio mota ugari jasaten dituztela»*. Egoera horren ondorioz, hainbat neurri behar dira, desgaitasuna duten emakumeen aukera-berdintasuna eta erabateko parte-hartzea bermatzeko. Horretarako, beharrezkoa da askotariko diskriminazio-egoera hori objektiboki zehazteko aukera emango duten azterlanak bultzatzea, jarduteko politika publikoak definitzeko lehen urrats gisa.

Diskriminazioko faktore pertsonalak, familiakoak eta sozialak bateratzeak eragin erabakigarria du desgaitasun fisikoa duten emakumeengan eta haien diskriminazio-modu anitzetan. Bereziki, desgaitasun larriak dituzten emakumeen kasuan gertatzen da, ikasteko eta komunikatzeko zailtasunak gehitzen bazaizkie, eta talde honek bazterkeria-egoeran edo -arriskuan egoteko arrisku handiagoa du, bai eta isolamendu- eta pobrezia-arriskuan egotekoa ere. Era berean, gizarte-laguntzarik ezak, irisgarritasunik ez egoteagatik zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak, edo informazio eta prestakuntza eskasak lan ordaindua eskuratzeko arriskua areagotu baino ez dute egiten, eta, ondorioz, desgaitasuna duen emakumearen mendekotasun ekonomiko handiagoa dakar, gizarte kapazitista baten esparruan.

Ebaluazioak genero-gaiari heldu dio, kontuan hartuta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Komiteak, desgaitasuna duten emakume eta neskei buruzko 3. Behaketa Orokorrean, estatu kideen betebeharra ezartzen duela *«desgaitasuna duten emakumeen egoerari buruzko ikerketa espezifikokoak egitea sustatzeko, bereziki, emakume horiei garatzea, aurrera egitea eta indartzea eragotzen duten oztopoei buruzko ikerketak»*.

Ilde horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hau ezartzen du 16. artikuluan:

*«lege honetan zehazten diren xedapenak betetzeko eta genero-ikuspegia eguneroko jardueran benetan integratzen dela bermatzeko, euskal herri-aginteek beren azterlanak eta estatistikak egiterakoan honakoak egin behar dituzte: egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartu» eta «beste aldagai batzuen eragina ezagutzea posible egiteko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok ager-*

*tzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku hartze-ko eremuetan».*

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planak ere gai horri heltzen dio, gobernu onerako programa eta neurrien artean «estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea» sartzen baitu. Halaber, Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren helburuen artean dago «GFAren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea».

Genero-tratamenduaren eta desgaitasunaren ikuspegiak ere ezin ditu oinarrizko tresnak alde batera utzi, hala nola Europar Batasuneko desgaitasuna duten emakumeen eta neskatoen eskubideei buruzko 2. agiria. Aktibista eta arduradun politikoentzako tresna bat da, Emakumeen Batzordeak proposatua eta Desgaitasunaren Europako Foroaren Batzar Nagusiak Budapesten onartua 2011ko maiatzaren 28 eta 29an. Bertan adierazten dira desgaitasunaren arloko legegintza-xedapen politiko eta ekimen guztiak, «Europar Batasunean zein estatu kideetan egiten dituzten salaketei eta epai judizialetako edukiei jaramon eginez. Diskriminazio-ezari eta aukera-berdintasunari buruzko ikerketa eta txosten guztietan, kontuan hartu beharko dira sexuarekin eta desgaitasunarekin lotutako adierazleak» (CERMI eta EDF, 2011: 29-30).

*«Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken kasuan, gizarte-bazterkeriaren adierazle aitortuen aldaketei buruzko Europa eta nazio mailako ikerketak babestu eta finantzatu behar dira; besteak beste, desabantaila sozioekonomikoak, gizarte-isolamendua, landa-faktorea, diskriminazio-modu anitzak, emakumearen aurkako indarkeria, esterilizazio eta abortu behartuak, zerbitzu komunitarioetarako sarbiderik eza, etxebizitzaren kalitate eskasa, instituzionalizazioa, osasun-arreta desagokia edo gizartean modu aktiboan laguntzeko eta parte hartzeko aukera ukatzea». Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioa. (2022). Estrategia española sobre discapacidad 2022-2030. Para el acceso, goce y disfrute de los derechos humanos de las personas con discapacidad.*

## 7.2. GENERO-AZTERKETA BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOAN

Beraz, Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioa egiterakoan, ezin bestela izan, aldagai hori kontuan hartu da aztergai diren arlo guztietako adierazle guzti-guztietan. Metodologiaren ikuspegitik, adierazi behar da pertsonak erabaki dutela ebaluazioan parte hartzea. Beraz, landutako laginean ez dago gizon eta emakume kopuru berdinek. Kontuan izan behar da, halaber, hainbat zirkunstantzia direla medio, bi emakumek ez dutela parte hartu ebaluazioaren dimentsio kualitatiboari heltzeko diseinatutako elkarrizketa pertsonalen fasean.

Adierazitakoa oinarri hartuta, Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioan aztertu diren hainbat eremutako generoaren aldagaiaren azterketaren alderdirik esanguratsuenak adieraziko ditugu jarraian:

- **Egoera zibilar**i dagokionez (3. taula), nabarmentzekoa da ebaluazioan parte hartu duten emakumeen % 25,0 ezkontuta daudela edo bikotekidea dutela, eta gizonen kasuan, berriz, % 60,0. Horrek erakusten du desgaitasuna duten emakumeek zailtasun handiagoa dutela beren bizikidetzako edo familia-unitatea eratzeke. Era berean, emakumeen kasuan, % 100,0 desgaitasuna duten pertsona batekin ezkontuta edo bikotean daude, eta gizonen kasuan, berriz, % 33,3. Horrek erakusten du gizartean desgaitasuna duen emakumeari emandako rola eta haiei buruz dauden mito eta tabuak.
- Ildo beretik, **bizikidetzaren erregimenari** dagokionez (IX. eranskineko 9. taula), ebaluazioan parte hartu duten eta desgaitasuna duten emakumeen % 50,0 bakarrik bizi dira, eta gizonen artean, berriz, % 20,0. Ezkontide edo bikotekide batekin bizi diren emakumeak gutxiago direlako gertatzen da hori, baita laguntzaile pertsonalarekin ere.
- Bizi diren **etxebizitzari buruzko erregimeneko** datuek (7. taula) erakusten dutenez, emakumeen % 37,5ek merkatu librean erositako edo alokatutako etxebizitzetan hartzen dute ostatu, eta % 62,5ek babes publikoko etxebizitzetan, jabetzakoak zein alokatzekoak. Gizonen artean, merkatu libreko etxebizitzetan bizi direnen ehunekoa % 50,0 da, eta ehuneko bera, babes-tutako merkatuan. Beraz, ikusten da desgaitasun fisikoa duten emakumeek mendekotasun handiagoa dutela etxebizitza-politika publikoekiko, merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko itxaropen txikiagoa dutelako.
- **Prestakuntza-mailari** dagokionez (9. taula), datuek desgaitasun fisikoa duten emakumeen hezkuntza-maila txikiagoa dela erakusten dute; izan ere, emakumeen % 50,0k lehen mailako ikasketak amaitu ditu soilik, eta gizonen artean, aldiz, % 30,0k.
- **Diru-sarrera pertsonalen mailan** ere (11. taula), desgaitasun fisikoa duten gizonen egoera onuragarriagoa da emakumeena baino; emakumeen % 12,5ek ditu 2.000 eurotik gorako diru-sarrerak hilean, eta gizonen artean, berriz, % 40,0k. Izan ere, gizonek lan-merkatuan sartzeko aukera handiagoa dute, eta, ondorioz, baliaezintasun handiko lan-ezintasun iraunkorreko pentsioa jasotzen dute ondoren.
- Bizitza independentearen proiektuari hasiera emateko, emakumeen **erresistentzien pertzepzioa** (14. taula) pixka bat handiagoa zen (% 37,5) gizonekoena baino (% 30). Errealitate horrek lotura du sozialki emakumeei esleitutako rolaekin, eta desgaitasuna duten emakumeen kasuan areagotu egiten da, gehiegizko babesean oinarritutako jarrerak bizi baitituzte.



- Programan parte hartzen duten eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek gizonen baino **laguntza-ordu** gehiago behar dituzte (21. taula); izan ere, emakumeen % 62,5ek laguntza pertsonaleko zerbitzuko 8 ordu baino gehiago jasotzen dituzte, eta gizonen artean, aldiz, % 30,0k. Laguntzen intentsitate handieneko muturrean, emakumeen % 25,0k 24 orduko laguntza behar du egunean, eta gizonen kasuan, berriz, % 10,0k.
- **Laguntza pertsonalaren xede diren jardueri** dagokienez (IX. eranskinen 33. taula), nabarmentzekoa da emakumeen kasuan % 37,5ek etxean soilik jasotzen duela laguntza, eta gizonen kasuan, berriz, % 10,0k. Alderdi horrek eragin negatiboa izan dezake bizitza independentea izateko eskubidean eragin dezakeen gizarteratze-prozesuan eta parte-hartze sozialean.
- Desgaitasun fisikoa duten emakumeek zaugarritasun handiagoa dute **nahi gabeko arrazoiengatik laguntzaile pertsonala aldatzearen** aurrean (23. taula); izan ere, emakume guztiek jasan dute egoera hori, eta gizonen % 20,0k, berriz, ez du inoiz horrelakorik bizi izan. Era berean, emakumeen % 75,0k 3 aldiz baino gehiagotan aldatu behar izan du laguntzaile pertsonala, eta gizonen ehunekoa, berriz, % 50,0 izan da.
- Desgaitasuna duten emakumeak (% 75,0) ere **laguntzaile pertsonala kale-ratu** behar izateko egoeran egon dira noizbait (24. taula), gizonena baino ehuneko handiagoan (% 62,5).
- Aurreko bi puntuekiko lotura estuan, nabarmentzekoa da desgaitasuna duten emakumeen % 62,5ek **gatazkaren bat izan duela laguntzaile pertsonalarekin** (25. taula), eta gizonen kasuan, berriz, % 40,0k.
- Programan parte hartzen duten eta desgaitasuna duten emakumeen % 50,0k **laguntza behar dute laguntza pertsonalarekin lotutako lan- eta ekonomia-kontuetarako** (26. taula); gizonen kasuan, berriz, ehunekoa % 20,0koa da. Horren arrazoia mota horretako kudeaketak ahalduztzeko aukera txikiagoa dela uler daiteke, eta, ondorioz, kanpoko agenteen laguntza behar dela (gestoria, elkartu, etab.).
- Ildo horretan, desgaitasuna duten emakumeek **aholkularitza-sare** handiagoa dute (30. taula) bizitza independenteko proiektua garatzeko; izan ere, % 87,5ek kanpoko erakunde baten laguntza dute (Gipuzkoako Foru Aldundia, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, elkartu, etab.), eta gizonen kasuan, berriz, % 40,0k.
- Laguntza horien artean dago **laguntza pertsonala bilatzea** helburu duena (31. taula). Programan parte hartzen duten emakumeen % 62,5ek eta gizonen % 40,5ek jaso dute laguntza hori.

Laburbilduz, Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioaren azterketatik ondorioztatzen da ez dagoela alde nabarmenik parte-hartzaileen generoaren ikuspegitik, aztergai diren eremuetan aurrez adierazitako alderdiak alde batera utzita. Are gehiago, ondoriozta daiteke programak genero-arra-kala arintzen duela, batez ere programan sartzeko eskatzen diren baldintzen-gatik (etxebizitza bat edukitzea, diru-sarreraren maila jakin bat, bizikidetza-uni-tate bat eratzea, etab.).

Horretan laguntzen du, halaber, programan sartzeko ahalduntze-maila handia behar izateak, bizitza independenteko proiektu bat diseinatu eta garatu ahal izateko. Egoera horrek aukera ematen du desgaitasuna duten emakumeen eta gizonen artean bizitzako hainbat alderditan dagoen aldea konpontzeko. Era berean, Programan sartzen diren desgaitasun fisikoa duten emakumeak egoera hobean daude desgaitasuna duten gainerako emakumeekin alderatuta, baliabide jakin batzuk dituztelako (etxebizitza, ekonomia, laguntza per-sonala, etab.), eta horiek desgaitasuna duten emakumeek izan ohi duten zaugarritasun bereziko egoera leuntzen dute.

# IV. zatia

## — Programaren ebaluazioaren dimentsio kualitatiboa

### 8. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK: ANALISI KUALITATIBOA

- 8.1. Bizitza Independenteterako Programan sartzea eta horri buruzko informazioa
- 8.2. Harremana instituzioekin
- 8.3. Laguntza-baliabideen beharra
- 8.4. Bizitza Independenteterako Programari buruzko iritziak
- 8.5. Bizitza Independenteterako Programa eta bizi-ibilbidea
- 8.6. AMIA matrizea: parte-hartzaileek programaz egindako balorazioa

## — 8. Bizitza Independententerako Programan parte hartzen duten pertsonen egindako elkarrizketak: analisi kualitatiboa

Egindako ebaluazio-galdetegien bidez lortutako erantzunak hobeto ulertzeko eta egiaztatzeko, elkarrizketa sakonak egin ziren. Ikerketa honetan parte hartu duten 18 pertsonetatik 16k hartu dute parte elkarrizketetan.

Erantzunak identifikatutako hainbat analisi-kategorien inguruan antolatu dira: informazioa eta programa eskuratzeko aukera balioestea, laguntza-baliabideak behar izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako arretaren balorazioa, Bizitza Independententerako Programari buruzko iritziak, eta nolakoa izango ote zen parte-hartzailearen bizitza programa honetara iristerik izan ez balu. Ondoren, jasotako erantzun batzuk eskaintzen dira, parte-hartzaileen sentimendua eta estimazioa islatzen dutenak.

### 8.1. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAN SARTZEA ETA HORRI BURUZKO INFORMAZIOA

Orokorrean, Bizitza Independententerako Programako parte-hartzaileek beharrezkoa ikusten dute programa gehiago ezagutaraztea. Era berean, adierazi dute zenbait zailtasun daudela eskaera izapidetzeko orduan, eta, beraz, ego-ki deritzote prozesuan laguntza-baliabide bat egoteari: «Eskatu nahi nuke programa daramanak, edo gaia ezagutzen duen norbaitek, hasieratik laguntza ematea eta babestea, sartzeko prozesua errazagoa izan dadin» (V18). Ildo horretan, elkarrizketatutako beste batek dio garrantzitsua dela «norbaitek programa planteatzen laguntzea, beharrezko orduak antolatzea...askotan ez dakigu oso ondo zer egin nahi dugun, (...) batzuetan asmatu eta besteetan huts egiten dugu, probatu eta horren arabera antolatzen gara» (V19). Hori bereziki zaila da; izan ere,

*«proiektua aurkeztean, ez dakizu zer sartuko den eta zer ez (...) eta baliteke jendea galduta sentitzea une horretan. Proiektua idaztean, ez zarenez era independentean bizi izan, ez dakizu nola egokitu laguntza-orduak (ez dakizu zer beharko duzun). Programan sartzeko onartzen zaituztenean, diru kopuru bat iristen zaizu. Baina ez dizute esaten zergatik iritsi zaizun kopuru hori. Gainera, ez dute zehazten zertarako den edo zertarako erabil daitekeen (zereginak, jarduerak...)» (V11).*

Iradokizun gisa, prozedurarako eta eman beharreko urratsetarako formularioak egotea proposatzen dute, eta baita «programari buruz galderak egiteko leku bat» ere (V15). Beste batzuentzat, erabilgarria litzateke gida bat izatea, beha-

rrezkoa den egoeretarako, zalantzak argitzeko eta ematen zaien arretaren ikuspuntua aldatzeko:

*«Langile bat kaleratu behar duzunean, horrek zer dakarren jakitea. Badirudi guztiok jakin behar dugula jazotzen den guztiari buruz, kontratazioari buruz, lan-baldintzei buruz... (...) Dirudienez, mundu guztiak egiten du bere ekarpena, eta guri buruz idazten dute eta guk laguntzea ahalbidetzen diegu. Benetan inplikaturakook parte hartu behar dugu. (...) Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duenak bere bizitzaren jabe izan behar du, erabakiak hartu, eta horrek zuzenean izan behar du» (VI1).*

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek programa ez ezagutzeak inplikazio handiak ditu, elkarrizketatutako pertsonen ustez. Honelako iritziak dituzte: «Normalean, ez dute programa edo hari lotutako ezer ere ezagutzen» (VI8), «Ni joan nintzenean, inork ere ez zuen ezagutzen» (VI9) edo beste batean, «Programari buruzko informazio gehiago egotea, gizarte-zerbitzuek programa ezagutzea, beste baliabide baten gisa aurkeztu ahal izateko. Hori ez da gertatzen» (VI16). Elkarrizketatuek uste dute oinarrizko gizarte-zerbitzuak ezinbestekoak eta funtsezkoak direla desgaitasuna duten pertsonen artean bizitza independentearen eredia sustatzeko. Horregatik, uste dute funtsezkoa dela programari buruzko prestakuntza sakontzea. Bien bitartean, honelako egoerekin egin dute topo:

*«Ez dute ezagutzen, eta nire kasuan, bazirudien ez zutela ezagutu nahi, eta elkarri ardura pasatzen ziotela (...). Egoera patetikoak ikusi izan ditut». (...) Profesionalei prestakuntza eman beharko litzaieke» (VI18).*

Gizarte-langileek «programari buruzko informazioa eman beharko lukete. Agian ezagutzen dute programa, baina oztopo asko jartzen dituzte. Horrekin baliteke norbaitek amore ematea eta ez saiatzea. (...) (Nik) 4 urteren ondoren lortu nuen, borrokatu eta gero» (VI11).

Irtenbide posible gisa, pertsona batek argudiatzen du «... laguntza teknikoen dekretuan kokatzen da, eta zerbitzuen zerrendan agertu beharko luke. Ondo mugatua eta zehaztua ager dadila, argi eta garbi azal dezala zer den programa» (VI15). Oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan eskubide subjektibo gisa sartzeak eta hori arau propio batean arautzeak aukera emango luke programa gehiago ezagutzeko eta pertsona gehiago sartzea sustatzeko.

Bestalde, elkarrizketatutako pertsonen % 92,9k uste zuen desgaitasuna duten pertsonak ez dutela behar bezala ezagutzen Bizitza Independenteterako Programa. Horietako batek zera dio:

*«Mendekotasun-laguntzekin sekulako loraldia egon zen, bitarteko guztien bidez eman zuten informazioa, jendeak ezagutzeko eta men-*

*dekotasunaren balorazioa egitea eskatzeko; Bizitza Independenteterako Programa, aldiz, ez da ezaguna, inork ez dizu aukera horri buruz hitz egiten Gizarte Zerbitzuetan, eta ez da kanpainarik edo beste ezer egin. Pertsona jakinarazi beharko litzaieke, behintzat programa eza-gutzeko. Nik ikusten dudanez, programa ez da ezaguna, eta parte-hartzaileak dira aditzera ematen dutenak. (...) Irakatsi egin beharko litzaieke, informazioa eman, aholkuak eman, parte hartu ahal izan de-zaten» (VI9).*

Zenbait pertsonak aipatzen dute, hura ezagutzeko, dagoeneko parte hartzen duen norbait ezagutu behar dela: *«Programa ezkutua da, programan bertan dauden pertsonengatik ezagutzen duzuna. Programa ez dago agendan. Ez da ezaguna»* (VI7).

## 8.2. HARREMANA INSTITUZIOEKIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak zeregin garrantzitsua betetzen du Bizitza Independenteterako Programan, bai programa arautzeko eta gauzatzeko duen eskumenagatik, bai desgaitasuna duten parte-hartzaileekin teknikari arduradunen artean harreman zuzena ezartzen duelako programarekin lotutako hainbat gaitan (eskaera, informazio- edo dokumentazio-errekerimenduak, bizitza independentearen proiektuaren aldaketak, etab.).

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta, bereziki, programako teknikariekin izandako harremanari buruz egiten den balorazioa positiboa da, parte-hartzaileekin harreman zuzena duen arduradun bat izendatzeak ematen duen gertutasunagatik, prestasunagatik eta erreferentzialtasunagatik. Honela kalifikatu dute harreman hori: *«...ona. Deitzen duzun bakoitzean erantzuten dizute»* (VI12), eta aipatu dutenez, *«(...) erraza da haiekin harremanetan jartzea. Oso harreman ona dut haiekin»* (VI16). Dena den, harremanetako arrisku potentziala ere aipatzen da, aipatutako langileak Administrazio Publikoaren funtzionamenduaren berezko zirkunstantziengatik ordezkatzeko dinamikak direla eta.

## 8.3. LAGUNTZA-BALIABIDEEN BEHARRA

Elkarrizketatutako pertsona guztiek uste dute laguntza-baliabide bat beharrezkoa dela programarekin lotutako hainbat alderditarako. Batez ere, garrantzi berezia ematen zaie laguntzaile pertsonala kontratatzearekin lotutako kudeaketa guztiei eta horrek dakartzan betebeharrei. Laguntza beharrezkoa da *«...gorabehera asko aurrezteko. Gauza asko egin behar dira, eta laguntzarik gabe egitea zaila da»* (VI5). Kontuan izan behar da, laguntzaileen kasuan, horiek aurkitzeko, *«...baliteke zure inguruan norbait ezagutzea, baina baliteke ezetz, eta nor kontratatu ez jakitea. Inguruan duzun sare sozialaren arabera da. Agian bakarrik zaude eta ez dakizu, eta inork ez dizu esaten ea poltsarik dagoen edo nora jo»* (VI5).

Laguntzari dagokionez, elkarrizketatutako pertsonen % 86,7k uste du beharrezkoa dela elkartu moduko erakunde batek era horretako funtzioak egin ahal izatea, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independenteko proiektu bat diseinatu eta gauzatu ahal izan dezaten. Egokitzen dute, izan ere:

*«...pertsonengandik gertu dagoen erakundea da, eta laguntza emateaz haratago, arreta ematen dute. Desgaitasun mota desberdinak kontuan hartzea, behar bezala komunikatzea, eta aholkularitza ego-kiagoa ematea. Programan zuloak eta hutsuneak daude, eta egoera horietan komeni da laguntza eta aholkularitza izatea» (VI18). Baina baliteke arazoa beste bat izatea: «elkartu ezagutarazi behar da, eta jakin zertan jarduten duen, informazio bila eta galderak egitera etor daitezkeela. Erakundea gehiago ezagutarazi behar da» (VI8).*

Elkarrizketatutako batek baloratuko luke elkartu prestatutako laguntzaile pertsonalak egotea (VI9). Beste lekukotza batek adierazi du «zalantzarik gabe» sartuko diren pertsonen laguntzeko funtzioa betetzen duela (VI15).

Laguntzaile pertsonalei dagokienez, elkarrizketatutako pertsonen % 93,3k adierazi du laguntza-baliabideren bat egon beharko litzatekeela, laguntzaile horiek bilatzeko. Batzuek zera diote: «...bilatzen hastean erotu egiten zara» (VI9).

Ohikoa da baliabide bat egotearen aldeko iritzia, eskatutako prestakuntza duten laguntzaile pertsonalez osatutako lan-poltsa gisa, desgaitasuna duten pertsonen profesional horiek kontratatzeke duten beharrari erantzun egokia ematea ahalbidetuko duena, baita aldi baterako edo premiazko egoeretan ere: «...lan-poltsa bat edo kontratazioarako laguntza-gune bat egon beharko litzateke baja, opor eta halako egoeretarako... Ez dakigu nora jo, batzuetan beharra egun batetik bestera sortzen zaizu» (VI8).

#### 8.4. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMARI BURUZKO IRITZIAK

Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen duten eta desgaitasuna duten pertsonen ondoen baloratzen dituzten gaiei dagokienez, ideia esanguratsuenak modu nabarmenean lerrotatzen dira bizitza independenteterako eskubidearen berezko printzipio eta elementuekin, hau da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutakoekin: aukeratzeko, autonomia, independentzia, erabakia, pertsonalizazioa, askatasuna, autokudeaketa eta ingurune naturalean mantentzea. Lekukotza batek, adibidez, zera kontatzen du:

*«Zure etxean bizi ahal izatea nahi duzuna eginez, ordutegi finkorik ez izatea, jaiki eta esatea: gaur eguraldi ona dugu, hau egingo dut. Arauetan itsututa ez egotea. Dena den, serioa izan beharra dago, eta errutina izan, bestela laguntzaile profesionalak erotu egingo dituzu.*

*Erabateko askatasuna ez den arren, hori bada askatasuna, eta askoz ere maniobra-tarte handiagoa duzu. Hori ez da gertatzen egoitzetan, bertan ez duzulako erabaki horiek hartzeko aukerarik. (...) Askatasuna ematen dizu, ni aitarekin bizi naiz, adi egoten naiz, zaindu egiten dut eta igandeetan familia osoa etortzen da. Nire erabakia da familiako kide batzuk zaintzea» (VI9).*

Aske hitza asko aipatzen da jasotako kontaketen: «...askea naiz nahi dudana egiteko, erabakiak neronek hartzeko, huts egin dezakedan arren. (...) azalpenik eman beharrik gabe erabakiak hartzeko» (VI5); «programak bihurtu nau aske; zuk erabakiz gero, maila handiagoan zara zu. Heltzen laguntzen dizu, gizar-tearen infantilizazioaren aurka arduratsu izaten» (VI16). Zentzu horretan, beste pertsona batek, alderdi positiboei buruz, zera dio: «Zure bizitza askatasunez bizitzea, nola bizi nahi duzun zeuk erabakitzea, egoitza batean bizitzera derri-gortuta egon gabe, bertan ezin baituzu ezer erabaki. (...) Nahi duzunean eta nahi duzunarekin irteten zara etxetik, inork esan gabe norekin eta nola egon behar duzun» (VI8).

Beste pertsona baten ustez, ia dena positiboa da, «...ahal den neurrian, bizitza independentea izatea, eta zure bizitzari buruzko erabakiak hartu ahal izatea» (VI11). Eta, beste baten ustez, «autoestimua igotzen du, eta hori bizi-kalitatea da» (VI16). Independente hitza ere nabarmena da; adibidez, lekukotza batek zera aipatzen du: «independentea izan eta zure etxean bizi ahal izatea, zure ingurunean egon ahal izatea» (VI4). Elkarrizketatutako beste baten ustez:

*«Programak espektatibak bete ditu. Nire premiak betetzen lagundu dit. Orain, nire egoera askoz hobea da. Lehen, nire emaztea goizeko zazpietan joaten zen lanera, eta ni esna egoten nintzen, sabaiari begira, bera itzuli arte, batzuetan beroki eta guzti (...) Nire bizimodua erabat aldatu da» (VI15).*

Bizitza Independenteterako Programaren ahulguneei edo hobetu daitezken arloei dagokienez, etxebizitza aipatzen dute, programan sartu ahal izateko funtsezko elementua baita. Hasteko, «behar adina baliabide ekonomiko behar dituzu, baita etxe bat ere; horrek asko zailtzen du programan sartzea» (VI15). «Programan sartzeko alokairuan edo jabetzako etxean bakarrik bizi behar izateak programatik kanpo uzten du jende asko» (VI16). «Bakarrik bizi behar izateaz gain, ezin dute gurasoekin bizi helduak direnean» (VI15). Horregatik guztiagatik, erakundeek laguntza eskatzen dute «ekonomikoki irisgarriak diren etxebizitzak lortzeko eta, horrela, Bizitza Independenteko proiektuak eskuratu ahal izateko» (VI2, VI13); izan ere, funtsean, laguntza hori falta dela ikusten dute:

*«Ez da programaren aldeko apusturik egiten; hala izango balitz, jendeak aukera gehiago izango lituzke etxebizitza bat lortzeko. Gu zorteko izan ginen eta apartamentua lortu genuen, eta, horrela, programara sartu ginen. Hala izan ez balitz, ez ginatekeen Bizitza Independenteterako Programan sartuko. Programan sartzeko eskakizunak oso zorrotzak*



*dira. (...) Badaude gu bezala bizi nahi duten pertsonak, baina ezin dute bere gain hartu, edo ez dituzte baldintzak betetzen (...)» (VI2, VI13).*

Hala ere, bi gai dira gehien errepikatzen direnak: jasotako zenbateko ekonomikoa ez dela eguneratzen eta, ondorioz, laguntzaile pertsonala kontratatzearekin lotutako beste kostu batzuk igotzean edo zerbitzu horren ondoriozko beste inguruabar batzuetarako, (bajak, oporrak, baldintzen aldaketak, etab.) zenbatekoa ez dela egokitzen. Horrek guztiak desgaitasunaren gailikostua baino ez du eragiten, modu independentean bizitzeko eta komunitatean berdintasun-baldintzetan parte hartzeko aukerak mugatzen baititu. Elkarriketatutako batek dioenez: «*Dudan pentsioa izango ez banu, ezingo nintzateke bizi orain bizi naizen moduan. Programak ez ditu nire premia guztiak estaltzen, eta nire diru-sarrerak erabili behar ditut beharrezko laguntzak izateko, eta, hala ere, ez da nahikoa*» (VI9). Funtsezko arazoetako bat da gastuak igo egin direla, baina ematen diren zenbatekoak ez direla eguneratu: «*programak 10 urte baino gehiago daramatza eguneratu gabe. (...) Egunetik egunera, erosteko ahalmena gero eta txikiagoa da; dena doa gora, prestazioak izan ezik. (...) Gehiena etxean gastatzen dut, bakarrik bizi naizelako*» (VI 12).

Beste lekukotza batek zera dio:

*«Baliaezintasun handiko pentsioa dut, eta gehigarria kentzen didate, programa ordaintzeko. Ez dakit zer puntutaraino zaidan errentagarria, nire egoerari lotutako beste gastu batzuk ditudalako, eta ez dakit zergatik kentzen duten gehigarria. Badakit hirugarren pertsonaren gehigarria horretarako dela, baina beste egoera batean ordaindu beharko ez nituzkeen gastuak sortu zaizkit (garabia, aulkia...); uste dut hori guztia kontuan hartu beharko luketela, eta hirugarren pertsonaren gehigarria desgaitasunak sortutako gastuak ordaintzeko erabiltzea ahalbidetu, eta hirugarren pertsonarako laguntza hori ere hornitzea. Adibidez, aulki elektrikoa izango ez banu, laguntza gehiago beharko nuke» (VI 11).*

Laguntzaile pertsonalak kontratatzeko prestakuntza jakin bat eskatzea ere mugatzat hartzen dute eskatutako laguntzak eskuratzeko; izan ere, eskakizun horrek oztupoak jartzen ditu desgaitasuna duten pertsonen aukera askean. Haien iritziz, «*ez zait ondo iruditzen laguntzaileari titulua eskatzea lan egiteko aukera izateko*» (VI12), edo «*titulu (soziosanitarioaren) auzia arazoa da, asko mugatzen du. Titulu bat izateak ez du bermatzen gehiago dakienik*» (VI15).

Bestetik, programak haien espektatibak bete ote dituen galdetzean, ideia bat izan da nagusi: programara sartzea da desgaitasuna duten pertsonen premiak estaltzeko erantzun egokiena eta zuzenena, eta baita bizitzako hainbat alderdiri buruzko erabakiak hartzeko ere. Elkarriketatutakoek, adibidez, zera diote: «*independente izateko nuen ideia bete du; programara sartu nintzenean, hori ez zen posible niretzat. Programara sartzean, ezin nien laguntzaile pertsonalei ordaindu*» (VI16), edo «*...nahi dudan bizitza hori, apur bat justuagoa, izaten la-*

guntzen dit» (VI9), edo «asko errazten dit bizitza, bestela oso zaila izango litza-teke niretzat; beraz, bai, bete ditu nire espektatibak» (VI4).

Hala ere, egindako balorazioetan nolabaiteko atsekabea adierazi dute, programa-ren gabeziek hasierako aurreikuspenak erabat betetzea eragozten baitute. Adibidez, VI6-k zera baieztatu du:

*«Espektatibak ez ditu guztiz bete; premien hasierako kalkulua egiten dute, baina gero konturatzen zara ez dela nahikoa, esandakoa baino gutxiago delako. Ez dut nahikoa diru behar dudana zaintza lortzeko. Ideia gisa oso ondo dago, baina errealitatea ez da berdina, eta adibi-dez, gaixorik egonez gero edo laguntza gehiago behar izatekotan, ez duzu lortuko zure premiak estaltzea».*

## 8.5. BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMA ETA BIZI-IBILBIDEA

Elkarrizketatuei honako galdera hau egin zitzaien: *Zure ustez, nolakoa izango zen zure bizi-ibilbidea, bere garaian Bizitza Independenteterako Programan sartu izan ez bazina?* Galdera horren aurrean, oro har, adierazi dute alternatiba institu-zionalizazioa izango zela, eta horren ondorioz, ez luketeela izango aukeratzeko gaitasunik, bizi-kalitaterik, komunitatean parte hartzeko eta proiektu pertsona-lak eta bizi-proiektuak betetzeko aukerarik, edo, kasu batzuetan, familiarekiko mendekotasuna betiko bihurtuko litzatekeela. Hortaz, beren burua ikusten dute «etxean edo egoitza batean giltzapetuta. Baina ziurrenik egoitza batera joango nintzatekeen, ez nukeelako inor izango etxean behar ditudan zaintzak egiteko» (VI9), edo, beste batzuen hitzetan, «egoitza batean botata, edo pinuzko kutxa batean, milaka zizare inguruan» (VI5, VI10). Beste pertsona batek bere egoera zein izango zatekeen azaldu du:

*«Oso txarra, azken sei edo zazpi urteotan, mendekotasun-maila asko igo zait. Orain ezin ditut egin lehenago egiteko gai nintzen gauzak. Programan egongo ez banintz, ezingo nuke nahi dudana ezer aukeratu; egoitza batean egiteko beharra izango nuke, eta bertan ezin duzu nahi duzuna egin, ordutegiak finkoak dira, ahal dutenean aldatzen dizute pixoihala, zerbitzua ez da batere pertsonalizatua... Espero dut oraindik errealitate horretara ez heltzea. Honela, zure bizitza, zure or-dutegiak dituzu...» (VI4).*

Beste batek zera dio: «saminduago biziko nintzateke», are gehiago, «alaba bat izan nuen, hein batean programak ahalbidetu zidalako. Nigan sortu duen alda-keta izugarria izan da» (VI15).

Gauzak egiteko aukerari dagokionez, beste batek zera argudiatu du: «familiak sakrifizio askoz ere handiagoa egin beharko zukeen. Nigatik baino, inguruan ditudanak gauza gehiago egin beharko zituzketen. (...) Familia gaitzartzen egongo nintzateke, eta ezingo nuke gaur egun egiten dudana bizitza soziala

izan. Egiten ari naizen gauzak egiteari utzi beharko nioke» (VI11). Bestetik, zenbaitek argudiatzen dute «Programa oso beharrezkoa dela mendekotasunean oinarritutako harremanik ez sortzeko, eta autoestimua igotzen duela, bizi-kalitatea hobetzeaz gain» (VI16). Beste lekukotza bat esplizituagoa da, zera azaldu du: «(nire bizitza) antzekoa izango litzateke, baina opakua, beltzean» (VI7).

Programa desagertuko balitz zer gertatuko ote zen galdetzean, gehienek erantzun dute aukera bideragarri bakarra instituzionalizatzea litzatekela, baina, aldi berean, horren aurkako erresistentzia handia ikusten da eguneroko bizitzako jardueretarako eta komunitatean sartzeko behar diren laguntzak bermatzen dituen ereduaz gozatu ahal izan duten pertsonengan. Egoera horren aurrean, honelako iritziak azaldu dituzte: «nire bizitza erabat desberdina izango litzateke, muga askorekin, nahi dudak bezala eta nahi dudak moduan bizitzeko aukerarik gabe. (...) Nagoen bezala zoriotsua naiz. (...) Ez nintzateke egoitza batera ohituko, esandako orduan irtengo eta itzuliko nintzateke; mugak izango nituzke sozializatzeko» (VI8). Beste iruzkin batek zera azaldu du: «Nire bizi-kalitatea kaltetuko luke. Gauza pila bat kendu beharko nituzke, laguntzaileak gauza minimoetarako izango nituzke, eta jaikitze eta ohera joateko izango litzateke, funtsezkoena bakarrik, eta irteerak ere mugatuko lituzke...» (VI15) edo «ez dut egoitzara itzuli nahi; badakit hor zer dagoen. Nire bizitzarekin jarraituko nuke ahal bezainbeste, kondizio minimoetan» (VI12).

Beste batzuek adierazi dute arazo ekonomikoak izango lituzketela beren bizi-estandarra mantentzeko:

«Ez dakit zer egin beharko nukeen programa desagertuko balitz. Ekonomikoki ezingo nuke mantendu, eta alternatibaren bat bilatu beharko nuke, eta hori ziurrenik egoitza izango litzateke. Atzerapausoa litzateke, eta nik etxean eta nire ingurunean bizitzen jarraitu nahi dut» [...] «Agian etxe batean bizitzen jarraituko nuke, baina baliteke azkenean arreta kaskarra izatea, ezingo niokeelako laguntzaile pertsonalari ordaindu. (...) Egoitza batean amaituko banu, nire buruaz beste egingo nuke. (...). Egoitzak jendea aparkatzeko lekuak dira» (VI16).

## 8.6. AMIA MATRIZEA: PARTE-HARTZAILEEK PROGRAMAZ EGINDAKO BALORAZIOA

Amaitzeko, elkarrizketatutako pertsonak Bizitza Independenteterako Programari buruz egindako balorazioari buruz aipatutako gaiak laburbildu dira, egoeraren analisiaren AMIA matrize batean. Matrizeak programaren indarguneak, aukerak, ahuleziak eta mehatxuak biltzen ditu, eta, hurrenez hurren, programaren gaitasun, gizarte-sistemekiko potentzial, zailtasun edo arazo eta programaren garapenean eta hedapenean eragina izan dezaketen gizarte-arrisku gisa ulertzen dira (Oion eta Aranguren, 2021).

AMIA MATRIZEA 1: Onuradunek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizitza Independenterako Programari buruz egindako balorazioa

| BARNE-FAKTOREAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | KANPO-FAKTOREAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>INDARGUNEAK (Gaitasunak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Autoestimua eta bizi kalitatea hobetzea.</li> <li>- Gaitasunak eta eskubideak sustatzea: hautua, autonomia, independentzia, erabakia, pertsonalizazioa, askatasuna, autokudeaketa, komunitatearekiko atxikimendua.</li> <li>- Elkartuk emandako arreta hurbila eta egokia, programari buruz informazioa emateko eta sarbidea bideratzeko.</li> <li>- elkartuk programari lotutako kudeaketak erraztea.</li> <li>- Dagoeneko parte hartzen dutenek programari buruzko informazioa zabaltzea.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                            | <p><b>AUKERAK (gizarte-sistemetan)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarturen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren programa kudeatzeko.</li> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundiak arduraduna esleitzeak dakarren hurbiltasuna, eskuragarritasuna eta erreferentzialtasuna.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <p><b>AHULEZIAK (Zailtasunak edo arazoak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Programan sartu ahal izateko, nahikoa baliabide eta etxebizitza bat eduki behar izateak kanpoan uzten ditu pertsona asko.</li> <li>- Zailtasunak tramitazioa egiteko orduan. Bizitza independentean esperientziarik ez dutenei kostatzen zaie kalkulatzeko zenbat laguntza-ordu behar dituzten.</li> <li>- Laguntzaile pertsonala kontratatzearekin lotutako kudeaketak eta horrek dakartzan betebeharrak.</li> <li>- Beharrezko gastuen kalkulua ez dator bat laguntzailearen bajengatik, bizi-kostuaren gehikuntzengatik eta laguntza teknikoaren gastuengatik sortzen diren gastu errealekin.</li> <li>- Pertsona batzuen mendekotasuna areagotzea.</li> <li>- Laguntza-premia guztiak asetzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea.</li> </ul> | <p><b>MEHATXUAK (Gizarte-arazoak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Programaren hedapen instituzionalik eza.</li> <li>- Gizarte-zerbitzuetako profesionalek programa ez ezagutzea.</li> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundian teknikari erreferenteak aldatzea, harremanetan eragina izan dezakeena.</li> <li>- Diru-sarrerak ez eguneratzea, laguntzaile profesionala kontratatzeako gastuak eta bestelako gastuek gora egin arren.</li> <li>- Laguntzaile profesionalen titulazioa eskatzeak kontratatzeako aukerak mugatzen ditu, eta gaitasuna duten pertsonak kanpoan uzten ditu, titulurik ez dutelako.</li> </ul> |

Ikus daitekeenez, programaren finantzaketan jarraitutasunik ez izateak eragin negatiboa izango luke pertsonen bizitza independentearen proiektuaren jarraipenean, eta ondorio negatiboak izango lituzke haien osasun bio-psiko-sozialean: arreta pertsonala, harremanak, emozioak, jarduerak eta komunitatean parte hartzea mugatzea edo bertan behera uztea, eta familia gehiegi kargatzea.

Programa hobeto iristeko eta egokitzeko desgaitasuna duten pertsonen egoerara eta benetako beharretara, elkarriketatutako pertsonak honako jarduera hauek proposatzen dituzte:

- Bizitza Independenteterako Programa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroan sartzea.
- Desgaitasuna duten pertsonak etxebizitza ekonomikoki irisgarria lor dezaten sustatzea, diru-sarreraren eta desgaitasunetik eratorritako gastuen arabera.
- Gizarte Zerbitzuetako teknikariei Bizitza Independenteterako Programari buruzko prestakuntza ematea, haiek desgaitasunari laguntza integrala emateko aukeren artean ezagutaraz dezaten.
- Inprimakiak eta eskuliburu bat sortzea, honako informazioarekin: sartzeko baldintzak, izapidetzeko laguntzak, laguntza-orduen kalkulua, nola kontratatu edo aldatu laguntzailea, etab.
- Laguntza programan sartzeko tramitazio-prozesuan zehar.
- Laguntzaile pertsonala bilatzearekin eta kontratatzearekin lotutako kudeaketarako eta horrek dakartzan betebeharretarako laguntza.
- Programaren erakunde kudeatzaileak laguntzaile pertsonalei prestakuntza ematea.
- Prestakuntza jasotako laguntzaileen lan-poltsa sortzea.

# V. zatia

## — Ondorioak eta proposamenak

### 9. EBALUAZIOAREN ONDORIOAK ETA JARDUTEKO PROPOSAMENAK

- 9.1. AMIA matrizea: Bizitza Independenteterako  
Programaren ebaluazioa
- 9.2. Gomendioak eta proposamenak

## — 9. Ebaluazioaren ondorioak eta jarduteko proposamenak

Bizitza Independenteterako Programaren ebaluazioaren helburua izan da proposatutako helburuen betetze-maila aztertzea, ia bi hamarkada igaro ondoren, bai eta heldu beharreko erronkak zehaztea ere, desgaitasuna duten pertsonen modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko duten eskubidea erabat bermatzeko, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikuluan aitortutako hitzetan.

Ikerketa-proiektua elkarturen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin gauzatu da, eta hori, berez, mugarri garrantzitsua da erakunde publikoen, jakintzaren arloaren eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzaren bultzatzeko erronkan. Lortutako emaitzek eta gauzatutako prozesuak berak ondorioztatzen dute funtsezkoa dela politika publikoen eztabaidan, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren il-doan sakontzea.

Halaber, bereziki aipagarria da desgaitasuna duten pertsonen berek zuzenean eta era aktiboan parte hartu dutela kide diren programaren ebaluazioan. Bizitza independentearen ereduaren printzipioekin koherentea izateaz gain – eredu horrek desgaitasuna duten pertsonen gain horiei buruzko erabakiak hartzeko gaitasun osoa izatea sustatzen du –, parte-hartzaileek beren gain hartutako protagonismoari esker, zehaztasun handiz diagnostikatu ahal izan dira hobetu beharreko alderdiak eta hartu beharreko neurriak.

Ebaluazio-ikerketari ekiteko erabili den ikuspegi holistikoak Bizitza Independenteterako Programaren dimentsio anitzeko diagnostiko bat egin du, eta hainbat eremurekin lotzen diren elementuak eta ondorioak txertatu ditu, hala nola soziala, emozionala edo ekonomikoa. Horri esker, desgaitasuna duten pertsonen desinstituzionalizaziora eta komunitate-inklusioa sustatzera bideratutako politika publikoen barruan sartzen den programa batek sortutako emaitzen ikuspegi integrala osatu ahal izan da.

Horrela, egiaztatu da bizimodu independentearen ereduak desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta biztanleria osoaren osasun emozional balio-kidea bermatzen duela, eta, horrela, ahalduntzea eta aukeratzeko askatasuna errazten ditu bizitzako alderdi guztietan. Era berean, inbertsio publikoak itzulketa ekonomiko handia bermatzen du, eta horrek desgaitasunaren arloko politiken eta neurrien efizientziari laguntzen dio.

Beraz, ebaluazio honek informazio, datu, ondorio, balorazio eta proposamen berriak eskaintzen ditu, eta horiek garrantzitsuak izan daitezke Gipuzkoako bizimodu independentearen eredua bera bultzatzeko, Desgaitasuna du-

ten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren ondoriozko nazioarteko orientabide eta aginduen testuinguruan, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari bertan bultzatzen ari diren trantsizio-politiken testuinguruan ere. Horiek guztiek, nahitaez, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independenterako eskubidea bermatzea ekarri behar dute.

### **9.1. AMIA MATRIZEA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BIZITZA INDEPENDENTERAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOA**

Lortutako emaitzak laburtzeko eta Bizitza Independenterako Programaren etorkizuneko orientabideen oinarriak ezartzeko, jarraian egoeraren analisieren matrize bat aurkezten da, AMIA (aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak) tresnan oinarrituta, eta arreta programaren alderdi positiboetan jartzen da. Horrela erabiliko da, kontzeptuak ikerketa eta esku-hartze sozialaren testuingurura ere egokituz (Oion eta Aranguren, 2021). Hartara, aurkeztutako matrizeak, barne-faktoreei dagokienez, parte-hartzaileek dituzten gaitasunak eta zailtasunak jasotzen ditu, eta, kanpo-faktoreei dagokienez, gizarte-sistemek eskaintzen dituzten bermeen esparrua eta Programaren bilakaeran eragiten duten egiturazko gizarte-arriskuak.



AMIA MATRIZEA 2: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizitza Independenterako  
Programaren ebaluazioa

BARNE-FAKTOREAK

**INDARGUNEAK (Gaitasunak)**

- Bizitza independentearen ereduaren zeharkako ikuspegia; izan ere, laguntza pertsonalarekin batera, hainbat alderdi jorratzen ditu, hala nola etxebizitza, diru-sarreraren kopurua edo laguntza-produktuak.
- Bizitzaren hainbat alderditan aukeratzeko askatasunaren bermea.
- Desgaitasuna duten pertsonen ahalduztzean laguntzea.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen instituzionalizazioa geldiaraztea.
- Desinstituzionalizatzeko prozesuetan laguntzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen artean familia-unitate propioa eratze prozesuak sustatzea.
- Familiaren laguntzak murriztea, askatasunez aukeratzeko eta kudeatzeko laguntzaile profesionalen alde.
- Familian oinarritutako laguntza-eredua gainditzeko prozesuetan laguntzea.
- Desgaitasuna, mugikortasun murriztua eta mendekotasuna duten pertsonen profiletara bideratutako baliabideak bermatzea.
- Desgaitasunaren gainkostua prebenitzen edo, hala badagokio, arintzen laguntzea.
- Pertsonalizazio-irizpideetan oinarritutako laguntza-baliabidea.
- Laguntza-premia jakinen estaldura zabala, ordutan zehaztuta.
- Laguntzaile bat baino gehiago behar diren egoeren estaldura.
- Eguneroko bizitzako oinarritzako premiak eta partaidetza komunitarioari lotutakoak estaltzea.
- Osasun mental egokia eta biztanleria orokorrarekiko antzekoa eskuratzen edo, hala badagokio, mantentzen laguntzea, bai psikopatologiari dagokionez (depresio-, ansietate- eta estres-maila nahiko baxuak), bai osasun mental positiboari dagokionez (bizitzarekiko gogobetetasuna, ongizate emozionala, soziala eta psikologikoa, eta ingurunea menderatzea).
- Gizarteratze-egoeran sartzeko edo egoera horri eusteko bermea.
- Gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak gizarteratzera gehiago hurbiltzen direla bermatzea, gizarte-bazterketara baino.
- Desgaitasun fisikoa duten emakumeek jasan ohi duten genero-arrakala arintzeko eragitea.
- Desgaitasuna duten parte-hartzaileen gogobetetasun-maila altua.
- Parte-hartzaileek programak bermatutako laguntza-ereduarekin duten identifikazioa eta konpromisoa.
- Programan sartzen diren pertsonen baliabidearen egonkortasuna izatea eta denboran zehar irautea.
- Kudeaketa administratibo zuzena.
- Programa malgutasunez eta bizkortasunez kudeatzea.
- Urteroko justifikazioak konplexutasun handirik ez izatea.

## KANPO-FAKTOREAK

### AUKERAK (gizarte-sistemetan)

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioarekin eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Komitearen 5. ohar orokorrarekin lerrokatzea.
- Desgaitasunaren gizarte-ereduarekin bat etortzea.
- Hasieran izaera esperimentala zuen programa kontsolidatzea.
- Desgaitasuna duten eta mendekotasun-egoeran daudenentzako egoitza-plaza baten kostua baino prestazio txikiagoa, edozein kasutan.
- Programan egindako inbertsio publikoaren itzulketa ekonomiko nabarmena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien hurbiltasun, prestasun eta erreferentzialtasuneko arreta.
- Parte-hartzaileek programaren transmisioan eta dibulgazioan parte hartzea.

## BARNE-FAKTOREAK

### AHULTASUNAK (Zailtasunak)

- Programan sartzek bizikidetza-unitate propio bat eratzearekin edo emantzipazio-prozesu batekin duen lotura.
- Nahikoa informaziorik ez egotea, programan sartzeko aldeko ebazpena emateko unean, bizitza independentearen proiektuaren garapenarekin lotutako alderdiei buruz.
- Ez dago laguntza-baliabiderik, Bizitza Independentearen Bulego gisa, programarekin lotutako izapideak egiteko: bizitza independentearen proiektua egitea, laguntza pertsonaleko zerbitzua bilatzea eta kontratatzea, lan-kudeaketa, gatazka-egoeretarako bitartekaritza, etab.
- Programarekin lotutako kudeaketak egiteko laguntza-sare formalik ez izatea.
- Laguntzaile pertsonalak bilatu, prestatu, kontratatu eta haiekin gatazkak konpontzeko laguntza-baliabide batekin loturarik ez izatea.
- Salbuespenezko eta/edo premiazko egoeretan laguntza pertsonaleko zerbitzua emateko laguntza-baliabiderik ez izatea.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzuaren benetako kostua baino estaldura ekonomiko txikiagoa ematea.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzuan gertatutako aldaketak eta kontingentziak ez estaltzea (bajak, oporrak, ordezkapenak, etab.).
- Programak bermatutako zenbatekoak urtero ez eguneratzea, lotutako kostuen igoeraren edo aparteko edo aparteko zirkunstantzien arabera.
- Diru-sarreraren maila txikiagoa eta desgaitasun fisikoa dituzten pertsonen ordezkartzarik eza.
- Desgaitasuna duten gazteen ordezkartzarik eza.
- Landa-eremuaren ordezkartza txikia parte-hartzaileen artean.
- Programaren ebaluazio sistematikorik eza.

## KANPO-FAKTOREAK

### MEHATXUAK (Gizarte-arazoak)

- Programa Prestazioen eta Zerbitzuen Zorrotik kanpo uztea, eta, ondorioz, ez aitortzea izaera subjektiboko eskubide gisa.
- Programaren ardura duten foru-teknikarien ezegonkortasuna.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek programa gutxi ezagutzea.
- Programa gutxi erabiltzea desinstituzionalizazio-prozesuak hasteko baliabide gisa.
- Programaren estaldura-tasa txikia desgaitasuna duten pertsonen artean, beste prestazio eta zerbitzu batzuekin alderatuta.
- Desgaitasuna duten pertsonen artean programa gutxi ezagutzea.
- Familia-erresistentziak saihesteko bitartekaritza- eta/edo esku-hartze-baliabiderik ez izatea programan sartzeko.
- Programarako sarbide mugatua, horren berri bide formalen bidez izan ondoren.
- Etxebizitzaren jabetza-erregimenarekiko mendekotasun handiegia, eta, ondorioz, alokairu-erregimena sustatzeko neurriekiko lotura txikia.
- Etxebizitza-politika publikoekiko mendekotasun handiegia bizitza independenteko proiektu bat hasteko.
- Programak lan-jarduera bat egitearekin loturarik ez izatea.
- Programak loturarik ez izatea kotizazio gabeko pentsio edo prestazioekin.
- Laguntzaile pertsonalen eskaintza mugatzea, bizitza independentearen ereduaren printzipioetara egokitzen ez den prestakuntza eskatzeagatik.
- Laguntzaile pertsonalen ezegonkortasun eta aldakortasun handia.
- Laguntza pertsonaleko funtzioen jarduera feminizatuta egotea.

## 9.2. GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK

Azterlana amaitzeko, laburpen moduan, proposamen eta gomendio multzo bat aurkeztuko dugu jarraian, dekalogo gisa, Bizitza Independenteterako Programa sendotzen, bultzatzen eta garatzen esku hartu behar duten eragileei zuzenduta, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikularen testuinguruan:

- 1) Bizitza Independenteterako Programa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sartzea, eskubide subjektibo gisa eratzen dela bermatzeko, eta, horrela, haien segurtasun juridikoa bermatzeko eta, bereziki, desgaitasuna duten pertsonen artean estaldura-tasa handiagoak lortzeko.
- 2) Programan parte hartzen duten pertsonen laguntza pertsonaleko zerbitzuaren kostu osoaren estaldura bermatzea, ezusteko zirkunstantziek edo kostuen legeko gehikuntzek eragindakoak barne, desgaitasunaren gainkostuari egin dakioken ekarpena saihesteko.
- 3) Desgaitasuna duten pertsonen artean diru-sarrera txikiagoak dituztenek programan parte har dezaten sustatzea, eta, horretarako, zeharkako ikuspegi multisistema batetik (soziala, fiskala, lanekoa, diru-sarreraren bermea, etab.) neurri berritzaileen hausnarketa, diseinua eta ezarpena bultzatzea.
- 4) Desgaitasuna duten gazteek programan parte har dezaten bultzatzea, Euskadiko gazteen emantzipazioa sustatzeko politiken esparruan.
- 5) Landa-eremuan desgaitasuna duten pertsonak programan sar daitezen bultzatzea, programaren izaera malgua, gehiegizko burokratizaziorik eza eta aurrez zehaztutako espazio fisiko batekin loturarik ez izatea baliatuz.
- 6) Programa sustatzea, desgaitasuna duten pertsonen artean desinstituzionalizazio-prozesuak diseinatzeko eta garatzeko tresna gisa, nazioarteko erakundeekin aginduekin bat etorriz.
- 7) Etxebizitzaren alokairua sustatzeko politika publikoen instrumentalizazioa bultzatzea, batez ere alokairu sozialarena, desgaitasuna duten pertsonak programan sar daitezen errazteko.
- 8) Transferentzia ekonomikoari laguntzeko baliabide osagarri bat eratzeari, laguntza pertsonala kontratatzei, Bizitza Independentearen Bulego gisa. Baliabide horrek beharrezko laguntzak emango ditu laguntzaile pertsonalak bilatzeko eta kontratatzei, kontratazioari dagozkion lan-kudeaketak egiteko, gorabeherak eta salbuespenezko gertakariak konpontzeko, enplegatzailearen eta enpleguaren arteko gatazketan edo familia-eremuan gerta daitezkeen erresistentzien aurrean bitarte-

kotza egiteko, eta desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea sustatzeko elkarri laguntza emateko.

- 9) Desgaitasuna duten pertsonen artean programaren ezagutza sustatzeko estrategia bultzatzea, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak ahalduntzeko eta programan sar daitezen bultzatzeko neurri gisa.
- 10) Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren esparruan, bizitza independentearen eredua ezagutaraztea eta zabaltzea sustatzea, ikerketa-jardueren eta proiektu berritzaileen bidez. Horretarako, eragile publiko eta pribatu eskudunen lankidetzaren erabiliko da, eta desgaitasuna duten pertsonen eta horiek ordezkatzen dituzten hirugarren sektore sozialeko erakundearen parte-hartze zuzena bermatuko da.

# Bibliografia

Zerga Agentzia (2021). *Manual práctico IVA 2021*.

